XEDAPEN OROKORRAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

2183

40/2016 DEKRETUA, martxoaren 8koa, Gorbeia kontserbazio bereziko eremu (ES2110009) izendatzen duena.

Gobernu Kontseiluak 1997ko abenduaren 23an, 2000ko azaroaren 28an eta 2003ko ekainaren 10ean egindako bilkuretan hartutako erabakien bidez, hegaztientzako babes bereziko sei eremu (Hegaztientzako BBE) izendatu ziren, eta 52 gune proposatu ziren batasunaren garrantzizko leku (BGL) izateko. Proposamena Europako Batzordera eraman zen, eta han ontzat eman zuten BGLen zerrenda, 2004/813/EE eta 2006/613/EE erabakien bidez. Erabakiok Atlantikoko eta Mediterraneoko eskualde biogeografikoei dagozkie, hurrenez hurren, eta hortxe kokatzen da gure autonomia-erkidegoa; Gorbeiako eremua (ES2110009) ere tartean zegoen.

Habitat Naturalak eta Basoko Fauna eta Flora zaintzeari buruzkoa den Europako Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauaren 4. artikuluak eta Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 45. eta 46. artikuluek ezarritakoari jarraikiz, autonomia-erkidegoek, jendaurrean jarri ondoren, beren lurralde-eremuko BGL guztiak kontserbazio bereziko eremu (KBE) izendatu eta eremuok behar bezala kontserbatzeko neurri egokiak ezarri beharko dituzte, kontuan hartuta lekuan lekuko habitat naturalaren eta espezieen berezitasunen araberako eskakizun ekologikoak. Kontserbazio-neurri horiek izango dira, batetik, kudeaketako planak eta baliabideak, eta, bestetik, erregelamenduzko neurriak, administratiboak edo kontratuzkoak.

Dekretu honen bidez, Gorbeia KBE izendatu, eta hura kontserbatzeko helburuak eta neurriak ezartzen dira. Baina eremu horrek naturagune babestuen tipologia bikoitza biltzen du, parke naturala eta Natura 2000 Sareko kontserbazio bereziko eremua baita; gainera, eremu horretan, Itxinako Biotopo babestua dago. Beraz, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginaren (NKLTB) 18. artikuluari jarraikiz, eremu hori antolatzeko mekanismoak koordinatu egin behar dira, eremuaren plangintza integratuko duen dokumentu bakar batean biltzeko; horrela, kategoria bakoitzean aplika daitezkeen araubide desberdinek osotasun koherente bat osatuko dute.

Parke naturalen kasuan, hiru tipologiak arautzen dituen dokumentu bakarraren lege-aurreikuspena ezin da gauzatu, legeak berak ezartzen baitu tipologia horiek Natura Baliabideak Antolatzeko Plan (hemendik aurrera, NBAP) batek (NKLTBaren 20. artikulua) eta Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana (hemendik aurrera, EKZP) batek (NKLTBaren 27. artikulua) arautu behar dituztela. Beraz, horrelako kasuetan, bi dokumentu egon beharko dira: bata parke naturalerako izaera bikoitza duen BNAPa eta KBErako helburu eta erregulazioak jasotzeko; eta, bestea, izaera bikoitza duen EKZPa eta kudeaketa neurriak jasotzeko. Gainera, kontuan hartuta eremu horretan Itxinako Biotopo babestua dagoela, horri dagozkion erregulazioak BNAPean eta KBEaren helburu eta erregulazioen dokumentuan jasotakoekin koordinatu beharko dira.

Gainera, onartzean, kontuan hartu behar da Eusko Jaurlaritzak eta foru-organoek dituzten eskumen konkurrenteek koordinazio-ahalegin berezia dakartela. Izan ere, NBaren tipologia desberdinen deklarazioa Eusko Jaurlaritzari dagokio edonola ere (NKLTBaren 19.1 artikulua). Parke naturalei dagokienez, NBAPa bideratzea eta onartzea Eusko Jaurlaritzaren eskumena da (NKLTBaren 7.a artikulua); EKZPrako, aldiz, prozedura bifasikoa jarraitzen da. Hau da, lehenik, foru-organoek

bideratzen dute eta organo horiek onartzen dituzte parke naturalaren kudeaketari dagozkion jarraibideak; eta bigarrenik, Eusko Jaurlaritzak bideratzen du, araudiari dagokionez (NKLTBaren 29.e artikulua). Bestalde, KBEei dagokienez, helburuak eta araudiak onartzea Eusko Jaurlaritzaren eskumena da (NKLTBaren 22.5 artikuluaren lehen paragrafoa) eta neurriak foru-organoei dagozkie (NKLTBaren 22.5 artikuluaren bigarren paragrafoa). Nolanahi ere, baliabide desberdin horiek guztiak EHAAn argitaratu behar izaten dira beti. Azkenik, biotopo babestuari dagokionez, horren izendapenean, erabilerak eta jarduerak arautzeko araudia jaso beharko da.

Horregatik, dekretu honen helburua da Gorbeia Natura 2000 Sareko kontserbazio bereziko eremu izendatzea eta izendapen honekin batera aurkeztu beharreko kontserbazio-neurriak onartzea (Eusko Jaurlaritzako eskumenekoak dira). Geroago, eta Bizkaiko eta Arabako foru-aldundiek aldi berean tramitatzen ari den EKZPa bidaltzen dutenean, Eusko Jaurlaritzak plan horren araudiaren zati bat onartuko du eta baliabide osoa EHAAn argitaratzeko aginduko du. EKZP horrek NKLTBaren 18. artikuluak eskatutako bikoiztasuna beteko du, hau da, parke naturalaren EKZP gisa eta KBEa kudeatzeko jarraibide gisa erabiliko da, 22.5 artikuluaren bigarren paragrafoari jarraikiz. Horrela, eremu honen erregulazioa osatuko da eta 92/43/EEE Zuzentarauaren 6. artikulua beteko da guztiz.

Horretarako, orain onartzen den dekretuak bi eranskin ditu. Lehenak KBEaren kartografia jasotzen du; bigarrenak, aldiz, NKLTBaren 22. artikuluak ezarritakoa betetzen du. Azken hori Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa da, KBEari buruzkoa da soilik eta dagoeneko izendatu diren gainontzeko Natura 2000 Sareko eremuen planteamendu berean oinarritzen da.

Dekretu honen azken xedapenetatik bigarrenean jasotzen denez, arau hau argitaratu ondoren, II. eranskin honek jasotzen duen Gorbeiako parke naturalaren NBAParen eta Itxinako Biotopoa izendatzeko dekretuaren aldaketari ekin beharko zaio, aipatutako dokumentu bakarra –Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa dena– egiteko, betiere NKLTBaren 7. artikuluan aurreikusitako prozedura luze eta konplexua konfiguratzen duten izapide prozesalak betez, baina Europarekiko betebeharrak ere beteta.

Hori horrela izanik, 92/43/EEE Zuzentarauak kontserbazio bereziko eremu izendatzeko ezarritako eskakizunak betetze aldera, Gorbeia sakon aztertu da, eta eskala egokian adierazi da Europar Batasunaren intereseko habitaten eta eskualdearen intereseko beste habitat batzuen banaketa; horrekin batera, haien kontserbazio-egoera ere ebaluatu da. Horretaz gain, gune horretako fauna- eta flora-espezie bereizgarrien banaketa eta kontserbazio-egoera ere aztertu da.

Ikuspuntu teknikotik Ikusi ahal izan denez, Gorbeian, 92/43/EEE Zuzentarauaren I. eranskinean jasotako Batasunaren intereseko 27 habitat-mota daude. Hortaz, Gorbeiak ekosistemen aparteko aberastasuna du; gainera, ondo kontserbatuta dago. Horretaz gain, gizakiek milaka urtetan abeltzaintza-erabilera eman diote. Horrek guztiak balio natural handiko eremua eta ingurune-aniztasuna sortu ditu; horren ondorioz, baso naturalak, mendiko txilardiak eta larreak, harkaitzak, hezeguneak (Altubeko urmaelak, Saldropoko hezegunea, esfagnalak, etab.) eta errekak batera existitzen dira. Gainera, Gorbeiak Habitat Zuzentarauaren II. eranskineko flora-espezieak dituen habitatak izateagatik da nabarmentzekoa, adibidez, *Narcissus pseudonarcissus ssp.nobilis* (Iberiar Penintsularen iparraldeko endemismo horretarako, eremu hau ekialdeko mugarik urrunena da), *Narcissus asturiensis*, *Trichomanes speciosum* edo *Spiranthes aestivalis* orkidea. Azpimarratzekoa da galzoriko espezietzat katalogatutako 8 flora-espezie eta 7 kaltebera daudela, Espezie Mehatxatuen EAEko Zerrendari jarraikiz. Bestalde, faunari dagokionez, Gorbeiak ondoen kontserbatuenetako hegazti-faunaren multzoa du, baita EAEko mendi inguruneko adierazgarrienetakoa ere, basoko, harkaiztiko eta goi-mendiko inguruneen espezie adierazgarrien komunite egituratua baitu. Ugaztunak ere interes bereziko taldeak dira; besteak beste, honako hauen presentzia da

azpimarratzekoa: muxar grisa (*Glis glis*), marta (*Martes martes*), ipurtatsa (*Mustela putorius*) edo basakatua (*Felis silvestris*). Bisoi europarra (*Mustela lutreola*) eta igaraba (*Lutra lutra*) noizbehinka agertzen dira; bi espezie horiek galtzeko arriskuan daude EAEn. Bestalde, Gorbeian, interes bereziko narrastiak daude, hala nola apoarmatu istilzalea (*Emys orbicularis*) edo Schreiber muskerra (*Lacerta schreiberi*), baita anfibio-espezie asko (4 urodelo eta 7 anuro), arrainak eta ornogabeak ere. Eremu hori BGL izendatzea arrazoitu duten natura- eta ekologia-balioetatik haratago, Gorbeia eta bere ingurua paisaiaren erreferente dira EAEn, oro har bertako biztanleentzat karga sinboliko eta kultural izugarria baitu, baita bereziki inguruko biztanleentzat ere. Horregatik guztiagatik eta parke naturala izateagatik, komeni da Gorbeia eremurako berariazko dekretu-proiektua egitea.

Horretaz gain, xehetasun-lanei esker lortu diren habitat moten azalerari buruzko datuak, zenbait kasutan, ez datoz bat Europako Batzordera –Euskal Autonomia Erkidegoko tokien zerrendaren proposamenarekin batera– igorri eta jakinarazitako datuekin. Gainera, xehetasun-azterketari esker habitat jakin batzuen interpretazioa zuzentzeko aukera izan da. Esate baterako, egiaztatu ahal izan da, eremu batzuetan, inprimakian adierazitako zenbait habitat-mota ez zeudela; eta, aitzitik, hasierako proposamenean adierazi ez ziren habitat-mota batzuk bazirela.

KBEa behin betiko mugatzeko, lan-eskala hobetu da eta zabaldu egin da. NBa zabaltzeak hasierako mugaketan ez parke naturalaren zatian ez BGLan ez zeuden bi eremu sartzea dakar, fauna mehatxatua eta intereseko habitatak kontserbatzeko duten garrantziarengatik. Bi eremu horietan, garrantzi handiko bi urmael daude, Habitat Zuzentarauak babestutako ornogabe-espezie batzuk baitaude bertan: Kukulupadrako urmaela (Zuiako udalerriko Altube) eta La Yesera (Urkabustaizko udalerriko Belauntza). Biak EAEko Hezeguneen Inbentarioan daude jasota (III. taldea). Gutxi gorabehera, Kukulupadrako urmaelean, gehitutako azalera 5,3 ha da; eta, La Yeseran, 6,5 ha da.

Guztiz eraginkorra izateko, KBEa zabaltzeak Europako Batzordearen Erabaki bidezko aldez aurretiko balidazioa eskatzen du; beraz, eremuaren mugaketaren kartografiak eremu hori mugatzeko bi lerroak jasotzen ditu. Horrela, mugaketa berriaren eraginkortasuna eta zabaldutako eremua kontserbatzeko neurrien ezarpena dekretu honen 1.3 artikuluan eta azken xedapenetatik lehenean jasotako baldintzapean daude, hurrenez hurren.

Kontserbazio bereziko eremu izendatzeko prozeduran, parte-hartze sozialaren prozesua behar bezala bete da, ingurumenaren alorrean informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justiziara heltzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legearen printzipioei jarraikiz. Prozesu horretan, interes sozial eta ekonomikoen ordezkari diren hainbat eragilek hartu dute parte. Parte hartzeko bideak zabalik egon dira izapidetze-prozesu osoan, publiko interesdunari komunikazioak helarazita eta egoitza elektronikoaren bitartez. Zehazki, http://www.euskadi.eus/natura2000 webgunean, eremuari buruzko informazio eguneratua egongo da beti.

Gorbeia kontserbatzeko baliabideak Europako Batzordeak ezarritako printzipioei jarraikiz landu dira, 92/43/EEE Zuzentarauan jasotako eta eremuan topatutako habitat eta taxonen eskakizun ekologikoei erantzuna emateko asmoz.

Horrenbestez, alde batetik, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginaren 22.5. artikuluan eta, bestetik, Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 45. eta 46.1 artikuluetan ezarritakoa betetzeko, jendaurrean jarri ondoren, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak –2016ko martxoaren 8an egindako bilkuran– eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Helburua eta lurralde-eremua.

1.– Gorbeia (ES2110009) kontserbazio bereziko eremu izendatzen da, Arabako eta Bizkaiko lurralde historikoetan.

2.– KBEaren mugaketa dekretu honi atxikitako I. eranskinean jasotakoa da eta bat dator Atlantikoko eskualde biogeografikoko Batasunaren Garrantzizko Lekuen Zerrenda onartzen duen Europako Batzordearen 2004/813/EE Erabakian bildutako batasunaren garrantzizko lekuen mugaketarekin. Era berean, eranskin horrek eremuaren babeserako eremu periferikoa jasotzen du, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginaren 19.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

3.– Aurreko idatzi-zatian aurreikusitako mugaketa zabaldu egingo da I. eranskinean jasotako mugetara arte, Europako Batzordeak onetsi ondoren.

4.– Onartu egiten dira KBEa kontserbatzeko II. eranskineko neurriak. Horiek bat datoz dekretu honen 3. artikuluak ezarritako edukiarekin.

2. artikulua.– Xedea.

1.– Arau honen xedea honako hau da: kontserbazio bereziko eremu an (KBE) bermatzea Europar Batasunaren intereseko habitat naturalak eta basoko fauna- eta flora-espezieen habitatak kontserbazio-egoera onean mantentzen direla edo egoera horretara berriro ekarriko direla. Habitat horiek ezarrita daude Kontseiluak 1992ko maiatzaren 21ean emandako habitat naturalak eta basoko fauna eta flora babesteari buruzko 92/43/EEE Zuzentarauan. Horretaz gain, arauaren helburua da hegazti-espezieen biziraupena eta ugalketa ziurtatzea dagokion kokaleku-eremuan, eta, bereziki, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak basoko hegaztien kontserbazioari buruz 2009ko azaroaren 30ean emandako 2009/147/EE Zuzentarauaren I. eranskinean adierazitako espezieena, baita eranskin horretan adierazi ez diren baina gurera iritsi ohi diren espezie migratzaileena ere. Horren guztiaren azken helburua da ahalegina egitea Europako lurraldean biodibertsitatea kontserbatuko dela bermatzeko.

2.– Kontserbazio bereziko eremuan, honako hauek ezarritako araubide orokorra aplikatuko da: 92/43/EEE Zuzentaraua eta Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea.

3. artikulua.– Kontserbazio-neurriak.

1.– Apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginaren 22.4. artikuluarekin bat, II. eranskinak izendapena argudiatzen duten Batasunaren garrantzizko habitat motak eta animalia- eta landare-espezieak ez ezik, horien kontserbazio-egoeraren ebaluazioa, eremu horren kontserbazio-helburuak, kontserbaziorako araudiak eta jarraipen-programa ere jasotzen ditu.

2.– KBEa kudeatzeko jarraibideak eta neurriak Gorbeiako parke naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean txertatuko dira.

4. artikulua.– Funtsezkoa ez den berrikuspena edo aldaketa.

II. eranskinean funtsezkoa ez den berrikuspen edo aldaketarik behar izanez gero, egoerak berak edo eskura dauden ezagutza tekniko eta zientifikoek hala egitea eskatzen badute, ingurumenaren alorrean eskumena duen sailburuak emango duen agindu baten bidez egingo da, eta, betiere, 92/43/EEE Zuzentarauaren 11. eta 17. artikuluetan ezarritakoa betez. Izan ere, helbu-

rua da kontserbazio eta kudeaketa moldaerraz, etengabe eta malgu baterantz jotzea. Prozedura horretan, bermatu egin behar da herritarren parte-hartzea benetakoa eta eraginkorra izango dela, 26/2007 Legeak ezarri bezala; eragindako administrazioei eta erakundeei kontsulta egingo zaie eta Naturzaintza organoaren txostena jasoko da.

5. artikulua.– Arau-hausteen eta zehapenen araubidea.

Dekretu honen aplikazio-eremuaren eraginpeko gune babestuetan, honako hauek ezarritako zehapen-erregimen hau aplikatu behar da: apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina eta Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ingurumenaren alorreko sailburuari ahalmena ematen zaio Eusko Jaurlaritzaren izenean betetzeko legeak ezarritako tramite eta komunikazio guztiak egiteko, bai Estatuko Administrazio Orokorrean, bai Europar Batasunean. Eta, hala badagokio, neurriak ezartzeak eragingo duen kostu ekonomikoa zenbatekoa den kalkulatuko du, 92/43/EEE Zuzentarauaren 8. artikuluak ezarritakoa betetze aldera.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Dekretu honen 3.1 artikuluak aipatzen dituen kontserbazio-neurriak KBEa zabaltzeko 1.3 artikuluak ezarritako eremuan jarriko dira indarrean, Europako Batzordeak batasunaren garrantzizko lekuaren muga geografiko berrian onartzeko erabakia hartu izanaren berri ematen duen eta ingurumenaren alorrean eskumena duen sailburuaren agindua EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, dekretu hau indarrean jartzearekin batera, zabaldutako eremu horretan, 92/43/EEE Zuzentarauaren 6.3 eta 6.4 artikuluek ezarritako prebentzio-araubidea aplikatuko da, baita Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 46. artikuluaren 4., 5. eta 6. idatzi-zatiek ezarritakoa ere.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Dekretu hau onartzen denean, parke naturalaren eta KBEaren mugak bat etortzeko prozedurari ekingo zaio, eta parke naturalaren NBAPa Gorbeia eremuan dauden naturagune babestuen hiru tipologia horiek arautuko dituen dokumentu bakarra bihurtzeko prozedura ere abiaraziko da, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginaren 18. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko martxoaren 8an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua,
ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA.

MARTXOAREN 8KO 40/2016 DEKRETUAREN I. ERANSKINA

MUGAKETA-MAPA

http://www.euskadi.eus/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_40_2016/gorbeia.json&lang=eu

MARTXOAREN 8KO 40/2016 DEKRETUAREN II. ERANSKINA

GORBEIA KBE-ARI DAGOZKION INFORMAZIO EKOLOGIKOA, KONTSERBAZIO-HELBURUAK, KONTSERBAZIO-ARAUAK ETA JARRAIPEN-PROGRAMA

1.– SARRERA

Gorbeiako mendimultzoa Atlantikoko eta Mediterraneoko isurialdeen banalerroan dagoen eta Arabak eta Bizkaiak partekatzen duten eremu menditsu zabala da. Duen altuerarengatik, mendiko ohiko klima du: mendimultzoak hesi gisa jarduten du eta Bizkaiko golkoko haize hezeak gelditzen ditu, ondorioz, iparraldeko eta hegoaldeko hegalak oso desberdinak dira, lehenengoa hezeagoa eta bigarrena lehor eta eguzkitsuagoa baitira. Horren ondorioz, Gorbeiak ongi kontserbaturiko mendi-ekosistema aberastasun aparta du. Topografia aldapatsua izateaz gain, kontuan hartu behar da gizakiak inguru hau abeltzaintzarako erabili duela milaka urtean zehar. Guzti horrek balio natural eta inguru-aniztasun handiko espazioa sortu du, non baso naturalak, txilardiak eta mendiko larreak, harkaitzak, hezeguneak (Altubeko urmaelak, Saldropoko hezegunea, esfagnalak, urmaelak, etab.) eta errekak elkarrekin bizi diren. Basoak KBEko azaleraren % 70 baino gehiago hartzen du; horietatik % 67 zuhaitz hostozabaleko inguruak dira eta beste % 33 konifero-plantazioak dira. Gorbeiako baso nagusiak pagadiak (azidofiloak eta basofiloak) eta, neurri txikiagoan, ameztiak dira.

Eremu honetako balio naturalek duten garrantziak bultzatuta, 1994. urtean Gorbeia parke natural izendatu zen, ekainaren 28ko 228/1994 Dekretuaren bitartez, eta aldi berean haren Natur Baliabideen Antolamendurako Plana (aurrerantzean NBAP) ekainaren 21eko 227/1994 Dekretuaren bitartez onartu zen. 1998an parke naturalaren Erabilera eta Kudeaketarako Plan Eraentzailearen (aurrerantzean EKPE) araudien zatia onartu zen (martxoaren 31ko 66/1998 Dekretua). Parke barruan Itxinako Biotopo Babestua dago, uztailaren 11ko 368/1995 Dekretuak izendatua, eta haren zati dira Itxinako karsta, haren haitzebakiko oianaldeak eta Lekanda, Gorosteta eta Ipergortako gainak.

Bestetik, Eusko Jaurlaritzako Kontseiluaren Akordioaren bitartez, 'Gorbeia' ES2110009 Batasunaren Intereseko Leku izatea proposatu zen 1997ko abenduan, ondoren Natura 2000 Sarean sartzeko, habitat naturalak eta landare eta animali basatiak babesteari buruzko 1992ko maiatzaren 21eko Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentarauaren betebeharrak aplikatzeko (aurrerantzean Habitat Zuzentaraua). Proposamen hori Europako Batzordera eraman zen, eta hark 2004/813/EE Erabakia hartu zuen. Haren bidez Atlantikoko zona biogeografikoan Batasuneko intereseko lekuen zerrenda onartu zen, non 'Gorbeia' ES2110009 eremua agertzen den.

Laburbilduz, argi dago 'Gorbeia' ES2110009 naturagune babestuak balio natural handia duela, bertan Batasunaren intereseko 27 habitat baitaude, Habitat Zuzentarauaren I. eranskinean zehaztuak. Bertako habitat batzuentzat KBEaren esparrua eremu gakoa da, habitataren zabalera edo berezitasunarengatik. Honako habitat hauen kasua da hori: txilardi europar lehorrak (EB 4030 KOD), mendiko larreak (EB 6230* KOD), zingira azidofilo eta basofiloak, (EB 7140 eta 7230 KOD), hartxingadiak (EB 8130 KOD), kareharrizko harkaitzak (EB 8210 KOD), turismoak ustiatu gabeko kobak (EB 8310 KOD), pagadi azidofiloak (EB 9120 KOD) eta ameztiak (EB 9230 KOD).

Gainera, Gorbeia aipatutako Habitat Zuzentarauaren II. eranskinean sartzen diren flora-espezieen habitatak izateagatik da garrantzitsua, hala nola *Narcissus pseudonarcissus ssp.nobilis*, iberiar penintsulako iparraldeko endemismoa (harentzat eremu hau bere ekialdeko muga da), *Narcissus asturiensis, Trichomanes speciosum*, edo *Spiranthes aestivalis* orkidea ere, Habitat Zuzentarauaren IV. eranskinean sartua eta Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan 'Kaltebera' gisa sailkatua. Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan 'Arriskuan' kategorian sailkatutako beste 8 eta 'Kaltebera' kategorian 7 espezie daude. Gorbeian Iberiar Penintsulan oso arraroa den briofito edo goroldio populazio oso txiki bat dago, 38 m^2-koa: *Sphagnum squarrosum*. Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoaren arabera, espezie hori galzorian dago.

Gorbeian, EAEko mendi ingurunean hoberen kontserbatutako eta garrantzitsuenetakoak diren abifaunak aurki ditzakegu. Espezie esanguratsuen komunitateak daude, ongi egituratuak eta batez ere baso, harkaitz eta goi-mendiko inguruneetan aurki daitezkeenak. *Basa-hegaztiak kontserbatzeari buruzko 2009/147/EEE Zuzentarauaren* [aurrerantzean Hegaztien Zuzentaraua] *I. eranskinean* dauden 18 espezie aurkitu dira bertan.

Gainera, Gorbeiako eremuan, Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan dauden hainbat animalia espezie daude, aipamen berezia eskatzen dutenak. Gorbeia EAEko kiroptero espezieetan aberatsenetakoa da, eta espezie horrentzat lehentasunezko eremutzat hartzen da, bi baldintza betetzen baititu: espezieen aberastasun handia eta lehentasunezko babeslekuak egotea. Ugaztunak ere interes bereziko taldea dira, haien artean aurkitzen ditugu muxar grisa (*Glis glis*) lepahoria (*Martes martes*), ipurtatsa (*Mustela putorius*), basakatua (*Felis silvestris*), Europa mailan lehentasunezko kontserbazioa duena; eta noizean behin agertzen diren bisoi europarra (*Mustela lutreola*) eta igaraba arrunta (*Lutra lutra*), azken bi horiek EAEn egoera kritikoan daudenak.

Gorbeian interes bereziko narrastiak ere badira, hala nola dortoka istilzalea (*Emys orbicularis*) edota Schreiber muskerra (*Lacerta schreiberi*). Eremu hau oso interesgarria da anfibioentzat, espezie aniztasun handia baitu (4 urodelo eta 7 anuro). Horren arrazoia eremu honetan espezie endemikoak espezie europarrekin batera bizi direla eta aldi glaziarren ostean mendi inguruetan gelditu diren taxonei babesa ematen diola da. Talde hori inguru naturalaren egoeraren adierazle esanguratsua da. Zentzu horretan, esanguratsuak dira Altubeko urmaelak, Zuzentarauaren Eranskinetako espezieentzat garrantzi handiko ia hogei ur-lamina baititu, hala nola baso-igel jauzkariarentzat (*Rana dalmatina*) eta interes bereziko odonatuentzat.

Gorbeian intereseko beste hainbat ornogabe daude, hala nola *Euphydryas aurinia* eta *Euplagia quadripunctaria* ropalozero edo pinpilinpauxak, Quimper barraskiloa (*Elona quimperiana*), kontserbazio egoera onean dauden baso autoktono helduetan bizi diren koleoptero saproxilikoak, eta karramarro autoktonoa (*Austrapotamobious itallicus*), naturagune babestuetako (aurrerantzean NB) ibai-tarte batzuetan bizi dena eta EAEn egoera kritikoa bizi duena.

Era berean, NBko ibai eta ubideetan Habitat Zuzentarauaren II. eranskinean sartzen den komunitate iktikoko loina (*Parachondrostoma miegii*) bizi da, eta baita amuarraina (*Salmo trutta*) ere, EAEn eta Iberiar Penintsulan atzera egin duen espeziea.

Eremu hau BGL gisa aurkezteko balio natural eta ekologikoez gain, Gorbeia eta haren ingurua EAEko paisaia erreferentea da, karga sinboliko eta kultural handikoa EAEkoentzat eta bereziki inguruko populazioarentzat. Balio sinboliko eta kultural horren lekuko da eremu honetako ondare kulturala, Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legean agertzen diren kalifikatutako hainbat ondare kultural eta balizko arkeologia gune baitaude bertan. Era berean, Gorbeia EAEko mendigune nagusietakoa da eta mendigoizaletasunaren erreferentzia-lekua da, Gorbeiagane (1.481 m) bezalako gailur adierazgarriekin.

2.– INFORMAZIO OROKORRA

2.1.– KOKAPENA ETA MUGATZEA

ES2110009 'Gorbeia' eremua atlantikoko zona biogeografikoaren parte da. Haren zati handiena, zehazki azaleraren % 62, Arabako Lurralde Historikoaren zati da, eta gainerakoa (iparraldeko isurialdea) Bizkaiko Lurralde Historikoarena.

ES2110009 'Gorbeia' KBE izendatzeko proposatutako mugaketa bat dator hein handi batean NBAPk 1994an parke naturalerako zehaztutako mugekin. Hala ere, badira bi eremuen mugaketen arteko desberdintasunak.

BGLaren hasierako proposamena egin zenean (1997an), parke naturalaren parte ez zen azalera bat gehitu zen: Elosu herrigunetik gertu dagoen gunea, Zestafeko (Zigoitia) kontzejuan, EB 9160 KOD habitata babesteko interesekoa eta haranaren alderdi sakonean dauden hariztiei dagokiena, alegia.

Kontuan hartu beharra dago dokumentu honetan BGL gisa hautatutako eremuaren mugaketa doitu nahi dela, haren mugak parke naturalaren mugetara egokitzeko (bi eremuak nolabait bat egiten duten alderdietan) eta Natura 2000 Sareko eremu mugakideen mugak egokitzeko. Aldaketa hori NBko mugen egokitzapen gisa hartzen da, ez da mugak zabaldu edo txikitzeko proposamen gisa hartzen.

- Alde batetik, BGLaren mugak katastroko lursailetara egokitu dira, Bizkaiko eta Arabako foru-aldundiek (parke naturala kudeatzen duten administrazioek) adostutako egokitzapena, naturagune babestuaren zabalera zertxobait aldatzen duena.

- Naturagune babestuaren inguru guztian, eremuaren mugak udalerrien mugetara egokitu dira. Zigoitia eta Legutio udalerrietan, NBko mugak bi udalerrien arteko mugetara egokitu dira.

- Bestetik, BGLaren mugak Kontserbazio Bereziko bi Eremu (KBE) mugakideetan zehaztutako mugaketara egokitu dira: Zadorra Sistemako urtegiak (ES2110011) eta Arkamo-Gibijo-Arrastaria (ES2110004).

NBa mugatzeko proposamen honetan parke naturalaren eta BGLaren jatorrizko mugaketaren parte ez ziren bi eremu gehitzea pentsatu da mehatxatutako fauna eta intereseko habitatak kontserbatzeko interesarengatik; bi eremu horiek interes handiko putzuak dituzte, non Habitat Zuzentarauak babestutako ornogabe espezieak bizi diren: Kukulupadrako putzua (Altube, Zuia udalerria) eta La Yesera putzua (Belauntza, Urkabustaiz udalerria). Biak EAEko Hezeguneen Inbentarioan (III. taldea) daude. Kukulupadrako putzuan 5,3 ha gehitu dira eta La Yeseran 6,5 ha. Bi kasu horiek bai dira NBa zabaltzeko proposamenak.

Dokumentu honetan proposatu diren egokitzeko eta zabaltzeko neurrien ostean, hauexek dira ES2110009 'Gorbeia' KBEaren oinarrizko parametroak:

2.1. Taula. 'Gorbeia' naturagune babestuaren identifikazioa eta kokapena.

KODEA	ES2110009
Izena	Gorbeia
IKL proposamen data	12/1997
IKL baieztapen data	12/2004
Erdiguneko koordenadak	W2° 48' 11"/N 43° 00' 53"
Azalera (ha)	20.226,4
Altitude maximoa (m)	1.481
Altitude mínimoa (m)	227
Bataz besteko altitudea (m)	761,5
Eskualde administratiboa(k)	Arabako L.H. (% 62,3), Bizkaiako L.H. (% 37,7)

2.1. Taula. 'Gorbeia' naturagune babestuaren identifikazioa eta kokapena.	
KODEA	ES2110009
Eskualde biogeografikoa	Atlantiarra

Naturagune babestuaren mugak egokitu eta zabaldu ondoren, guneak hasierako mugaketak baino 15 ha gehiago (2003ko datu-inprimakiaren arabera) eta parke naturalaren mugaketak baino 210,2 ha gehiago izango lituzke. KBEaren (NB) kokapena eta mugaketa dokumentu honekin batera datorren ***kokapen-mapan eta ortoargazkian*** dator.


Mugapena
Delimitación
Legenda / Leyenda:
KBEaren mugapen-proposamena
Propuesta delimitación ZEC
GKLaren Jatorrizko Mugapena
Límite original LIC
Datuei buruzko informazioa / Información acerca de los datos:
GKLaren Jatorrizko Mugapena. Euskal Jaurlaritza. 1:25.000
Límite Oficial LIC. Gobierno Vasco. 1:25.000
2013ko ortoargazkia. Euskal Jaurlaritza. 1:5.000
Ortofoto 2013. Gobierno Vasco. 1:5.000
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Data / Fecha:
2014
Proiektua / Proyecto:
ES2110009 GORBEIA
Sist. Geodés. Erref. /
Sist. Geodés. Ref.:
ETRS89
EPSG Code: 25830
Eskala / Escala:
1:80.000
N

2.2.– JABETZA ERREGIMENA

NBaren azaleraren zati handiena, 16.242 ha (azaleraren % 80), titulartasun publikokoa da eta gainerako % 20 titulartasun pribatukoa. Bizkaiko Lurralde Historikoan NBko titulartasun publikoko lursailen ehunekoa % 51,5ekoa da, eta Arabako Lurralde Historikoan % 97,2koa.

2.2. Taula. Udalerrien lur jabetza (ha)

Udalerria	Publikoa	Pribatua	jabetza publikoaren %
Areatza	546,6	28,0	95,1
Artea	57,4	74,7	43,5
Zeanuri	790,8	2.084,2	27,5
Orozko	2.538,1	1.379,1	64,8
Zeberio	79,7	51,2	60,9
Zigoitia	3.848,6	53,5	98,6
Zuia	7.051,0	286,2	96,1
Urkabustaiz	1.334,5	27,2	98,5
Guztira	**16.242,1**	**3.984,3**	**80,3**

Iturria: GeoEuskadi (W26GIS.MUP_DDFF_5000_ETRS89).

Erantsitako irudian Gorbeian jabego publikoko mendien leku-distribuzioa ageri da.



2.1. Irudia: Gorbeiako herri jabetzako mendiak.

2.3.– BESTE BABES FIGURA BATZUK

- **Gorbeiako parke naturala**. Gorbeiako parke naturalak Natur Baliabideen Antolamendurako Plana (NBAP) du, eremua bederatzi gune edo kategoriatan banatzen duena: Erreserba integraleko aldea, Erreserba aldeak, Babespeko aldea, Artapen eraginkorreko I. aldeak, Artapen eraginkorreko II. aldeak, Aurrerapen ekologikorako aldea, Abeltzaintza eta basogintza bultzatzeko aldea, Landazabal aldea eta Hirilur eta azpiegituretako aldea.

  Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak (EKZP) Antolamendurako Planaren xedapenak hiru neurrien bidez eramaten ditu praktikara: Jarraibide eta irizpideak, erregulazioak eta ekintzak; lehentasun mailaren arabera, azken biak premiazkoak, beharrezkoak, komenigarriak edo baldintzatuak izan daitezke.

- **Itxinako mendigunearen biotopo babestuak** parke naturalerako araudira gehitzen den araudi zehatz bat du.

- **Zuhaitz bereziak:** hiru ale KBEan: Altubeko haritza (ES213006), Aginaldeko hagina (ES213007) eta Agiñarteko hagina (ES213008).

- **EAEko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana:** planaren hezeguneen I. taldean Gorbeiako parke naturalean dauden hezeguneak sartzen dira.

- **EAEko Hezeguneen Inbentarioa:** Zuiako zingirak (B1A4), Zigoitiako zingirak (B1A5), Altubeko putzuak (B4A1), Gorbeiako urtegia I (EA8), Gorbeiako urtegia II (EA9), Yondegortako presa (EB8), Lamiogingo putzua (GA11), Saldropoko zohikaztegia (B1B1), Orozkoko zingirak (B1B2), Zeanuriko zingirak (B1B9), Saldropoko zingirak (B1B10), Areatzako zingirak (B1B8).

Aipatutako inbentarioko III. taldean parke naturaleko inguruko hezegune batzuk jasotzen dira: Kulukupadrako putzua (B4A1), La Yeserako putzua (B4A1).

- **Mehatxatutako fauna eta floraren kudeaketa planak:**

'Interes bereziko eremua' bisoi europarrarentzat (*Mustela lutreola*) Ibaizabal arroko goi-ibarretan.

'Interes bereziko eremua' egun izapidetzen ari den kudeaketa planetan mehatxatuta dauden beste fauna-espezieentzat: hegazti nekrofagoak, hala nola ugatza *(Gypaetus barbatus*), sai zuria (*Neophron percnopterus*), sai arrea (*Gyps fulvus*); baso-igel jauzkaria (*Rana dalmatina*); baso-igel iberiarra (*Rana ibérica*); uhandre alpetarra (*Ichthyosaura alpestris)*.

Baia ibaiaren goi-ibarra 'lehentasunezko distribuzio zona gisa hartzen da iparraldeko katxoa (*Squalius pyrenaicus)* mazkar arantzaduna (*Cobitis calderoni)* eta ibai kabuxarentzat (*Salaria fluviatilis)* Araban'.

Mehatxatutako bi flora-espeziek (*Diphasiastrum alpinum eta Ranunculus amplexicaulis)* onartutako kudeaketa planak dituzte*,* eta haientzat KBE banaketa potentzialeko eremua da eta, hortaz, 'interes berezikoa' bereziko eremua'.

- **Plan Hidrologikoetako Babestutako Eremuen Erregistroa (BEE) (Kantauri ekialdeko eta Ebroko Mugaketa Hidrografikoa):**

Hornidurarako ur-hartune eremuak: hiri-hornidurarako lurrazaleko zortzi hartune Naturagune babestuan, Zaia-A, Baia-A, Altube II eta Arratia ur-masetan banatuak.

Giza hornidurarako lurrazpiko hartune eremuak: lurrazpiko hamabi hartune NBan, Altube-Urkilla (6), Gorbeia (4) eta Itxina (2) ur-masetan banatuak.

Urarekin loturiko habitat edo espezieen babeserako eremuak: 3140, 3150, 3240, 7140, 7230 eta 91E0* habitatak.

Ibai-erreserba naturalak: hiru erreserba natural; Padurabaso (5.604 m), Altube (3.611 m) eta Undabe (5.974 m).

Babes bereziko eremuak: interes naturaleko tarteak (Aldabideko ur-jauzia) eta ingurumen intereseko tarteak (Baia, Oiardo, Altube).

Hezeguneak: 2004ko Estatuko Hezeguneen Inbentarioko hezeguneak ('Altubeko putzuak', 'Kulukupadrako putzuak').

Beste intereseko hezeguneak: EAEko Hezeguneen LPSko I. eta III. taldeetako hezeguneak ('Saldropoko zohikaztegia', 'Verdeoespesoako zohikaztegia', 'Areatzako zingirak', 'Lamiogingo putzua').

2.4.– BESTE NATURAGUNE BABESTUEKIKO HARREMANA

Gorbeia Atlantikoko eta Mediterraneoko isurialdeen banalerroan dagoenez, Natura 2000 Sareko hainbat leku lotzen ditu: Baia ibaia (ES2110006), bere goi-ibarra Gorbeia mendigunearen barnean dago; Arkamo-Gibijo-Arrastaria (ES2110004), Zadorra Sistemako Urtegiak (ES2110011).

Horretaz gain, Urkabustaizeko hariztiak (ES2110003) Gorbeia KBEaren inguruan daude, nahiz eta fisikoki loturik ez egon, baizik eta lehen aipatutako Baia ibaiaren bitartez. Nahiz eta fisikoki banatuago egon, kantauri-atlantikoko isurialdeen banalerroko zati diren Natura 2000ko beste zenbait eremurekin ere badu harremana, hala nola Urkiola (ES2130009), Aizkorri-Aratz (ES2120002) edo Salvada mendilerroa HBBE (ES0000214); habitat eta espezieak elkarbanatzen dituzte, baita arazo komunak ere.

Gorbeiaren loturaren garrantzia EAEko Korridore Ekologikoen Sarearen proiektuan argi ikusten da, eta bertan Gorbeia eskualdez gaindiko korridorea osatzen duten guneetako bat da (helburu-habitatak dituzten eremua). Hortaz, Korridore Ekologikoen Sarearen proposamenaren ezinbesteko elementua da Gorbeia.

3.– EKOLOGIAREN INGURUKO INFORMAZIOA

3.1.– HABITAT NATURALAK ETA ERDI NATURALAK

3.1.1.– Batasunaren intereseko edo eskualdeko intereseko habitatak

Jarraian 'Gorbeia' ES2110009 KBEan dauden Batasunaren intereseko habitaten inguruko informazioa eskainiko dugu, *Habitaten Zuzentarauaren (92/43/EEE*) eta *Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea*ren arabera, eta bien I. eranskinean oinarrituta. Aipatutako testuetako izenak erabiliko dira (dokumentu honetan aurrerantzean lehentasunez erabiliko direnak), baina baliteke testuan habitat bakoitzarentzat EAEra egokitutako izenak erabiltzea. (*) ikurrak lehentasunezko habitata esan nahi du.

Lekuko Batasunaren intereseko habitat guztiak kontserbazioaren xede dira. Baina horietaz gain, kontserbazioaren xede diren elementu gisa beste habitat motak gehitzea beharrezkoa dela uste dugu, hala nola edo eskualde-intereseko (EI) habitatak, dokumentu honen aplikazio eremuan duten garrantziarengatik. Gorbeiaren kasuan, garrantzitsuak diren hainbat habitat sartzen dira kategoria horretan, hala nola interes bereziko flora edo faunaren taxonen zoko ekologikoa, beharrezkoak baitira konektibitate ekologikorako edo Batasunaren edo eskualde-intereseko beste habitatak zabaltzeko.

Ondorengo taulan, dokumentu honetan proposatutako Naturagune babestuaren mugaketaren araberako eta Gorbeia KBEan kartografiatutako Batasunaren edo eskualde-intereseko habitat bakoitzaren inguruko datuak zehazten dira, hala nola azalera, estaldura (KBE, EAEko Natura2000S, EAE), adierazgarritasuna, lekuaren balorazio orokorra, eta KBEan eta EAEn duen kontserbazio egoera. Batasunaren eta eskualde-intereseko habitaten guztizko azalera 14.004,6 ha-koa da, hau da, NBaren azaleraren % 69,2.

3.1 Taula: Gorbeia 2110009 Kontserbazio Bereziko Eremuan (KBE) azaltzen diren komutitatearen eta eskualdearen intereseko habitaten azalera									
HZ/Eunis Kodea	Izendapena	Azalera KBE an (ha)	KBEko azaleraren %	% EAEko N2000Sko azaleraren % [1]	EAEko azaleraren % [2]	Adierazgarritasuna	Eremuaren balioztatze orokorra	Kontserbazio egoera KBEan	Kontserbazio egoera EAEn
3140	Ur oligomesotrofo karedunak *Chara spp.*-eko landaredi bentikoduna	1,23	% 0,01	% 3,85	% 3,81	C	C	Desegokia	Desegokia
3150	Laku eutrofiko naturalak *Magnopotamion* edo *Hydrocharition*-eko landarediarekin	1,49	% 0,01	% 0,66	% 0,64	C	C	Desegokia	Desegokia
3240	Landaredi egurtsua eta *Salix elaeagnus* sastrakadiak duten ur bazter alpinoak	19,01	% 0,09	-	-	B	B	Aldekoa	-
4020*	Zona epeletako *Erica ciliaris* eta *Erica tetralix*-dun txilardi heze atlantiarrak	50,11	% 0,24	% 59,93	% 59,42	B	A	Desegokia	Desegokia
4030	Txilardi lehor europarrak	2.207,56	% 10,91	% 33,96	% 11,60	A	A	Aldekoa	Aldekoa
4090	Txilardi oromediterraneo endemikoak, elorri-triskarekin	202,49	% 1,00	% 2,54	% 1,09	C	C	Aldekoa	Aldekoa

3.1 Taula: Gorbeia 2110009 Kontserbazio Bereziko Eremuan (KBE) azaltzen diren komutitatearen eta eskualdearen intereseko habitaten azalera									
HZ/Eunis Kodea	Izendapena	Azalera KBE an (ha)	KBEko azaleraren %	% EAEko N2000Sko azaleraren % [1]	EAEko azaleraren % [2]	Adierazgarritasuna	Eremuaren balioztatze orokorra	Kontserbazio egoera KBEan	Kontserbazio egoera EAEn
5110	Malda arrokatsuetako *Buxus sempervirens*-eko formazio egonkor xerotermofiloak (*Berberidion p.p.*)	1,35	% 0,01	% 0,10	% 0,08	D			Desegokia
6170	Larre alpetar eta subalpetar karedunak	93,46	% 0,46	% 2,39	% 1,74	C	C	Aldekoa	Aldekoa
6210	Belardi lehor erdinaturalak eta kare-substratuetako sastraka-faziesak (*Festuco-Brometalia*)	61,50	% 0,30	% 3,21	% 0,72	B	B	Desegokia	Desegokia
6230*	*Nardus*-dun formazio belarkarak, espezie ugarirekin, zona menditarreko (eta Europa kontinentaleko zona azpimenditarreko) silize-substratuetan	883,20	% 4,37	% 14,39	% 11,02	A	A	Aldekoa	Aldekoa
6410	*Molinia caerulea*-dun larreak, kare-, zohikatz- edo buztin/limo-substratuetan (*Molinion caeruleae*)	0,06	% 0,00	% 0,02	% 0,02	D			Desegokia

3.1 Taula: Gorbeia 2110009 Kontserbazio Bereziko Eremuan (KBE) azaltzen diren komutitatearen eta eskualdearen intereseko habitaten azalera									
HZ/Eunis Kodea	Izendapena	Azalera KBE an (ha)	KBEko azaleraren %	% EAEko N2000Sko azaleraren % [1]	EAEko azaleraren % [2]	Adierazgarritasuna	Eremuaren balioztatze orokorra	Kontserbazio egoera KBEan	Kontserbazio egoera EAEn
6430	Ordoki bazterreko eta estai menditar eta alpetarreko megaforbio eutrofo higrofiloak	0,22	% 0,00	% 4,91	% 4,91	A	A	Desegokia	Desegokia
6510	Altitude baxuetako sega-belardi txiroak (*Alopecurus pratensis, Sanguisorba officinalis*)	242,60	% 1,20	% 13,23	% 0,50	D			Desegokia
7140	Trantsizio-zohikaztegiak	75,26	% 0,37	% 60,70	% 50,38	A	A	Desegokia	Desegokia
7230	Zohikaztegi baxu alkalinoak	3,51	% 0,02	% 3,79	% 3,32	B	B	Desegokia	Desegokia
8130	Mediterraneo mendebaldeko lur-jausi termofiloak	53,90	% 0,27	% 25,60	% 23,53	B	B	Desegokia	Aldekoa
8210	Landaredia kasmofitikodun malda arrokatsu kaltzikolak	320,46	% 1,58	% 10,27	% 8,63	A	A	Aldekoa	Desegokia
8310	Turismoak ustiatu gabeko kobak	(714)	-		% 20,49	A	A	Desegokia	Desegokia
9120	Pagadi azidofilo atlantiarrak, Ilex oihanpedunak, eta batzuetan Taxus-dunak (*Quercion robori-petraeae edo Ilici-Fagenion*)	4.096,61	% 20,23	% 28,43	% 17,27	A	A	Desegokia	Txarra

3.1 Taula: Gorbeia 2110009 Kontserbazio Bereziko Eremuan (KBE) azaltzen diren komutitatearen eta eskualdearen intereseko habitaten azalera									
HZ/Eunis Kodea	Izendapena	Azalera KBE an (ha)	KBEko azaleraren %	% EAEko N2000Sko azaleraren % [1]	EAEko azaleraren % [2]	Adierazgarritasuna	Eremuaren balioztatze orokorra	Kontserbazio egoera KBEan	Kontserbazio egoera EAEn
9150	Europa erdialdeko pagadi kaltzikolak (*Cephalanthero-Fagion*)	3,82	% 0,02	% 0,18	% 0,15	D			Desegokia
9160	Haritz kanduduneko edo haritz kandugabeko baso subatlantikoak eta Europa erdikoak (*Carpinion betuli*)	30,19	% 0,13	% 5,22	% 3,00	B	B	Txarra	Txarra
9180*	Malda, lur-jausi edo amildegietako basoak (*Tilio-Acerion*)	13,55	% 0,07	% 3,18	% 2,17	B	B	Aldekoa	Aldekoa
91E0*	*Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior*-eko ibarbasoak (*Alno-Padion, Alnion incanae, Salicion albae*)	140,52	% 0,70	% 11,7	% 3,16	C	B	Desegokia	Txarra
9230	Harizti galaikoportugesak, *Quercus robur* eta *Quercus pyrenaica*-rekin	1.957,58	% 9,68	% 54,50	% 21,26	A	A	Desegokia	Desegokia
9240	Harizti iberiarrak *Quercus faginea* eta *Quercus canariensis*-ekin	30,01	% 0,15	% 0,42	% 0,13	D			Txarra

3.1 Taula: Gorbeia 2110009 Kontserbazio Bereziko Eremuan (KBE) azaltzen diren komutitatearen eta eskualdearen intereseko habitaten azalera									
HZ/Eunis Kodea	Izendapena	Azalera KBE an (ha)	KBEko azaleraren %	% EAEko N2000Sko azaleraren % [1]	EAEko azaleraren % [2]	Adierazgarritasuna	Eremuaren balioztatze orokorra	Kontserbazio egoera KBEan	Kontserbazio egoera EAEn
9260	*Castanea sativa*-ko basoak	24,00	% 0,12	% 27,42	% 5,49	D			Txarra
9340	*Quercus ilex* eta *Quercus rotundifolia*-ko basoak	57,01	% 0,28	% 0,57	% 0,24	C	C	Txarra	Txarra
Komunitatearen intereseko habitatak guztira		10.570,48	% 52,26	% 14,43	% 5,20				
E3.41	Belardi-ihidi basofilo atlantiarrak	75,94	% 0,38	% 28,44	% 12,47	B	B	Desegokia	
F3.11(X)	Arantzadi atlantiar kaltzikolak	256,35	% 1,27	% 27,03	% 18,35	B	B	Aldekoa	
F5.21(Y)	Gurbizti edo maquis altu termoatlantiarra	14,76	% 0,07	% 22,35	% 1,68	C	C	Aldekoa	
F9.12-F9.2	Zona baxu eta muinoetako ur bazterretako *Salix*-en sastrakadiak eta Ingurune lohitsuetako *Salix*-en sastrakadiak	51,91	% 0,26	% 24,96	% 6,04	C	C	Desegokia	
G1.64	Pagadi basofilo edo neutroa	1.679,79	% 8,31	% 10,81	% 8,03	A	A	Desegokia	
G1.82	Harizti-pagadi azidofilo atlantiarra	284,36	% 1,41	% 32,69	% 11,04	A	A	Desegokia	

3.1 Taula: Gorbeia 2110009 Kontserbazio Bereziko Eremuan (KBE) azaltzen diren komutitatearen eta eskualdearen intereseko habitaten azalera									
HZ/Eunis Kodea	Izendapena	Azalera KBE an (ha)	KBEko azaleraren %	% EAEko N2000Sko azaleraren % [1]	EAEko azaleraren % [2]	Adierazgarritasuna	Eremuaren balioztatze orokorra	Kontserbazio egoera KBEan	Kontserbazio egoera EAEn
G1.86	*Quercus robur* nagusitzen deneko baso azidofiloa	207,45	% 1,06	% 5,28	% 0,63	D		Desegokia	
G1.86(X)	*Quercus petraea*-ren harizti azidofiloa	214,27	% 1,06	% 49,24	% 35,94	C	C	Desegokia	
G1.A1	Hostozabalen baso misto mesotrofoa, atlantiarra	36,32	% 0,18	% 7,46	% 3,48	D		Desegokia	
G1.A1(X)	Harizti mesotrofo atlantiarra	592,07	% 2,93	% 93,90	% 77,36	A	A	Desegokia	
Eskualdearen intereseko habitatak guztira		3.413,25	% 16,88	% 2,35	% 0,48				
Komunitatearen eta eskualdearen intereseko habitatak guztira		**13.983,7**	**% 69,14**						

(*) Lehentasunduna.

3.2.– FLORA

Atal honetan Gorbeia NBko Batasunaren intereseko edo eskualde-intereseko flora-espezieak biltzen dira. Eskualde-intereseko espezieei dagokienez, soilik Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan (EMEK) 'galzorian' edo 'kalteberak' diren espezieak sartu dira.

Erantsitako taulan, espezie horiei buruzko ondorengo ezaugarriak ikus daitezke: Habitat Zuzentarauaren eranskin desberdinetan agertzen diren ala ez; Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan (EMEK) eta Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoan (EEMK) duten sailkapena; espeziearentzat Kudeaketa Plan bat dagoen eta, azkenik, haren kontserbazio-egoeraren inguruko balorazioa.

3.2 Taula: KBEan azaltzen diren komunitatearen edo/eta eskualdearen intereseko flora espezieak

HZ Kodea	Izen arrunta	Izen zientifikoa	HA eranskina	BBEBEZ /EEMK	EMEK	Kudeaketa Plana EAEn	Kontserbazio egoera KBEan
1865	Lilipa txikia	*Narcissus asturiensis*	II	*	IB		Aldekoa
1857	Lilipa arrunta	*Narcissus pseudonarcissus ssp. Nobilis*	II	*	B		Aldekoa
1421		*Trichomanes speciosum*	II	*	K		Desegokia
1900		*Spiranthes aestivalis (Poir.) Rich.*	IV	*	K		Txarra
1762	Arnika	*Arnica montana*	V		K		Txarra
5183		*Diphasiastrum alpinum*	V		GA	B	Txarra
5188		*Huperzia selago*	V		B		Txarra
5105	Likopodioa	*Lycopodium clavatum*	V		B		Txarra
1849		*Ruscus aculeatus*	V				Ezezaguna
1864	Lilipa	*Narcissus bulbocodium*	V		IB		Aldekoa
		Ranunculus amplexicaulis			GA	B	Txarra
		Meum athamanticum			GA		Txarra
		Nigritella gabasiana			GA		Txarra
		Prunus lusitanica			GA		Txarra
		Ranunculus aconitifolius			GA		Txarra
		Thelypteris palustris			GA		Txarra
		Utricularia australis			GA		Txarra

3.2 Taula: KBEan azaltzen diren komunitatearen edo/eta eskualdearen intereseko flora espezieak							
HZ Kodea	Izen arrunta	Izen zientifikoa	HA eranskina	BBEBEZ /EEMK	EMEK	Kudeaketa Plana EAEn	Kontserbazio egoera KBEan
		Sphagnum squarrosum			GA		Txarra
		Genista micrantha			K		Txarra
		Leontodon pyrenaicus			K		Txarra
		Apium inundatum			K		Txarra
		Rumex aquitanicus			K		Txarra
		Carex strigosa			K		Ezezaguna
	Odol-belarra	*Pedicularis tuberosa*			K		Txarra
		Tozzia alpina			K		Txarra

HZ: Habitat Zuzentaraua
BBEBEZ: Babes Bereziko Erregimenean dauden Basa Espezieen Zerrenda.
EEMK: Espainiako Espezie Mehatxatuen Katalogoa
EMEK: Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoa;
GA: Galtzeko Arriskuan;
K: Kaltebera;
B: Bakana;
IB: Interes Berezikoa.
Kudeaketa Planak: A: Álava/Araba; B: Bizkaia; G: Gipuzkoa

3.2.1.– Habitat Zuzentarauaren eranskinetan sartutako espezieak

Gorbeia ES2110009 BGL aukeratzeko egindako datu-inprimaki normalizatuak, eta haren berrikuspenak eta eguneratzeak, azaltzen du Gorbeian Habitat Zuzentarauren II. eranskineko hainbat flora-espezie daudela: *Narcissus asturiensis*, *Narcissus pseudonarcissus ssp. nobilis*. eta *Trichomanes speciosum*; lehenengoa 'interes berezikoa' gisa sailkaturik dago, bigarrena 'bakana' gisa eta azkena 'kaltebera' gisa Basa eta Itsas Fauna eta Flora Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan (EMEK).

Bestetik, Habitat Zuzentarauren IV. eranskinean dagoen orkidea bat dago Gorbeian, *Spiranthes aestivalis (Poir.) Rich*. Espezie hori Basa eta Itsas Fauna eta Flora Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan (EMEK) 'kaltebera' gisa sailkaturik dago, eta ez zen datu-inprimaki normalizatuan sartu.

Azpimarratzekoak dira ere Habitat Zuzentarauren V. eranskinean eta EMEKen dauden espezie batzuk, hala nola *Diphasiastrum alpinum* (‘arriskuan’), *Arnica montana* (‘kaltebera’), *Huperzia selago* (‘bakana’), *Lycopodium clavatum* (‘bakana’) eta *Narcissus bulbocodium* (‘interes berezikoa’).

Habitat Zuzentarauren V. eranskineko *Gentiana lutea ssp.lutea,* EMEKen 'kaltebera' gisa sailkatua eta eremu honetan identifikatu zena, bertatik desagertu egin da.

3.2.2.– Eskualde-intereseko espezieak

Habitat Zuzentarauaren II., IV. eta V. eranskinetako espezieez gain, Gorbeiako eremuan eskualde- edo lekuko-intereseko flora-espezie asko bizi da, endemismoak nahiz eskualde mailan mehatxatuta dauden espezieak.

Bertan identifikatutako hainbat espezie bertatik desagertu dira: eremu honen datu-inprimaki normalizatuan zeuden bi espezie dira (*Menyanthes trifoliata L., Drosera intermedia Hayne),* baita *Gentiana lutea ssp.lutea* ere*;* aurreneko biak 'arriskuan' gisa sailkaturik daude EMEKen, eta azkena 'kaltebera' gisa.

Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan 'arriskuan' gisa sailkaturik dauden 8 espezie daude Gorbeian; horietatik bi (*Diphasiastrum alpinum* eta *Ranunculus amplexicaulis)* EAEn soilik Gorbeia KBEan aurki daitezke. Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan 'kaltebera' gisa sailkaturik dauden beste 4 espezie ere dira aipagarriak *(Genista micrantha, Leontodon pyrenaicus, Apium inundatum* eta *Rumex aquitanicus*), eta EAEn soilik Gorbeia KBEan aurkitzen dira. Gorbeian 38 m^2-ko *Sphagnum squarrosum* briofitoen populazio ñimiño bat dago, Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoaren arabera galzorian dagoena eta bertan egonkor mantentzen dena.

3.3.– FAUNA

Atal honetan, Gorbeia NBko Batasunaren intereseko edo eskualde-intereseko fauna espezieak biltzen dira.

3.2.1.– Habitat Zuzentarauaren eranskinetan sartutako espezieak

Erantsitako taulan, KBE Gorbeian dauden Batasunaren edo eskualde-intereseko espezieen zerrenda dago. Bertan espezie horiek agertzen diren eranskinak azaltzen dira, baita haien sailkapena, zerrenda eta katalogo desberdinen arabera.

Hegaztien espezieei dagokienez, 2009/147/EE Hegaztien Zuzentarauaren I. eranskineko [IV. eranskina, *42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa*] espezieak daude, baita KBEan maiz agertzen diren espezie migratzaileak eta Hegaztien Zuzentarauaren I. eranskinean ez dauden espezieak ere.

3.3 Taula: KBEan azaltzen diren komunitatearen edo/eta eskualdearen intereseko fauna espezieak									
HZ/ HeZ KODEA	**IZEN ARRUNTA**	**IZEN ZIENTIFIKOA**	**MOTA**	**HZ ERANSKINA**	**HeZ ERANSKINA**	**BBEBEZ /EEMK**	**EMEK**	**KUDEAKETA PLANA EAEn**	**KONTSERBAZIO EGOERA KBEAN**
UGAZTUNAK									
1356	Bisoi europarra	*Musteola lutreola*		II-IV		GA	GA	A,B,G	*Txarra*
1355	Igaraba	*Lutra lutra*		II-IV		*	GA	A	*Desegokia*
1305	Muturluze piriniarra	*Galemys pyrenaicus*		II-IV		K	GA	-	
2616	Muxar grisa	*Glis glis*					K	-	*Ezezaguna*
1357	Lepahoria	*Martes martes*		V			B	-	*Ezezaguna*
1358	Ipurtatsa	*Mustela putorius*		V			IB	-	*Ezezaguna*
2632	Erbinude zuria	*Mustela erminea*				*	IB	-	*Aldekoa*
6110	Basakatua	*Felis silvestris*		IV		*	IB	-	*Ezezaguna*
5560	Mendebaldeko ur-arratoia	*Arvicola sapidus*						-	*Desegokia*
5817	Ferra-saguzar handia	*Rhinolophus ferrumequinum*		II-IV		K	K	-	*Ezezaguna*
1303	Ferra-saguzar txilia	*Rhinolophus hipposideros*		II-IV		*	IB	-	*Ezezaguna*
1324	Arratoi belarri handia	*Myotis myotis*		II-IV		K	GA	-	*Desegokia*
1314	Daubenton saguzarra	*Myotis daubentonii*		IV		*	IB	-	*Aldekoa*
1330	Saguzar bibotedun	*Myotis mystacinus*		IV		K	GA	-	*Ezezaguna*
1321	Geoffroy saguzarra	*Myotis emarginatus*		II-IV		K	K	-	*Ezezaguna*
1322	Natterer saguzarra	*Myotis nattereri*		IV		*	IB	-	*Ezezaguna*
1323	Bechstein saguzarra	*Myotis bechsteinii*		II-IV		K	GA	-	*Desegokia*
1331	Gau saguzar txkia	*Nyctalus leisleri*		IV		*	IB	-	*Aldekoa*
1309	Pipistrelo txikia	*Pipistrellus pipistrellus*		IV		*	IB	-	*Aldekoa*

3.3 Taula: KBEan azaltzen diren komunitatearen edo/eta eskualdearen intereseko fauna espezieak									
HZ/ HeZ KODEA	**IZEN ARRUNTA**	**IZEN ZIENTIFIKOA**	**MOTA**	**HZ ERANSKINA**	**HeZ ERANSKINA**	**BBEBEZ /EEMK**	**EMEK**	**KUDEAKETA PLANA EAEn**	**KONTSERBAZIO EGOERA KBEAN**
2016	Kuhl pipistreloa	*Pipistrellus kuhlii*		IV		*	IB	-	*Ezezaguna*
6098	Baratze-saguzarra	*Eptesicus serotinus*		IV		*	IB	-	*Aldekoa*
1308	Baso saguzarra	*Barbastella barbastellus*		II-IV		*	GA	-	*Desegokia*
1326	Ipar belarrihandia	*Plecotus auritus*		IV		*	IB	-	*Aldekoa*
1329	Hego belarrihandia	*Plecotus austriacus*		IV		*	IB	-	*Ezezaguna*
1310	Scheibers saguzarra	*Miniopterus schreibersii*		II-IV		K	K	-	*Ezezaguna*
1333	Saguzar buztanluzea	*Tadarida teniotis*		IV		*	IB	-	*Ezezaguna*
HEGAZTIAK (I. eranskina)									
A072	Zapelaitz liztorjalea	*Pernis apivorus*	u		I	*	B	-	*Desegokia*
A073	Miru beltza	*Milvus migrans*	U		I	*		-	*Desegokia*
A076	Ugatza	*Gypaetus barbatus*	S		I	GA	GA	-	*Txarra*
A077	Saizuria	*Neophron percnopterus*	E		I	K	K	-	*Txarra*
A078	Sai arrea	*Gyps fulvus*	B		I	*	IB	-	*Desegokia*
A080	Arrano sugezalea	*Circaetus gallicus*	U		I	*	B	-	*Txarra*
A082	Mirotz zuria	*Circus cyaneus*	B		I	*	IB	-	*Txarra*
A091	Arrano beltza	*Aquila chrysaetos*	S		I	*	K	-	*Txarra*
A092	Arrano txikia	*Hieraaetus pennatus*	U		I	*	B	-	*Desegokia*
A094	Arrano arrantzalea	*Pandion haliaetus*	P		I	K	K	-	*Txarra*
A103	Belatz handia	*Falco peregrinus*	B		I	*	B	-	*Desegokia*
A222	Zingira hontza	*Asio flammeus*	S		I	*	B	-	*Txarra*
A224	Zata arrunta	*Caprimulgus europaeus*	U		I	*	IB	-	*Desegokia*

3.3 Taula: KBEan azaltzen diren komunitatearen edo/eta eskualdearen intereseko fauna espezieak									
HZ/ HeZ KODEA	**IZEN ARRUNTA**	**IZEN ZIENTIFIKOA**	**MOTA**	**HZ ERANSKINA**	**HeZ ERANSKINA**	**BBEBEZ /EEMK**	**EMEK**	**KUDEAKETA PLANA EAEn**	**KONTSERBAZIO EGOERA KBEAN**
A229	Martin arrantzalea	*Alcedo atthis*	B		I	*	IB	-	*Ezezaguna*
A236	Okil beltza	*Dryocopus martius*	B		I	*	B	-	*Desegokia*
A246	Pirripioa	*Lullula arborea*	B		I	*		-	*Ezezaguna*
A302	Ota-txinboa	*Sylvia undata*	B		I	*		-	*Desegokia*
A338	Antzandobi arrunta	*Lanius collurio*	U		I	*		-	*Txarra*
A346	Belatxinga mokogorria	*Pyrrhocorax pyrrhocorax*	B		I	*	IB	-	*Desegokia*
OHIKO HEGAZTI MIGRATZAILEAK									
A028	Lertxun hauskara	*Ardea cinerea*	PN			*		-	*Aldekoa*
A052	Zertzeta arrunta	*Anas crecca*	PN		II/1-III/2				*Desegokia*
A099	Zuhaitz belatza	*Falco subbuteo*	P			*	B	-	*Desegokia*
A153	Ixtingor arrunta	*Gallinago gallinago*	PN		II/1-III/2			-	*Ezezaguna*
A212	Kukua	*Cuculus canorus*	P					-	*Aldekoa*
A228	Malkar sorbeltza	*Tachymarptis melba*	P			*	IB	-	*Desegokia*
A232	Argi oilarra	*Upupa epops*	P			*	K	-	*Ezezaguna*
A233	Lepitzulia	*Jynx torquilla*	P			*	IB	-	*Desegokia*
A251	Enara arrunta	*Hirundo rustica*	P			*		-	*Desegokia*
A253	Enara azpizuria	*Delichon urbicum*	P			*		-	*Txarra*
A256	Uda txirta	*Anthus trivialis*	P			*		-	*Aldekoa*
A257	Negu txirta	*Anthus pratensis*	PN			*		-	*Aldekoa*
A274	Buztangorri argia	*Phoenicurus phoenicurus*	P			K	K	-	*Txarra*
A277	Ipurzuri arrunta	*Oenanthe oenanthe*	P			*		-	*Aldekoa*

3.3 Taula: KBEan azaltzen diren komunitatearen edo/eta eskualdearen intereseko fauna espezieak

HZ/ HeZ KODEA	IZEN ARRUNTA	IZEN ZIENTIFIKOA	MOTA	HZ ERANSKINA	HeZ ERANSKINA	BBEBEZ /EEMK	EMEK	KUDEAKETA PLANA EAEn	KONTSERBAZIO EGOERA KBEAN
A280	Harkaitz zozo gorria	*Monticola saxatilis*	P			*	IB	-	*Desegokia*
A282	Zozo paparzuria	*Turdus torquatus*	b			*	IB	-	*Ezezaguna*
A284	Durdula	*Turdus pilaris*	PN		II/2			-	*Ezezaguna*
A286	Birigarro txikia	*Turdus iliacus*	PN		II/2			-	*Ezezaguna*
A300	Sasitxori arrunta	*Hippolais polyglotta*	U			*		-	*Desegokia*
A310	Baso-txinboa	*Sylvia borin*	U			*		-	*Desegokia*
A313	Txio lepazuria	*Phylloscopus bonelli*	P			*		-	*Desegokia*
A316	Txio horia	*Phylloscopus trochilus*	P			*	B	-	*Ezezaguna*
A319	Euli-txori grisa	*Muscicapa striata*	U			*		-	*Desegokia*
A322	Euli-txori arrunta	*Ficedula hypoleuca*	u			*	B	-	*Desegokia*
A358	Elur txonta	*Montifringilla nivalis*	S			*		-	*Ezezaguna*
A360	Negu txonta	*Fringilla montifringilla*	PN			*		-	*Aldekoa*
A365	Tarina	*Spinus spinus*	PN			*	IB	-	*Ezezaguna*
A373	Mokolodia	*Coccothraustes coccothraustes*	PN			*	IB	-	*Ezezaguna*
A375	Elur-berdantza	*Plectrophenax nivalis*	S			*		-	*Ezezaguna*
ANFIBIO ETA NARRASTIAK									
2353	Uhandre alpetarra	*Ichthyosaura alpestris*				K	K	-	*Desegokia*
5916	Uhandre palmatua	*Lissotriton helveticus*				*		-	*Aldekoa*
1174	Uhandre marmolairea	*Triturus marmoratus*		IV		*		-	*Desegokia*
1191	Txintxiku arrunta	*Alytes obstetricans*		IV		*		-	*Aldekoa*
1230	Zuhaitz-igel arrunta	*Hyla arborea*		IV		*		-	*Aldekoa*

3.3 Taula: KBEan azaltzen diren komunitatearen edo/eta eskualdearen intereseko fauna espezieak									
HZ/ HeZ KODEA	**IZEN ARRUNTA**	**IZEN ZIENTIFIKOA**	**MOTA**	**HZ ERANSKINA**	**HeZ ERANSKINA**	**BBEBEZ /EEMK**	**EMEK**	**KUDEAKETA PLANA EAEn**	**KONTSERBAZIO EGOERA KBEAN**
1209	Baso-igel jauzkaria	*Rana dalmatina*		IV		K	K	-	*Desegokia*
1016	Baso-igel iberiarra	*Rana iberica*		IV		*	IB	-	*Desegokia*
1211	Ur-igela	*Pelophylax perezi*		V				-	*Aldekoa*
1213	Baso-igel gorria	*Rana temporaria*		V		*		-	*Aldekoa*
1220	Dordoka istilzalea	*Emys orbicularis*		II-IV		*	K	-	*Ezezaguna*
1259	Scheiber muskerra	*Lacerta schreiberi*		II-IV		*	IB	-	*Ezezaguna*
5179	Musker berdea	*Lacerta bilineata*		IV		*		-	*Aldekoa*
5910	Sugandila bizierrulea	*Zootoca vivipara*				*		-	*Aldekoa*
2428	Sugandila arrea	*Podarcis liolepis*						-	*Ezezaguna*
1256	Horma-sugandila	*Podarcis muralis*		IV		*		-	*Aldekoa*
2432	Zirauna	*Anguis fragilis*				*		-	*Aldekoa*
5595	Eskinko hiruatza	*Chalcides striatus*				*		-	*Ezezaguna*
1283	Iparraldeko suge leuna	*Coronella austriaca*		IV		*		-	*Ezezaguna*
2452	Hegoaldeko suge leuna	*Coronella girondica*				*		-	*Ezezaguna*
1281	Eskulapioaren sugea	*Zamenis longissimus*		IV		*		-	*Ezezaguna*
2467	Suge biperakara	*Natrix maura*				*		-	*Ezezaguna*
2469	Suge gorbataduna	*Natrix natrix*				*		-	*Aldekoa*
1297	Seoane sugegorria	*Vipera seoanei*		IV				-	*Aldekoa*
ARRAINAK									
5292	Loina	*Parachondrostoma miegii*		II		GA		-	*Desegokia*

3.3 Taula: KBEan azaltzen diren komunitatearen edo/eta eskualdearen intereseko fauna espezieak									
HZ/ HeZ KODEA	**IZEN ARRUNTA**	**IZEN ZIENTIFIKOA**	**MOTA**	**HZ ERANSKINA**	**HeZ ERANSKINA**	**BBEBEZ /EEMK**	**EMEK**	**KUDEAKETA PLANA EAEn**	**KONTSERBAZIO EGOERA KBEAN**
6262	Amuarraina	*Salmo trutta*						-	*Desegokia*
ORNOGABEAK									
1007	Quimper barraskiloa	*Elona quimperiana*		II-IV		*		-	*Aldekoa*
1044	Sorgin-orratza	*Coenagrion mercuriale*		II		*		-	*Aldekoa*
1065	Zingira-dontzeila	*Euphydryas aurinia*		II		*		-	*Ezezaguna*
1083	Arkanbelea	*Lucanus cervus*		II		*	IB	-	*Ezezaguna*
1084		*Osmoderma eremita*		II-IV		K	K	-	*Ezezaguna*
1087	Kakalardo adarluze alpetarra	*Rosalia alpina*		II-IV		*	IB	-	*Ezezaguna*
1088		*Cerambyx cerdo*		II-IV		*	IB	-	*Ezezaguna*
1092	Ibai-karramarroa	*Austropotamobius itallicus***		II,V		K	K	-	*Txarra*
6199	Calimorfa	*Euplagia quadripunctaria*		II				-	*Ezezaguna*

HZ: Habitat Zuzentaraua; HeZ: Hegaztien Zuzentaraua
A: arriskuan; K: kaltebera; B: bakana; IB: interes berezikoa;
Kudeaketa Planak: A: Álava/Araba; B: Bizkaia; G: Gipuzkoa
A: arriskuan; K: kaltebera; B: bakana; IB: interes berezikoa;
*: Babes Bereziko Erregimenean dauden Basa Espezieen Zerrenda.
**zerrenda desberdinetan bere katalogazioak *Austropotamobius pallipes*-i egiten dio erreferentzia

Legenda mota	
B	**Bertakoak**. Lurraldean urte osoan egoten diren hegaztiak; beraz, bertan izaten dituzte kumeak. Beren populazioa zenbait garaitan handitu ahal da, batez ere, neguan, indibiduo negutarrak heltzen baitira.
b	Bertako bakana edo bitxia
U	**Udakoak**. Oro har udan iristen diren eta lurraldean kumeak izaten dituzten hegazti migratzaileak. Horrelakoek udaren amaieran edo udazkenean alde egiten dute.
u	Udako bakana edo bitxia edo ezohikoa
P	**Pasoan**. Hegazti hauek migrazio-bidaian baino ezin dira ikusi. Horrelakoak ez dira luzaroan egoten lurraldean.
N	**Negutarrak**. Hegazti migratzaile hauek udazken eta neguan iristen dira lurraldera, baina lurraldean ez dute kumerik izaten. Neguaren amaieran edo udaberriaren hasieran, alde egiten dute, iparraldean gorago dauden eremuetan izateko kumeak.
n	Negutar bakana edo bitxia edo ezohikoa
S	**Ustekabekoa**. Lurraldean, hegazti hauek oso noizbehinka ikusten dira.

4.– ELEMENTU GAKOAK EDO KUDEATU BEHARREKOAK GORBEIA KBEAN

Atal honetan, kontserbazio-lehentasunak ezartzen dira, hau da, kontserbazio- eta kudeaketa-neurri aktiboak hartzeko beharra duten habitat edo espezie garrantzitsuenen hautaketa egin da.

Lehenespen horiek egin ahal izateko 'elementu gakoak' identifikatu behar izan dira, beste modu batera esanez, kudeatuko diren kontserbazioaren xede diren taldeak. Talde horiek egoera onean mantentzen badira, kontserbazioaren xede diren elementu guztien egoera ona bermatuko da.

4.1.– KBEko ELEMENTU GAKOAK HAUTATZEKO IRIZPIDEAK

Hona hemen eremuaren kudeaketarako elementu gakoak hautatzeko irizpideak:

- Eskualde, estatu eta Batasun mailan Natura 2000 Sarean oso garrantzitsuak diren habitat edo espezieak, eta horien kontserbazio-egoera kaltetuak kudeaketa-neurri aktiboak behar izatea.

- Neurriak ez hartu ezean, kaltetuta daudela edo egon daitezkeela erakusten duen informazio tekniko edo zientifikoa duten habitat edo espezieak.

- Gizakien eraginaren menpe dauden habitat edo espezieak, eta kontserbazio-egoera egoki bat lortzeko edo mantentzeko arautu edo bultzatu behar direnak.

- Taxonomia-taldeen eta ekosistemen osasunaren adierazle diren eta /edo biodibertsitatean dauden presioak detektatzeko erabilgarriak diren habitat edo espezieak eta, ondorioz, monitorizazio-esfortzu zehatza eskatzen dutenak.

- Maneiatuz gero, beste habitat edo basa-espezieengan edota eremuaren osotasun ekologikoarengan ondorio positiboak izango dituzten habitat edo espezieak.

Elementu gako bakoitzarentzat kontserbazio-xede zehatzak proposatu dira, eta xede horiek lortzeko neurri batzuk dakartzate.

Elementu gako bakoitzarentzat proposatutako xedeak, orientatzeko irizpideak eta erregulazioak dokumentu honen 6. atalean *Kontserbazio-xedeak eta -arauak* garatu dira.

Elementu gakoentzat proposaturiko neurriak *'Jarraibideen eta Kudeaketa Neurrien Dokumentua'* izeneko dokumentuan zehazu dira.

4.2.– GORBEIA KBEko ELEMENTU GAKOAK

Irizpide horiei jarraituz, Gorbeia KBEko honako elementu gakoak definitu dira:

1. Baso naturalak eta erdi-naturalak
. Batasunaren intereseko habitatak: 9120, 9150, 9160, 9180*, 9230, 9240, 9260, 9340 EB KOD. . Eskualde-intereseko habitatak: G1.64, G1.82, G1.86, G1.86(X), G1.A1, G1.A1(X) Eunis KOD. . Intereseko lotutako fauna: - Kiropteroak: *Myotis myotis, Myotis bechsteinii*, *Myotis mystacinus, Myotis emarginatus, Barbastella barbastellus.* - Ugaztunak: basakatua (*Felis silvestris*), muxar grisa (*Glis glis*) - Baso-hegaztiak: arrano txikia (*Hieraaetus pennatus*), zapelaitz liztorjalea (*Pernis apivorus*) eta okil beltza (*Dryocopus martius*). - Ornogabeak: koleoptero saproxilikoak (*Lucanus cervus*, *Cerambyx cerdo*, *Rosalia alpina* eta *Osmoderma eremita*), ropalozeroak (*Euphydryas aurinia, Euplagia quadripunctaria*), Quimper barraskiloa (*Elona quimperiana*).
Arrazoiak
- Gorbeian, elementu gakotzat hartzen den baso-azalerak 9.227 ha ditu gutxi gorabehera, hau da, naturagune babestuaren azaleraren % 46. - Horien zati dira Habitat Zuzentarauaren I. eranskinean gehitutako Batasunaren intereserako habitatak: pagadi azidofiloak, pagadi kaltzikolak, harizti pedunkulatuak edo zuriak, amilburuaren azpiko basoak, ameztiak, erkameztiak, gaztainadiak eta artadiak. 6.213 ha-ko azalera dute, hau da, KBEaren azaleraren % 31. Horien artean, pagadi azidofiloek hartzen duten azalera da nagusiena, KBEaren azaleraren % 20 baino zertxobait gehiago hartzen baitu. Aipagarriak dira Altubeko pagadi zabalak, duten hedadura handiagatik. Horiek eta ameztiak kontserbatzeko Gorbeia elementu gakoa da. - Gorbeian beste hainbat baso mota daude, hala nola pagadi basofiloak, pagadi-hariztiak, zuhaitz hostozabaleko eta harizti mesotrofoen baso mistoak, urkidiak eta ibaiertzekoak ez diren haltzadiak. Horiek denak eskualde-intereseko habitat kontsideratu dira. 3.015 ha-ko azalera dute, hau da, KBEaren azaleraren % 31. Horien artean, pagadi basofiloek edo neutroek zabalera handia dute KBEan, 1.679 ha hartzen baitituzte (KBEaren % 8,3). Nabarmentzekoak dira Itxina, Altube (Oiardo ibaia eta AP-68 artean), Arroriano edo Harrikurtzeko pagadi zabalak, duten hedadurarengatik.

- Harizti azidofiloen eta zuhaitz hostozabalen hedadura potentziala asko murriztu da, haien ordez estai muinotarrean basa-landaketak egin baitira. Horren ondorioz, harizti azidofiloak eta zuhaitz hostozabalak azalera txikiko multzo isolatuak izan ohi dira. Hala ere, multzo horiek garrantzitsuak dira lur-korridoreak martxan jarraitzeko eta erabilgarriak izateko. Maiz elkar lotzen dira edo beste Batasunaren intereseko habitatekin mosaikoak eratzen dituzte, hala nola *Quercus robur*aren harizti mesotrofo subatlantiarrak (EB 9160 KOD).

- Pagadi, harizti eta ameztiek lotura-funtzio garrantzitsua dute eskualde-mailan ezarritako korridore ekologiko nagusien zati diren KBEaren inguruko basoekin. Intereseko fauna-espezie askori babesa ematen diote, hala nola basa-hegaztien komunitateei, basa-kiropteroei, eta anfibio edo ornogabe saproxilikoei. Horiek denak eremuko elementu gakoak dira.

- KBEan bada basa-harraparien ongi egituratutako komunitate bat, honako populazio ugaltzaileak dituena: zapelaitz liztorjalea (*Pernis apivorus*), zuhaitz belatza (*Falco subbuteo*), gabiraia (*Accipiter nisus*), aztorea (*Accipiter gentilis*), miru beltza (*Milvus migrans*), arrano txikia (*Hieraaetus pennatus*) eta arrano sugezalea (*Circaetus gallicus*). Azpimarratzekoa da miru gorriaren (*Milvus milvus)* migrazioa eta negua pasatzea. Ez da Gorbeian ugaltzen, baina handik oso gertu egiten du. Okil beltza *(Dryocopus martius)* ere gertu ugaltzen da, KBEaren Arabako eremuan, alegia.

- KBEan gutxienez EAEko 17 kiroptero espezie daude. Nabarmentzekoak dira *Barbastellus barbastellus*, *Myotis mistacinus eta Myotis bechsteinii* basa-espezieak, Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan 'arriskuan' gisa sailkatuak. Saguzarrak zenbait faktoreren oso mendekoak eta sentikorrak dira. Baliabideen ustiapen jasangarrien ereduak eta aterpetxeen mantenu egokiek (zutik edo kobetan dagoen zur hila, zuloak dituzten zuhaitz helduak eta zuhaitz lepamotzak) eragin handia dute haiengan.

- Gorbeian basakatuen populazio (*Felis silvestris*) garrantzitsua dagoela uste da, Habitat Zuzentarauaren IV. eranskinean dagoen espeziea eta Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan 'interes berezikoa' gisa katalogatua. Espezie horrek zuhaitz hostozabaleko basoekiko hautaketa-eredu positiboa du, eremuaren elementu gakotzat hartzen diren basoak, alegia. Muxar grisa (*Glis glis*) 'kaltebera' gisa katalogatutako espeziea da Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan. Espezie hori oin helduegia duten pagadiei eta hariztiei oso loturik dago. Gorbeia espezie horrentzako gune garrantzitsuenetakoa da EAEn, adibidez Itxinan dauden pagadi kaltzikolek sortutako aterpe eta haitz-babeslekuengatik, edota pagadi eta hariztien hedapenarengatik. KBEan lepahoria (*Martes martes*) edo ipurtatsa (*Mustela putorius*) bezalako mustelidoak ere daude, Habitat Zuzentarauaren V. eranskinean daudenak eta Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan 'bakana' eta 'interes berezikoa' gisa sailkaturik daudenak.

- Gorbeia herpetofauna iberikoarentzako gune garrantzitsua da. Zuhaitz hostoerorkorren basoetako hezeguneak anfibioen espezie mehatxatuentzat ere ezinbestekoak dira, hala nola baso-igel jauzkariarentzat (*Rana dalmatina*) edo uhandre marmolairearentzat (*Triturus marmoratus*). Habitat Zuzentarauaren IV. eranskinean gehitutako espezieak dira horiek.

- Koleoptero saproxilikoen fauna taldea baso-guneko talde mehatxatuenetakoa da. Basoaren heterogeneotasunaren eta heldutasunaren adierazle da eta baso helduen baldintzei laguntzeko kudeaketa behar du. KBEan intsektu saproxilikoen 3 espezie daudela frogatu da: *Lucanus cervus* (arduradun kakalardoa), Habitat Zuzentarauaren II. eranskinean dagoena, *Cerambyx cerdo* (kaprikornio handia) eta *Rosalia alpina* (kakalardo adarluze alpetarra), Habitat Zuzentarauaren II. eta IV. eranskinean daudenak. Badirudi ia ziurrenik KBEan *Osmoderema eremita* dagoela, Habitat Zuzentarauaren II. eta IV. eranskinean dagoen eta EMEKen 'kaltebera' gisa sailkatuta dagoen espeziea.

- KBEen *Euphydryas aurinia* (zingira dontzeila) eta *Euplagia quadripunctaria/Callimorpha quadripunctaria* (calimorfa) ropalozeroak daude, Habitat Zuzentarauaren II. eranskinean daudenak. Ropalozero horiek baso autoktonoen eta zuhaixka landarediaren adierazle onak dira.

- Azkenik, KBEan *Elona quimperiana* (Quimper barraskiloa) ere bada, Habitat Zuzentarauaren II. eta IV. eranskinean dagoena.

2. Sastrakadiak eta larreak

. Hezeguneetako txilardiak eta sastrakadiak: 4020*, 4030, 4090 EB KOD.

. Belardi erdi-naturalak: 6230* EB KOD.

. Lotutako intereseko flora:

Diphasiastrum alpinum, Ranunculus amplexicaulis, Narcissus asturiensis, Narcissus bulbocodium, Narcissus pseudonarcissus ssp.nobilis, Arnica montana, Lycopodium clavatum, Meum athamanticum, Huperzia selago, Genista micrantha, Leontodon pyrenaicus, Rumex aquitanicus.

. Intereseko lotutako fauna:

- Goi-mendiko eta landazabaleko abifauna: mirotz zuria (*Circus cyaneus*), ota-txinboa (*Sylvia undata*), belatxinga mokogorria (*Pyrrhocorax pyrrhocorax*), antzandobi arrunta (*Lanius collurio*).
- Kiropteroak: *Rhinolophus ferrumequinum*, *Rhinolophus hipposideros*.
- Narrastiak: Schreiber muskerra (*Lacerta schreiberi*).

Arrazoiak

- Txilardiek eta belardiek Gorbeian hartutako azalera altua da eta gune horren bereizgarria da, baina haren banaketa denboran aldatzen doa, maneiuen eta larreak hobetzeko balizko jarduketen menpe baitago. Gaur egun 3.350 ha-ko azalera du, hau da, KBEaren azaleraren % 17.

- Habitat Zuzentarauaren I. eranskinean dauden Batasunaren intereseko habitatak dira. Naturaltasun maila altua dute eta kalteberatasun txikikoak dira, gizakiaren eraginetik urrun dauden mendi-guneetan baitaude. Balio ekologiko altuko flora- eta fauna-espezieak bizi dira bertan, eta lotutako faunari babesa eta elikagaiak eskaintzen dizkiote.

- Habitat horiek abeltzaintza estentsiboaren mantenuaren menpe daude, milaka urtean zehar abeltzaintza-kulturek bertan oreka ezarri baitzuten. Kultura horiek lekua ustiatu eta haren paisaia ospetsua eraldatu zuten, eta horren kontserbazioa egun gainbeheran dagoen ekonomia-jarduera horren biziraupenaren menpe dago. Larre eta txilardi gehienak titulartasun publikoko lurretan daude, beraz horrek aukera bikaina eskaintzen du haien kontserbazio-egoera egokia lortzeko mantenu-ekintzak egiteko.

- Gorbeia KBE eremu gakotzat jotzen da 4020*, 4030 eta 6230 habitatentzat.

- Mendiko larre eta sasien mosaikoan interes botaniko handiko espezieak bizi dira, Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan daudenak; horietatik bi 'galzorian' kategorian daude (*Diphasiastrum alpinum*, *Ranunculus amplexicaulis*) eta beste hiru espezie 'kaltebera' gisa sailkatuta daude (*Genista micrantha*, *Leontodon pyrenaicus* eta *Rumex aquitanicus*). EAEn, espezie horiek soilik Gorbeian aurki daitezke. Horretaz gain, Habitat Zuzentarauaren II. eranskinean dauden hainbat flora-espezie daude: *Narcissus asturiensis*, *Narcissus pseudonarcissus ssp. nobilis.* Azkenik, aipatzekoa da Gorbeian 38 m^2-ko *Sphagnum squarrosum* briofitoen populazio ñimiño bat dagoela, Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoaren arabera galzorian dagoena eta bertan egonkor mantentzen dena.

- Eremu irekiei loturiko harrapari eta sarraskijale espezieentzako ehiza-gune garrantzitsuak dira. Larre, sasi eta hartxingadietan, besteak beste, honako hegaztiak jaten dute eta ugaltzen dira: mirotz zuria (*Circus cyaneus*), ota-txinboa (*Sylvia undata*), belatxinga mokogorria (*Pyrrhocorax pyrrhocorax*) eta belatxinga mokohoria (*Pyrrhocorax graculus*). Kontuan hartu behar da eper grisa (*Perdix perdix*), Gorbeian XX. mendearen erdialdera galdu zela. Espezie hori mendi-habitataren eta larre naturalen kontserbazio-egoera onaren adierazle da, eta mendiko abeltzaintza tradizionalaren gainbeherak asko eragin dio gaur egun.

- Landazabaleko hegaztiak nekazaritza- eta abeltzaintza-sistemei loturik daude eta azken hamarkadetan Europan gehien murriztu diren populazio ugaltzaileen abifaunako taldeen barruan daude. Gorbeian, antzandobi arruntaren (*Lanius collurio*) populazio ugaltzaileak daude, besteak beste.

- Gorbeia herpetofauna iberikoarentzako gune garrantzitsua da. Espazio honek interes handia du, gehienbat bi arrazoiengatik: batetik, espezie endemikoak Europan zehar banaturik dauden taxonen talde heterogeneo batekin batera bizi diren lotura geografiko gisa jarduten baitu eta, bestetik, parkearen bi hegaletako ingurune-baldintza desberdinetan narrastien egokitze desberdinak ikasteko marko bikaina baita. Gorbeiako narrastien komunitatean 14 espezie daude; horietatik, 7 Habitat Zuzentarauan daude; eta, azken horietatik, 3 Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan. Mehatxu mailaren arabera, nabarmentzekoa da schreiber muskerra (*Lacerta schreiberi*) Habitat Zuzentarauaren II. eta IV. eranskinean dagoena eta Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan 'interes berezikoa' gisa sailkaturik dagoena.

3. Leizeak, harkaitzak eta lotutako habitatak

. Turismoak ustiatu gabeko leizeak: 8310 EB KOD.

. Kareharrizko hartxingadi eta harkaitzak: 8130 eta 8210 EB KOD

. Larre harritar kaltzikolak: 6170 EB KOD.

. Mendiko megaforbioak: 6430 EB KOD.

. Lotutako intereseko beste flora-espezieak:

Nigritella gabasiana, Leontodon pyrenaicus, Pedicularis tuberosa, Tozzia alpina.

. Intereseko lotutako fauna:

- Kiropteroak: *Miniopterus schreibersii*.
- Abifauna harkaiztarrak: sai zuria (*Neophron percnopterus*), sai arrea (*Gyps fulvus*) eta belatz handia (*Falco peregrinus*).

Arrazoiak

- Habitat Zuzentarauaren I. eranskinean dauden Batasunaren intereseko habitatak. Gorbeia eremu gakoa da ondorengo habitatak kontserbatzeko: 'Hartxingadiak' '(8130 EB KOD), 'Kareharrizko harkaitzak' (8210 EB KOD) eta 'Turismoak ustiatu gabeko leizeak' (8310 EB KOD).

- Balio ekologiko altuko flora- eta fauna-espezieak bizi dira bertan, eta lotutako faunari babesa eta elikagaiak eskaintzen dizkiete. Azpimarragarriak dira Lekanda, Gatzarrieta eta Aldamingo harkaitzak; bertan Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoko espezie asko daude.

- Gorbeiako harkaitzetan sai zuriek (*Neophron percnopterus*) eta belatz handiek (*Falco peregrinus*) habia egiten dute. Beste hegazti batzuk gune hau bisitatu ohi dute, ustekabean edo haien ehiza-gune bihurtu baitu, baina ugalketarik azaldu gabe. Horixe da sai arrea (*Gyps fulvus*), arrano beltza (*Aquila chrysaetos*) eta ugatzaren (*Gypaetus barbatus*) kasua.

- Landarediak zailtasunak ditu harkaitz-habitat horietan ezartzeko: normalean motel hazten diren eta sendotasun ahula duten landareak bizi dira bertan, eta gehienbat espezie endemikoak edo bakanak izaten dira. Hartxingadi asko daude Itxinako mendimultzoaren inguruko mendietan, eta habitat ezegonkorrak dira. Landare-estaldura maila txikia dute, baina flora oso espezializatua da, ingurune dinamiko honetan bizitzen ohitua dagoena.

- Mendiko megaforbioen banaketa (6430 EB KOD) oso mugatua da, eta habitat honetan balio ekologiko handiko flora-espezieak bizi dira.

- Itxina, Arralde edo Zubialderen goialdean Batasunaren intereserako 'turismoak ustiatu gabeko barrunbeak' (8310 EB KOD) kategoriako leize gehienak daude. Oso garrantzitsuak dira eremu honetako kiropteroen komunitatearentzat (17 espezie), oso kaltebera den lotutako fauna. Gorbeia EAEko kiroptero espezieetan aberatsenetakoa da, eta espezie horrentzat lehentasunezko eremutzat hartzen da, bi baldintza betetzen baititu: espezieen aberastasun handia izatea eta lehentasunezko babesleku izatea. Lehentasunezko bi babesleku aurkitu dira KBEan: Itxulegorreko leizea (Orozkoko udalean) eta Legorraseko leizea (Zigoitiako udalean). Aipatzekoa da 'Swarming' ugalketa-estrategia izateko joera frogatu dela Gorbeia KBEan, Itxulegorreko leizean edo Erdiko Arrail Handian (Itxina) behintzat.

4. Hezeguneak

. Habitat lenitikoak: 3140 eta 3150 EB KOD

. Habitat higro-zohikatzak: 7140 eta 7230 EB KOD

. Lotutako intereseko flora:

Spiranthes aestivalis, Ranunculus aconitifolius, Apium inundatum, Thelypteris palustris, Utricularia australis, Sphagnum Squarrosum.

. Intereseko lotutako fauna:

- Narrastiak: dortoka istilzalea (*Emys orbicularis*).
- Anfibioak: baso-igel jauzkaria (*Rana dalmatina*), uhandre alpetarra (*Ichtyosaura alpestris*), uhandre marmolairea (*Triturus marmoratus*).
- Ornogabeak: sorgin-orratzak (*Coenagrion mercuriale*).

Arrazoiak

- KBEko hezeguneek atentzio berezia eskatzen dute, duten ingurumen-balio altuagatik. Aipagarriak dira Altubeko putzuak eta handik gertu dagoen Lamiogingo putzua. EAEko zingira-gune garrantzitsuenetakoak dira haien prozesu eta funtzioen berezitasunagatik eta duten biodibertsitate handiagatik. KBEan badira beste hezegune garrantzitsu batzuk, aurretik aipaturikoekin batera EAEko Hezeguneen Inbentarioan daudenak, hala nola Saldropoko zohikaztegia, Zuia, Zigoitia, Orozko, Zeanuri, Saldropo eta Areatzako zingirak, Gorbeiako urtegia Zubialde ibaian eta Iondegortako presa.

  Denak interes handiko hezeguneak dira komunitate fitoplanktoniko eta zoobentoniko aberatseko biodibertsitate maila altuagatik, eta Batasunaren intereseko habitatak baitituzte, hala nola Chara spp landaredia duen Kareharrizko ur oligo-mesotrofikoak (3140 EB KOD) edota Ur geldiak (edo korronte motelekoak) ur-gaineko landarediak (3150 EB KOD) eta Batasuneko edo eskualde-intereseko flora-espezieak dituztenak, hala nola *Ranunculus aconitifolius*, *Apium inundatum*, *Thelypteris palustris* edo *Utricularia australis*, baita mehatxatuta dauden espezieak dituzten anfibio komunitateak, besteak bete, baso-igel jauzkaria (*Rana dalmatina*) eta uhandre alpetarra (*Ichtyosaura alpestris*); narrastiak (*Emys orbicularis*) eta intereseko sorgin-orratzak, hala nola *Coenagrion mercuriale*.

- EAEko habitat higro-zohikatzen berezitasunak kontuan hartuta (7140, 7230 EB KOD), Habitat Zuzentarauren I. eranskineko Batasunaren intereseko habitatak egoera guztietan babestu behar dira. Habitat higro-zohikatzek ekosistema erlikiak osatzen dituzte, iberiar penintsulan gainbeheran daudenak. Gorbeiako mendimultzoa EAEko landaredi turbofiloak dituzten esfagnalen eta habitat hidrofiloen gune nagusia da, eta habitat horiek kontserbatzeko eremu gakoa da.

  Bertan interes botaniko handiko espezieak bizi dira, hala nola briofitoa *Sphagnum Squarrosum*, galzorian dagoen espeziea eta Gorbeian populazio ñimiño bat duena, edota *Spiranthes aestivalis (Poir.) Rich*., IV. eranskinean dagoen orkidea (EMEKen 'kaltebera') eta datuen inprimaki normalizatuan sartu ez zena.

  Arroetako goialdean bizi direnez, garrantzi handikoak dira duten funtzio hidroerregulatzaileagatik eta, horretaz gain, informazio paleobotanikoa jasotzeko erregistro bizidunak dira.

  Habitat horiek abeltzaintza estentsiboaren mantenuaren menpe daude, milaka urtean zehar abeltzaintza-kulturek bertan oreka ezarri baitzuten. Kultura horiek lekua ustiatu eta haren paisaia ospetsua eraldatu zuten, eta horren kontserbazioa egun gainbeheran dagoen ekonomia-jarduera horren biziraupenaren menpe dago. Baina, aldi berean, sistema hidrologikoetako eta baldintza fisiko-kimikoetako aldaketen aurrean oso ahulak dira.

  Gorbeia KBEko esfagnalak EAEko Hezeguneen Inbentarioan daude.

5. Ibai-sistema: errekak, ubideak eta lotutako habitat naturalak

. Batasunaren intereseko habitatak: 3240 eta 91E0* EB KOD.

. Eskualde-intereseko habitatak: F9.12 eta F9.2(X) Eunis KOD.

. Lotutako intereseko flora:

Prunus lusitanica, Thelypteris palustris, Trichomanes speciosum.

. Intereseko lotutako fauna:

- Ibaietako abifauna: martin arrantzalea (*Alcedo atthis*).
- Anfibioak: baso-igel iberiarra (*Rana iberica*).
- Arrainak: loina (*Parachondrostoma miegii*), ibai amuarraina (*Salmo trutta*).
- Ornogabeak: ibai-karramarro autoktonoa (*Austropotamobius itallicus*).

Arrazoiak

- Ibai-sistemari lotutako habitatak, flora eta fauna kontserbatzeko ingurumenen-dibertsifikazioa bermatzen duten prozesu hidrogeomorfologiko guztiak biltzen ditu Gorbeia KBEko ibai-sistemak. Sistemako elementu bakoitza eta haien arteko harremanak kontserbatzeko eta babesteko aukera ematen du, baita elementu gako zehatzenak ere.

- Bertan Habitat Zuzentarauaren Batasunaren intereseko espezieak bizi eta elikatzen dira, hala nola loina (Habitat Zuzentarauaren II. eranskinean dagoena eta Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoan 'galzorian' dagoena. Ibai-karramarro autoktonoaren bizilekua ere da, Habitat Zuzentarauaren II. eta V. eranskinean dagoena eta Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoan 'kaltebera' eta Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan 'galzorian' gisa sailkaturik dagoena.

- Gainera, ibaiertzetako landarediak mustelido erdi-akuatikoei babesa ematen die, baita gaur egun noizean behin ikusten den bisoi europarrari eta igaraba euroasiarrari ere, Habitat Zuzentarauaren II. eta IV. eranskinean dauden espezieak eta Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan 'galzorian' gisa sailkaturik daudenak.

- Horretaz gain, ibaiertzeko landarediak uberkari itzala ematen dio eta makroornogabeei elikagaia; azken horiek arrainen elikagaia dira eta uraren kalitatea hobetzen dute, uberkara substantzia kutsakor eta solido eseki gutxiago iristea eragiten baitute. Intereseko hegaztientzat ere atseden hartzeko eta elikatzeko guneak eta mugitzeko bideak dira, hala nola martin arrantzalearentzat (*Alcedo atthis*), ibaiaren kalitatearen adierazle bikaina dena.

- Ureko eta lurreko ekosistemen trantsizio-gunea denez (ekotonoa), biodibertsitate altua du. Bertan, mehatxatutako flora-espezieak aurkitu dira, hala nola *Trichomanes speciosum*, Habitat Zuzentarauaren II. eranskinean dagoena, edo *Thelypteris palustris* eta *Prunus lusitanica,* EMEKen 'galzorian' gisa katalogatua dagoena.

- Korridore ekologikoaren funtzioa bermatzen du, ibai-sistemen oinarrizko ezaugarria. Kasu honetan, aldameneko ekosistemekin luzetarako eta zeharkako loturak sortzeaz gain, beste KBEk ere zuzenean lotzen ditu: Baia Ibaia KBE (ES2110006), Zadorrako Sistemako Urtegiak KBE (ES211011) eta Urkabustaizeko uharte-hariztiak (ZEC ES2110003), azken hori Baia Ibaia KBEaren bidez lotua.

- Gorbeia KBE ibai-sistema, ibarretako paisaiak egituratzeko eta dibertsifikatzeko elementu garrantzitsua da.

- Baia ibaia, Gorbeia KBEtik pasatzen den tartea barne, 'lehentasunezko banaketa-eremua' da honako espezieentzat: mazkar arantzaduna (*Cobitis calderoni*), iparraldeko katxoa (*Squalius pyrenaicus*) eta ibai-kabuxa (*Salaria fluviatilis*), Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan 'galzorian' daudenak eta Arabako Foru Aldundiak onartutako Kudeaketa-planak dituztenak. Era berean, Zadorrako sare hidrografikoarenak diren Gorbeia KBEaren uberkak (Undabe eta Zubialdeko azpi-arroak) ibai-kabuxarentzako 'lehentasunezko banaketa-eremu' ere dira.

- Aipagarria da Oiardo ibaiaren ur-bazterreko sahastiaren garapen argia; 'ingurumenaren intereseko' tartea da eta Plan hidrologikoen Kantauri Ekialdeko Mugaketaren Plan Hidrologikoko Babestutako Eremuen Erregistroan dago. Sahastiak KBEko intereseko beste eremuetan ere ageri dira, hala nola Altubeko putzuetako zingira multzoan, Marakaldako putzuaren babes-zerrendan edo Saldropoko hezegunea elikatzen duten erreketan.

4.3.– ELEMENTU GAKOEN ETA GORBEIA PARKE NATURALAREN ZONIFIKAZIOAREN ARTEKO HARREMANA

Gorbeia 2110009 KBE naturagune babestuak parke naturalaren babesarekin bat egiten du; horregatik, jarraian aurreko atalean aipatutako elementu-gakoen banaketa eta parke naturaleko NBAPn zehaztutako zonifikazioak duten lotura azaltzen duen taula bat aurkezten da.

Parke naturaleko gune desberdinetako habitaten eta lotutako espezieen banaketa datuak oinarritzat hartuz, aipatutako zonifikazioaren egoera-egokitasunari buruzko ondorioak ateratzen dira, elementu gakoen kontserbazio-beharrei erantzuna emateko. Ondorio horiek ondorengo atalean jasotzen dira eta bertan elementu gako bakoitzaren baldintzatzaileak ere aurkezten dira.

Elementu gakoa	Habitata	NBAPeko zonifikazioa	Azalera (ha)	Eremu bakoitzeko hábitat (%)	Azalera KBEaren (%)	Erlazioa duten espezieak
1. Basoak	9120	Erreserba integrala	19,71	% 0,48	% 0,097	Flora: *Taxus baccata,* *Ilex aquifolium,* Fauna: *Felis silvestris,* *Glis glis,* *Dryocopus martius,* *Pernis apivorus,* *Hieraaetus pennatus,* *Barbastella barbastellus,* *Myotis myotis,* *Myotis mistacinus,* *Myotis emarginatus* *Myotis nattereri,* *Myotis bechsteinii,* *Plecotus auritus,* *Salamandra salamandra,* *Ichtyosaura alpestris,* *Elona quimperiana,*
		Erreserba	6,35	% 0,16	% 0,031	
		Babes zona	90,53	% 2,21	% 0,448	
		Kontserbazio aktiboa I	1.008,63	% 24,62	% 4,987	
		Kontserbazio aktiboa II	2.584,04	% 63,08	% 12,776	
		Aurreratze ekologikoa	108,67	% 2,65	% 0,537	
		Abeltzaintza eta basogintza sustatzeko zona	257,43	% 6,28	% 1,273	
		Landazabalak	7,17	% 0,18	% 0,035	
		Hiri-zonak eta azpiegiturak	8,15	% 0,20	% 0,040	
		PN ez den KBE	5,92	% 0,14	% 0,029	
		Guztira (9120)	4.096,61	% 100,00	% 20,25	
	9150	Erreserba	1,93	% 50,50	% 0,010	
		Abeltzaintza eta basogintza sustatzeko zona	1,89	% 49,50	% 0,009	
		Guztira (9150)	3,82	% 100,00	% 0,020	
	9160	Erreserba	0,26	% 0,87	% 0,001	
		Kontserbazio aktiboa II	2,73	% 9,04	% 0,013	
		Abeltzaintza eta basogintza sustatzeko zona	0,61	% 2,01	% 0,003	
		Landazabalak	3,55	% 11,75	% 0,018	

Elementu gakoa	Habitata	NBAPeko zonifikazioa	Azalera (ha)	Eremu bakoitzeko hábitat (%)	Azalera KBEaren (%)	Erlazioa duten espezieak
		PN ez den KBE	23,04	% 76,33	% 0,114	*Rosalia alpina,*
		Guztira (9160)	30,19	% 100,00	% 0,150	*Lucanus Cervus,*
	9180*	Babes zona	12,08	% 89,13	% 0,060	*Cerambyx cerdo,*
		Kontserbazio aktiboa II	1,21	% 8,91	% 0,006	
		Aurreratze ekologikoa	0,27	% 1,96	% 0,001	
		Guztira (9180*)	13,55	% 100,00	% 0,070	
	9230	Erreserba integrala	15,80	% 0,81	% 0,078	
		Babes zona	1,39	% 0,07	% 0,007	
		Kontserbazio aktiboa I	284,28	% 14,52	% 1,405	
		Kontserbazio aktiboa II	1.301,15	% 66,47	% 6,433	
		Aurreratze ekologikoa	108,88	% 5,56	% 0,538	
		Abeltzaintza eta basogintza sustatzeko zona	232,44	% 11,87	% 1,149	
		Landazabalak	12,51	% 0,64	% 0,062	
		PN ez den KBE	1,14	% 0,06	% 0,006	
		Guztira (9230)	1.957,58	% 100,00	% 9,680	
	9240	Erreserba	7,54	% 25,14	% 0,037	
		Kontserbazio aktiboa II	7,90	% 26,33	% 0,039	
		Aurreratze ekologikoa	3,51	% 11,70	% 0,017	
		Landazabalak	0,36	% 1,21	% 0,002	

Elementu gakoa	Habitata	NBAPeko zonifikazioa	Azalera (ha)	Eremu bakoitzeko hábitat (%)	Azalera KBEaren (%)	Erlazioa duten espezieak
		PN ez den KBE	10,69	% 35,62	% 0,053	
		Guztira (9240)	30,01	% 100,00	% 0,150	
	9260	Kontserbazio aktiboa II	19,55	% 81,45	% 0,097	
		Abeltzaintza eta basogintza sustatzeko zona	4,45	% 18,55	% 0,022	
		Guztira (9260)	24,00	% 100,00	% 0,120	
	9340	Erreserba	12,52	% 21,97	% 0,062	
		Protección	0,17	% 0,30	% 0,001	
		Babes zona	26,27	% 46,08	% 0,130	
		Kontserbazio aktiboa I	10,20	% 17,88	% 0,050	
		Kontserbazio aktiboa II	5,66	% 9,92	% 0,028	
		Landazabalak	0,17	% 0,29	% 0,001	
		Hiri-zonak eta azpiegiturak	2,03	% 3,56	% 0,010	
		Guztira (9340)	57,01	% 100,00	% 0,280	
	G1.64	Erreserba	40,03	% 2,38	% 0,198	
		Babes zona	124,46	% 7,41	% 0,615	
		Kontserbazio aktiboa I	637,19	% 37,93	% 3,150	
		Kontserbazio aktiboa II	740,79	% 44,09	% 3,662	
		Abeltzaintza eta basogintza sustatzeko zona	132,13	% 7,86	% 0,653	

Elementu gakoa	Habitata	NBAPeko zonifikazioa	Azalera (ha)	Eremu bakoitzeko hábitat (%)	Azalera KBEaren (%)	Erlazioa duten espezieak
		Landazabalak	4,77	% 0,28	% 0,024	
		Hiri-zonak eta azpiegiturak	0,74	% 0,04	% 0,004	
		Guztira (G1.64)	1.680,10	% 100,00	% 8,310	
	G1.82	Erreserba	1,76	% 0,62	% 0,009	
		Babes zona	36,60	% 12,87	% 0,181	
		Kontserbazio aktiboa I	38,42	% 13,51	% 0,190	
		Kontserbazio aktiboa II	165,38	% 58,16	% 0,818	
		Aurreratze ekologikoa	0,39	% 0,14	% 0,002	
		Abeltzaintza eta basogintza sustatzeko zona	40,16	% 14,12	% 0,199	
		Landazabalak	1,66	% 0,58	% 0,008	
		Guztira (G1.82)	284,36	% 100,00	% 1,410	
	G1.86, G1.86(X), G1.A1, G1.A1(X)	Erreserba integrala	31,43	% 2,98	% 0,155	
		Erreserba	6,16	% 0,58	% 0,030	
		Babes zona	18,76	% 1,78	% 0,093	
		Kontserbazio aktiboa I	342,39	% 32,50	% 1,693	
		Kontserbazio aktiboa II	340,95	% 32,37	% 1,686	
		Aurreratze ekologikoa	63,56	% 6,03	% 0,314	
		Abeltzaintza eta basogintza sustatzeko zona	138,72	% 13,17	% 0,686	

Elementu gakoa	Habitata	NBAPeko zonifikazioa	Azalera (ha)	Eremu bakoitzeko hábitat (%)	Azalera KBEaren (%)	Erlazioa duten espezieak
		Landazabalak	61,76	% 5,86	% 0,314	
		Hiri-zonak eta azpiegiturak	9,23	% 0,88	% 0,046	
		PN ez den KBE	40,43	% 3,84	% 0, 200	
		Guztira [G1.86, G1.86(X), G1.A1, G1.A1(X)]	1.140,23	% 100,00	% 5,640	
	1. Guztira		**9.229,44**		**% 45,630**	
	1. PN ez den KBE guztira		**81,22**		**% 0,402**	

Elementu gakoa	Habitata	NBAPeko zonifikazioa	Azalera (ha)	Eremu bakoitzeko hábitat (%)	Azalera KBEaren (%)	Erlazioa duten espezieak
2. Sastrakadiak eta larreak	4020*	Kontserbazio aktiboa I	0,002	% 0,004	% 0,00001	Flora: *Diphasiastrum alpinum,* *Ranunculus amplexicaulis,* *Arnica montana,* *Lycopodium clavatum,* *Narcissus (bulbocodium, pseudonarcissus ssp.nobilis),* *Meum athamanticum,* *Huperzia selago,* *Genista micrantha,*
		Kontserbazio aktiboa II	0,94	% 1,87	% 0,005	
		Aurreratze ekologikoa	0,20	% 0,40	% 0,001	
		Abeltzaintza eta basogintza sustatzeko zona	48,97	% 97,72	% 0,242	
		Guztira (4020*)	50,11	% 100,00	% 0,25	
	4030	Erreserba integrala	0,37	% 0,02	% 0,002	
		Erreserba	8,28	% 0,37	% 0,041	
		Babes zona	70,43	% 3,19	% 0,348	
		Kontserbazio aktiboa I	310,83	% 14,08	% 1,537	

Elementu gakoa	Habitata	NBAPeko zonifikazioa	Azalera (ha)	Eremu bakoitzeko hábitat (%)	Azalera KBEaren (%)	Erlazioa duten espezieak
		Kontserbazio aktiboa II	340,65	% 15,43	% 1,684	*Narcissus asturiensis,* *Leontodon pyrenaicus,* *Rumex aquitanicus,* *Taxus baccata* <u>Fauna</u>: *Rhinolophus ferrumequinum* *Rhinolophus hipposideros* *Circus cyaneus,* *Sylvia undata,* *Pyrrhocorax pyrrhocorax,* *Neophron percnopterus,* *Gypaetus barbatus,* *Gyps fulvus,* *Caprimulgus europeaeus,* *Lacerta schreiberi*
		Aurreratze ekologikoa	200,62	% 9,09	% 0,992	
		Abeltzaintza eta basogintza sustatzeko zona	1.257,96	% 56,97	% 6,219	
		Landazabalak	11,49	% 0,52	% 0,057	
		Hiri-zonak eta azpiegiturak	7,12	% 0,32	% 0,035	
		PN ez den KBE	0,37	% 0,02	% 0,002	
		Guztira (4030)	2.208,11	% 100,00	% 10,92	
	4090	Erreserba	15,01	% 7,41	% 0,074	
		Babes zona	45,72	% 22,58	% 0,226	
		Kontserbazio aktiboa I	23,43	% 11,57	% 0,116	
		Kontserbazio aktiboa II	64,38	% 31,79	% 0,318	
		Aurreratze ekologikoa	2,07	% 1,02	% 0,010	
		Abeltzaintza eta basogintza sustatzeko zona	51,06	% 25,22	% 0,252	
		Landazabalak	0,09	% 0,05	% 0,000	
		PN ez den KBE	0,73	% 0,36	% 0,004	
		Guztira (4090)	202,49	% 100,00	% 1,00	
	6230*	Erreserba	7,62	% 0,86	% 0,038	
		Babes zona	65,04	% 7,36	% 0,322	

Elementu gakoa	Habitata	NBAPeko zonifikazioa	Azalera (ha)	Eremu bakoitzeko hábitat (%)	Azalera KBEaren (%)	Erlazioa duten espezieak
		Kontserbazio aktiboa I	120,94	% 13,69	% 0,598	
		Kontserbazio aktiboa II	207,59	% 23,50	% 1,026	
		Aurreratze ekologikoa	13,57	% 1,54	% 0,067	
		Abeltzaintza eta basogintza sustatzeko zona	468,44	% 53,04	% 2,316	
		Guztira (6230*)	883,20	% 100,00	% 4,37	
	2. Guztira		**3.343,91**		**% 16,53**	
	2. PN ez den KBE guztira		**1,10**		**% 0,005**	

Elementu gakoa	Habitata	NBAPeko zonifikazioa	Azalera[3] (ha)	Eremu bakoitzeko hábitat (%)	Azalera KBEaren (%)	Erlazioa duten espezieak
3. Leizeak, harkaitzak eta lotutako habitatak	8310	Erreserba	46 haitzulo	% 6,44		Flora: *Nigritella gabasiana, Leontodon pyrenaicus, Pedicularis tuberosa, Tozzia alpina, Taxus baccata,* Fauna: *Miniopterus schreibersii,*
		Babes zona	50 haitzulo	% 7,00		
		Kontserbazio aktiboa I	395 haitzulo	% 55,32		
		Kontserbazio aktiboa II	124 haitzulo	% 17,37		
		Abeltzaintza eta basogintza sustatzeko zona	99 haitzulo	% 13,87		
		Guztira (8310)	714 haitzulo	% 100,00		
	8130, 8210	Erreserba	79,54	% 21,25	% 0,393	
		Babes zona	114,00	% 30,45	% 0,564	

Elementu gakoa	Habitata	NBAPeko zonifikazioa	Azalera[3] (ha)	Eremu bakoitzeko hábitat (%)	Azalera KBEaren (%)	Erlazioa duten espezieak
		Kontserbazio aktiboa I	117,20	% 31,31	% 0,579	*Plecotus auritus,* *Rhinolophus ferrumequinum,* *Rhinolophus hipposideros,* *Myotis emarginatus,* *Falco peregrinus,* *Neophron percnopterus,* *Gypaetus barbatus,* *Aquila chrysaetos,* *Gyps fulvus,* *Monticola saxatilis,* *Pyrrhocorax pyrrhocorax,*
		Kontserbazio aktiboa II	38,93	% 10,40	% 0,192	
		Aurreratze ekologikoa	0,72	% 0,19	% 0,004	
		Abeltzaintza eta basogintza sustatzeko zona	23,97	% 6,40	% 0,119	
		Guztira (8130, 8210)	374,36	% 100,00	% 1,85	
	6170	Erreserba	13,33	% 14,26	% 0,066	
		Babes zona	34,23	% 36,62	% 0,169	
		Kontserbazio aktiboa I	10,75	% 11,50	% 0,053	
		Kontserbazio aktiboa II	10,11	% 10,81	% 0,050	
		Abeltzaintza eta basogintza sustatzeko zona	25,05	% 26,81	% 0,124	
		Guztira (6170)	93,46	% 100,00	% 0,46	
	6430	Erreserba	0,21	% 93,70	% 0,001	
		Kontserbazio aktiboa II	0,01	% 6,30	% 0,000	
		Guztira (6430*)	0,22	% 100,00	% 0,00	
	3. Guztira		**468,05**		**% 2,31**	
	3. PN ez den KBE guztira		**0,00**		**% 0,00**	

Elementu gakoa	Habitata	NBAPeko zonifikazioa	Azalera (ha)	Eremu bakoitzeko hábitat (%)	Azalera KBEaren (%)	Erlazioa duten espezieak
4. Hezeguneak	3140, 3150	Erreserba	1,11	% 40,89	% 0,005	Flora: *Spiranthes aestivalis (Poir.) Rich.* *Ranunculus aconitifolius,* *Utricularia australis,* *Apium inundatum,* *Sphagnum squarrosum* Fauna: *Emys orbicularis,* *Rana dalmatina,* *Ichtyosaura alpestris,* *Triturus marmoratus* *Coenagrion mercuriale,* *Austropotamobius itallicus*
		Kontserbazio aktiboa II	1,29	% 47,52	% 0,006	
		Hiri-zonak eta azpiegiturak	0,06	% 2,21	% 0,000	
		PN ez den KBE	0,25	% 9,38	% 0,001	
		Guztira (3140, 3150)	2,71	% 100,00	% 0,01	
	7140, 7230	Kontserbazio aktiboa I	2,09	% 2,68	% 0,010	
		Kontserbazio aktiboa II	28,12	% 36,05	% 0,139	
		Aurreratze ekologikoa	4,61	% 5,91	% 0,023	
		Abeltzaintza eta basogintza sustatzeko zona	43,19	% 55,36	% 0,214	
		Landazabalak	0,0004	% 0,00	% 0,000	
		Guztira (7140, 7230)	78,01	% 100,00	% 0,39	
	4. Guztira		**80,72**		**% 0,40**	
	4. PN ez den KBE guztira		**0,25**		**% 0,001**	

Elementu gakoa	Habitata	NBAPeko zonifikazioa	Azalera (ha)	Eremu bakoitzeko hábitat %	Azalera KBEaren %	Erlazioa duten espezieak
5. Ibai - sistema	91E0*	Erreserba integrala	1,26	% 0,90	% 0,006	Flora: *Trichomanes speciosum* *Thelypteris palustris,* *Prunus lusitanica* Fauna: *Parachondrostoma miegii,* *Salmo trutta,* *Austropotamobius itallicus,* *Mustela lutreola,* *Galemys pyrenaicus,* *Lutra lutra,* *Martes martes,* *Myotis daubentonii,* *Alcedo atthis,* *Bufo spinosus,* *Rana iberica,* *Pelophilax perezi,* *Bufo bufo,* *Cinclus cinclus,* *Tachybaptus ruficollis,* *Lucanus cervus,* *Cerambyx cerdo*
		Erreserba	0,17	% 0,12	% 0,001	
		Babes zona	2,60	% 1,85	% 0,013	
		Kontserbazio aktiboa I	15,56	% 11,07	% 0,077	
		Kontserbazio aktiboa II	51,94	% 36,97	% 0,257	
		Aurreratze ekologikoa	17,64	% 12,55	% 0,087	
		Abeltzaintza eta basogintza sustatzeko zona	42,64	% 30,35	% 0,211	
		Landazabalak	4,49	% 3,19	% 0,022	
		Hiri-zonak eta azpiegiturak	0,01	% 0,01	% 0,000	
		PN ez den KBE	4,20	% 2,99	% 0,021	
		Guztira (91E0*)	140,52	% 100,00	% 0,69	
	3240	Erreserba	16,66	% 87,66	% 0,082	
		Kontserbazio aktiboa II	2,35	% 12,34	% 0,012	
		Guztira (3240)	19,01	% 100,00	% 0,09	
	F9.12, F9.2X	Kontserbazio aktiboa I	5,71	% 82,09	% 0,028	
		Kontserbazio aktiboa II	0,42	% 6,00	% 0,002	
		PN ez den KBE	0,83	% 11,92	% 0,004	
		Guztira (F9.12, F9.2X)	6,96	% 100,00	% 0,03	
	5. Guztira		**166,49**		**% 0,82**	
	5. PN ez den KBE guztira		**5,03**		**% 0,02**	

5.– ELEMENTU GAKOEN KONTSERBAZIO EGOERA PRESIOAK ETA MEHATXUAK

5.1.– ELEMENTU GAKOEN KONTSERBAZIO EGOERA

Aurreko atalean identifikatutako Gorbeia KBEaren elementuak hautatu ondoren, atal honetan horien 'kontserbazio-egoerak' zehazten dira, baita elementuen kontserbazio-egoera baldintzatzen duten faktoreak ere.

Atal hau eremuko elementu gakoak diren habitat edo espezieen arabera egituratu da, eta bakoitzarentzat ondorengo alderdiak deskribatzen dira:

- Kontserbazio-egoera orokorra

- Presio eta mehatxu nagusiak

- Beste alderdiak edo baldintzatzaileak

1. Baso naturalak eta erdi-naturalak

. Batasunaren intereseko habitatak: 9120, 9150, 9160, 9180*, 9230, 9240, 9260, 9340 EB KOD.

. Eskualde-intereseko habitatak: G1.64, G1.82, G1.86, G1.86(X), G1.A1, G1.A1(X) Eunis KOD.

. Intereseko lotutako fauna:

- Kiropteroak: *Myotis myotis, Myotis bechsteinii*, *Myotis mystacinus Myotis emarginatus, Barbastella barbastellus.*
- Ugaztunak: basakatua (*Felis silvestris*), muxar grisa (*Glis glis*)
- Baso-hegaztiak: arrano txikia (*Hieraaetus pennatus*), zapelaitz liztorjalea (*Pernis apivorus*) eta okil beltza (*Dryocopus martius*).
- Ornogabeak: koleoptero saproxilikoak (*Lucanus cervus*, *Cerambyx cerdo*, *Rosalia alpina* eta *Osmoderma eremita*), ropalozeroak (*Euphydryas aurinia, Euplagia quadripunctaria*), Quimper barraskiloa (*Elona quimperiana*).

Kontserbazio-egoera

Batasunerako intereseko edo eskualdeko intereseko habitatak:

9120* EB KOD	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Azalera		x		
Egitura eta funtzioak		x		
Etorkizuneko igurikapenak		x		
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

EU9230* EB KOD	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Azalera		x		
Egitura eta funtzioak		x		
Etorkizuneko igurikapenak	x			
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

9160* EB KOD	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Azalera			x	
Egitura eta funtzioak		x		
Etorkizuneko igurikapenak		x		
Kontserbazio-egoera			Txarra	

EU9180* EB KOD	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Azalera	x			
Egitura eta funtzioak	x			
Etorkizuneko igurikapenak	x			
Kontserbazio-egoera	Aldekoa			

Pagadi basofiloa (G1.64)	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Azalera		x		
Egitura eta funtzioak		x		
Etorkizuneko igurikapenak		x		
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Gainontzeko eskualde-intereseko baso-habitatak [G1.82, G1.86, G1.86(X), G1.91, G1.A1 eta G1.A1(X), G1.B2] azalera txikiko multzo txikietara murriztu dira, estai muinotarrean haien ordez basa-landaketak egin baitziren. Hala eta guztiz ere, eskualde-intereseko baso-habitaten azalera handia da, 1.068 ha-koa (KBEaren azaleraren % 5). Horien kontserbazio-egoera kaltegarria da, duten fragmentazio-Hedapena handia, hedapen txikia eta egitura desegokiagatik.

Intereseko lotutako fauna:

Kiropteroen komunitatea	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena				x
Populazioa				x
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera				Ezezaguna

Basakatua	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena				x
Populazioa				x
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera				Ezezaguna

Muxar grisa	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa				x
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera				Ezezaguna

Zapelaitz liztorjalea	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena		x		
Populazioa		x		
Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Arrano txikia	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena		x		
Populazioa		x		
Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Okil beltza	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena		x		
Populazioa		x		
Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko igurikapenak	x			
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Koleoptero saproxilikoak	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa				x
Espeziearentzat habitata				x
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera				Ezezaguna

Euphydryas aurinia	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa				x
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera				Ezezaguna

Euplagia quadripunctaria	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa				x
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera				Ezezaguna

Elona quimperiana	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa	x			
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko igurikapenak	x			
Kontserbazio-egoera	Aldekoa			

Presioak eta mehatxuak

Gorbeiako basoetan identifikatutako presio eta mehatxuak berdinak dira elementu gako honetako habitat guztientzat. Hala ere, habitat bakoitzarentzat tratamendu homogeneorik ez dagoenez, presio edo mehatxu maila desberdina izan daiteke eremu bakoitza nola maneiatzen den arabera.

Orokorrean, ondorengo presioak identifikatu dira:

- Birlandaketak espezie aloktonoekin (B01.02.02) edo autoktonoekin (B01.02.01), titulartasun publiko nahiz pribatuko lurretan. Kontuan hartu behar da jabego pribatuko lurretan presioa handiagoa dela.

- Oihanpea ezabatzea (B02.03) eta hildako edo okerrera egindako zuhaitzak kentzea (B02.04). Hamarkadetan zehar baso masak egur-aprobetxamendurako erabili izan dira (ikatzetarako, soilguneak, egur-sortak, etab.), baina azken urteetan jarduera asko murriztu da, beraz presioa ere txikitu egin da.

- Baso-ustiapenen ohitura tradizionalak uztea, hala nola zuhaitzak lepatzea.

- Biodibertsitatearen ikuspuntutik, baso-larratzeak (B06) zuhaixka eta belar geruza egokia mantentzea oztopatzen du. Kontuan hartu behar da baso mota batzuk, hala nola ameztiak eta harizti mesotrofoak, ganadu-karga handiagoa onartzen dutela oihanpe trinkoagoa baitute.

- Baso multzoen fragmentazio maila handia (B07). Fragmentazioa eta lotura faltaren kausa nagusia errepideak eta autobideak (D01.02), bidezidor eta pistak (D01.01) eta linea elektrikoak (D02.01.01) dira.

- Etorkizunean suteak (J01) gerta daitezke Gorbeian, baina gaur egun arte gutxitan gertatu dira.

- Aisialdiko jarduerak, batez ere intentsiboki egiten direnak, hala nola, basa-produktuen biltzea (onddoak, etab.) (F04.02), basa-animaliak ehizatzea eta harrapatzea (F03), ezkutuko jarduerak (F03.02.03), kanpoaldeko kirolak eta antolatutako laket-jarduerak (G.01), txangozaletasuna eta motorrik gabeko ibilgailuak erabiltzea (G01.02).

Baso-kiropteroen komunitatearen kontserbazioan eragin negatiboa izan dezaketen presio eta mehatxuak:

- Negua pasatzeko eta hazkuntzarako babeslekuak eragoztea (G01.02).
- Bandalismoa eta indibiduoak hiltzea (G05.04).
- Nekazaritza- eta baso-intsektizidak (B04, A07).
- Eraikinetako egurra babesteko organokloratuak edo organofosforatuak erabiltzea (A07), bereziki hazkuntza-koloniei eragiten dietenak.
- Harrizko zubiak zaharberritzea (J03.01).
- Habitat naturala galtzea eta ehizako habitata degradatzea, elikagaiak eskuratzeari dagokionez (J03.01).
- Koniferen landaketak zuhaitz hostozabaleko basoak ordezkatzea, eta horren ondorioz intsektu gutxiago egotea (B01.02, B02.04).
- Lurrazpiko babeslekuak galtzea azpiegitura, errepide, pista, etab., eraikitzearen ondorioz (D01.01).
- Baso hostoerorkor eta planifolio autoktonoak galtzea eta fragmentatzea (B07).
- Basoak eta zuhaitz urtetsuak galtzea (B03).
- Baso multzoak zeharkatzen dituzten ur-ibilguak eta putzu naturalak lehortzea, eta uberkatik enborrak eta adarrak ateratzea (J02.01).

Hauexek dira ugaztunei zehazki eragiten dieten presioak, hala nola basakatuari, lepahoriari edo muxar grisari: baso hostoerorkor eta planifolio autoktonoak galtzea eta fragmentatzea (B07), basogintzan biozidak, hormonak eta produktu kimikoak erabiltzea (B04), eta errepide eta autobideetan gerta litezkeen kolpatzeak (D01.02). KBEaren eremuko eta inguruko errepideetan kolpatze asko gertatzen diren tarte ugari identifikatu dira, hala nola AP-68, A-624, N-240, A-3608 eta A-2521.

Baso-hegaztiei negatiboki eragiten dieten faktoreak ondorengoak dira: habiak egiteko oin egokien falta eta zuhaitz zaharren desagertzea (B02.04), zenbait basogintza jarduera, hala nola zuhaitzen bakanketa, moztea, egur-sortak (B02.04, B02.06) edo birlandaketarik edo birsorkuntza naturalik gabeko basoaren aprobetxamendua (B03). Ondorengo jarduera antropikoen aurrean ere ahulak dira hegaztiak: habiak lapurtzea (F03.02), ehiza (F03.01) edo kanpoaldeko kirolek (G01.02) edo aisialdi jarduerek (F04.02.02) eragindako eragozpenak.

Gorbeia KBEko anfibioak kudeatzeko orduan kontuan hartu behar da hainbat alderdi negatibo berdinak direla lurralde guztian. Anfibioen mehatxu handiena haien habitatak aldatzea, murriztea edo suntsitzea da, bereziki ugalketarako habitatak (hezeguneak, orokorrean). Honako hauek eragin ditzakete egoera horiek: kanalizazioak eta ur-desbideratzeak (J02.03), errekastoetan ur-hartzeak (J02.06), zingirak eta putzuak betetzea (J02.01.03), habitatak aldatzea eta horiek inguratzen dituzten zuhaixkak moztea (J03.01), etab. Basogintzatik (B07) ondorioztatutako jarduerek ere eragina izan dezakete, makinek hezeguneak suntsitu baititzakete (D01.01) edota sedimentuen kutsadurarengatik (K01.02), besteak beste.

Koleoptero saproxilikoen kasuan, presio eta mehatxuek aurretik aipatutako baso-guneekin harreman zuzena dute. Horien artean nabarmentzekoa da hildako edo okerrera egin duten zuhaitzak kentzea (B02.04). Hala ere, hamarkadetan zehar baso masak egur-aprobetxamendurako (ikatzetarako, soilguneak, egur-sortak) erabili izan diren arren, azken urteetan jarduera asko murriztu da, beraz presioa ere txikitu egin da. Hala eta guztiz ere, baso-ustiapen praktika tradizionalak uzteak, hala nola zuhaitzak lepatzeak, mota horretako habitatak progresiboki desagertzea eragin lezake, eta habitat horiek mota horretako espezieen aldekoak dira.

Elementu gakoentzat aipaturiko presioen artean, badira ropalozeroentzat, bereziki negatiboak izan daitezkeen presio zehatzak, hala nola sastrakadiak eta oihanpea galtzea (B02.03).

Beste faktore eta baldintzatzaile batzuk

Parke naturalaren zonifikazioa (NBAP):

- Elementu gakoan sartutako basoen azaleraren % 80 kontserbazio aktiboko eremuen zati da; % 25 artapen eraginkorreko I. aldeetan dago, eta % 55 artapen eraginkorreko II. aldeetan.

- Solik basoen % 1,5 da erreserba integraleko eremuetako edo erreserba-eremuetako zatia. Jarraian, kategoria horietan sartuta dauden habitaten azaleren ehunekoak jaso dira:

  - Pagadi azidofiloak: % 0,6
  - Pagadi kaltzikolak: % 50,5
  - Harizti mesotrofoak: % 0,9
  - Amilburuaren azpiko basoak: % 0,0
  - Ameztiak: % 0,8
  - Erkameztiak: % 25,1
  - Gaztainadiak: % 0,0
  - Artadiak: % 0,8
  - Harizti azidofiloak: % 2,4
  - Pagadiak-hariztiak: % 0,6
  - Hariztiak-baso mistoa: % 2,8

- Bi kategorietan sartutako baso-azalerak ez dira nahikoak, bereziki habitat jakin batzuei dagokienez (pagadi azidofiloak, harizti mesotrofoak, ameztiak, pagadi-hariztiak, hariztiak); izan ere, erreserba integraleko eremuetan edo erreserba-eremuetan azalera osoaren % 3 baino gutxiago dago.

- Amilburuaren azpiko basoekin lotutako azaleraren ia % 90 babes-eremuetan dago, nahiz eta, horien ezaugarriak direla eta, oso-osorik sartuta egon beharko luketen.

- Elementu gako horren azaleraren % 0,4 (81 ha) parke naturalaren mugen barnean ez dauden eremuei dagokie (Zestafe, Kulukupadra eta La Yesera).

Beste plan batzuk:

'Arabako Lurralde Historikoko Ekologia eta Paisaia Konektibitatea' ikerketan hainbat neurri proposatzen dira, hala nola heskaia perimetralak eta faunarako igarobideak N-622 eta AP-68 bideetan. Hala ere, beranduago bi bide horiek ugaztun handi eta ertainentzako duten iragazkortasunaren inguruko azterketa bat egin zen. Haren arabera, kostu ekonomiko txiki samarreko 28 neurri zuzentzaileak hartu behar ziren dauden zeharkako egituren iragazkortasuna hobetzeko.

Administrazio-baldintzatzaileak: lurren jabegoa

- Kasu batzuetan, lurzoruaren jabetzaren araubideak baldintzatzen du habitat horiek lehengoratu eta hobetzeko jarduketak egin ahal izatea. Esan beharra dago *1. Basoak* elementu gakoko habitatarekin identifikatutako azaleraren % 90 titulartasun publikoko lurretan dagoela, eta ondorioz kontserbazio-jarduketak errazagoak direla.

- Hori bai, habitat-mota bakoitzaren arabera, alde handiak daude titulartasun publikoko ehunekoetan.

  - Pagadi azidofiloak: % 90,2
  - Pagadi kaltzikolak: % 0,0
  - Harizti mesotrofoak: % 98,3
  - Amilburuaren azpiko basoak: % 97,6
  - Ameztiak: % 91,7
  - Erkameztiak: % 99,9
  - Gaztainadiak: % 0,1
  - Artadiak: % 75,4
  - Harizti azidofiloak: % 84,0
  - Pagadiak-hariztiak: % 94,5
  - Hariztiak-baso mistoa: % 80,0

2. Sastrakadiak eta larreak

. Hezeguneetako txilardiak eta sastrakadiak: 4020*, 4030, 4090 EB KOD.

. Belardi erdi-naturalak: 6230* EB KOD.

. Intereseko lotutako flora:

Diphasiastrum alpinum, Ranunculus amplexicaulis, Narcissus asturiensis, Narcissus bulbocodium, Narcissus pseudonarcissus ssp.nobilis, Arnica montana, Lycopodium clavatum, Meum athamanticum, Huperzia selago, Genista micrantha, Leontodon pyrenaicus, Rumex aquitanicus.

. Intereseko lotutako fauna:

- Goi-mendiko eta landazabaleko abifauna: mirotz zuria (*Circus cyaneus*), ota-txinboa (*Sylvia undata*), belatxinga mokogorria (*Pyrrhocorax pyrrhocorax*), antzandobi arrunta (*Lanius collurio*).
- Kiropteroak: *Rhinolophus ferrumequinum*, *Rhinolophus hipposideros*.
- Narrastiak: Schreiber muskerra (*Lacerta schreiberi*).

Kontserbazio-egoera

Batasunaren intereseko txilardiak eta sasiak:

4020* EB KOD	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena		x		
Azalera		x		
Egitura eta funtzioak	x			
Etorkizuneko igurikapenak		x		
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

4030, 4090 EB KOD	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Azalera	x			
Egitura eta funtzioak	x			
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera	Aldekoa			

Batasunaren intereseko belardiak:

Lotutako intereseko fauna:

6230* EB KOD	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Azalera	x			
Egitura eta funtzioak	x			
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera	Aldekoa			

Diphasiastrum alpinum	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa			x	
Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera			Txarra	

Ranunculus amplexicaulis	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa			x	
Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera			Txarra	

Meum athamanticum	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa			x	
Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera			Txarra	

Arnica montana	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa			x	
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera			Txarra	

Narcissus asturiensis	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa	x			
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko igurikapenak	x			
Kontserbazio-egoera	Aldekoa			

Narcissus gr pseudonarcissus	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa	x			
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko igurikapenak	x			
Kontserbazio-egoera	Aldekoa			

Genista micrantha	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			

Populazioa			x	
Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera			Txarra	

Rumex aquitanicus	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa			x	
Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera			Txarra	

Intereseko lotutako fauna:

Kiropteroen komunitatea	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena				x
Populazioa				x
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera				Ezezaguna

Mirotz zuria	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena		x		
Populazioa			x	
Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera			Txarra	

Ota-txinboa	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena		x		
Populazioa				x
Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Belatxinga mokogorria	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena		x		

Populazioa				x
Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Antzandobi arrunta	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena		x		
Populazioa			x	
Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko igurikapenak			x	
Kontserbazio-egoera			Txarra	

Schreiber muskerra	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa				x
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera				Ezezaguna

Presioak eta mehatxuak

Mendiko larreak:

- Larratze-sistemak uzteak edo larratzerik ez egoteak (A04.03) sastrakadiko habitaten hedapenari mesede egin diezaioke, baina mendiko larreen azalera murriztu dezake. Mendiko larreetan eragina izan dezaketen beste inpaktuak honakoak dira: larratze intentsiboa (A04.01), gune batzuk gehiegi zapaltzeak (G05.01) higadura-prozesuak sor ditzake (K01.01), txangozaletasunak eraginda bidezidor kopurua handitzea (G01.02) edota behar bezala kontrolatu gabeko hazien erabilerak eraginda eremu batzuetan kardua (I01) bezalako espezieak hedatzea.

- Larratze intentsiboak (A04.01) eta ahuntz-ganadua larratzeak (A04.02.04) habitat honi lotutako intereseko flora-espezieengan ere eragina izan dezake.

Sastrakadiak:

- Txilardi hezeetan, ur-erregimena aldatzea kanalizazio eta ur-desbideratzeen (J02.03) bidez, gehiegizko larratzea (A04.01) eta zapaltzea (G05.01), edota kontrolpeko edo kontrolik gabeko sua erabiltzea (J01.01).

- Txilardi lehorretan, aurrekoez gain, garoa bezalako espezieen ugaritzea edo zur-espezieen kolonizazioak (K02.01), gehienetan abeltzaintza uztearen ondorio direnak; sastraka-garbitzeak (A03), belar-hiltzaileak eta ongarriak erabiltzea (A07 eta A08) edota sarbiderako bidezidorrak eta pistak irekitzea (D01.02).

Lotutako flora:

- *Diphasiastrum alpinum* eta *Ranunculus amplexicaulis*: batzuk gehien erabiltzen diren bidezidorretan (G01.02) daude. Batzuetan ematen diren ospakizunetan jende asko elkartzen da eta arrisku-faktore

bihur daiteke espeziearen ugalketa-aldian gertatzen badira (maiatza-uztaila).

- *Arnica montana*. Tradizionalki sendabelar gisa erabili izan da, horregatik iraganean asko bildu zen (F04.01).
- *Genista micrantha.* Oraindik bizi litekeen guneen zati handienetan otea (*Ulex sp.*) bezalako lehiakide gogorrak ditu eta haren garapena oztopatzen du, ez baitu itzala duten lekurik onartzen (B01).
- *Leontodon pyrenaicus.* Arrisku handiena larratzeak (A04.02) sortzen du, ganaduak atsegin duen inguruetan bizi baita eta harekin batera hazten baita. Ondorioz, bere bizitza-zikloa bete baino lehen behin eta berriz suntsi daiteke.

Lotutako fauna:

- Kiropteroak: habitat naturala galtzea eta ehizako habitata degradatzea, elikagaiak eskuratzeari dagokionez (J03.01). Zuhaiztiak, zuhaixkak (A10.01) eta harrizko harresiak (A10.02) kentzea.
- Goimendiko eta otalur atlantikoko hegaztiak: lurraren erabilera aldatzea ondorengo arrazoiengatik: erretzea (J01.01), sastrakadiko habitatak luberritzea (A03), elikagaien guneak galtzea baso-birpopulaketen ondorioz (B02.01), larratze estentsiboaren intentsitatea jaistea (A04.03), eta laket- eta kirol-jarduerek sortutako eragozpenak (G01.02, F04.02.02).
- Landazabaleko hegaztiak: landazabala aldatzea edo sinplifikatzea izaera antropikoko jarduketen ondorioz: zuhaiztiak eta zuhaixkak (A10.01) eta harrizko harresiak (A10.02) kentzea eta haien ordez txarrantxa jartzea, pestiziden kontrol gabeko erabilera orokortua (A07), dauden baliabide trofikoak murrizten dituena, batez ere artropodoak; edota larre-sastrakadi gunetan baso berriak landatzea (B02.01.02).
- Schreiber muskerra: habitata galtzea bertan gehienbat koniferoak landatzeagatik (B01.02), eta nekazaritza- eta basogintza-erabilerarengatik (A01, B01) habitata aldatzea, murriztea edo suntsitzea. Jarduketa horiek sastrakadiak eta oihanpea (B02.03) desagertzea eragiten dute.

Beste faktore eta baldintzatzaile batzuk

Parke naturalaren zonifikazioa (NBAP):

- Txilardi heze atlantiarren (4020* EB KOD) azalera ia guztia (% 98), lehentasunezko habitata da eta 'abeltzaintza-basogintzaren sustapena' kategoriaren parte da. Aurretik aipatu den moduan, habitat arras ahula da eragozpen antropikoen eta abeltzaintza intentsiboaren aurrean (lehortzea, eutrofizazioa, zapaltzea). Horren inguruko murriztapen-neurriak hartu beharko lirateke, hala nola lotutako ur-erregimenaren edozein aldaketa prebenitzea edo ezabatzea, gertuko guneetako ongarrien erabilera kontrolatuz elikatzeko uren kalitate fisiko-kimikoa bermatzea, edo ganaduari gune batzuk ixtea, batez ere habitat higro-zohikatzekin mosaikoa eratzen duen guneetan. Babes handiagoko kategoriara igotzea ere komeni litzateke.
- Mendi-larreak (6230* EB KOD) ere lehentasunezko habitatak dira eta haien azaleraren zati handiena hiru kategoriatan banatzen da: 'abeltzaintza-basogintzaren sustapena' (% 53), 'kontserbazio aktiboa II' (% 23) eta 'kontserbazio aktiboa I' (% 14). Zonifikazio hori habitat honen kontserbazio-egoera onarekin bateragarria da.
- Txilardi lehor azidofiloak mendiko larreekin mosaiko moduan bizi dira eta aurrekoen banaketa antzekoa dute: 'abeltzaintza-basogintzaren sustapena' (% 57), 'kontserbazio aktiboa II' (% 15) eta 'kontserbazio aktiboa I' (% 14). Zonifikazio hori habitat honen kontserbazio-egoera onarekin bateragarria da.
- Parke naturalean ez dagoen KBEko elementu gako honen azalera ez da oso esanguratsua (KBEaren azaleraren % 0,005), eta Zestafeko (Zigoitia) OPMn dauden txilardi lehor eta txilardi kaltzikolei dagokie.
- KBEko elementu gako ez diren eta kontserbazioaren xede diren beste sastrakadiak parke naturalean babes gehiago duten eremuetan aurki daitezke. Hona hemen batzuk:
  - 5110 EB KOD: Harkaitzeko aldapetako Buxus sempervirens sastrakadi xerotermofiloak (*Berberidion p.p.*). Gorbeian soilik bi gune ('Bojadi') identifikatu dira Atxuriko hegoaldeko mazelean, guztira 1,35 ha hartzen dituztenak. Oso berezia da espezie hori Gorbeian egotea, horregatik parke naturaleko

'erreserba eremu' ('Bojadi') batean sartu dira, babestutako eremu honen NBAPk zehazten duenaren arabera.

- F5.21 (Y) Eunis KOD: maquis altu mediterranearra, KBEko ipar-ekialdeko muturreko hainbat guneetan aurkitu da; espezie horren azaleraren % 42a 'El Bortal' erreserba integralaren barruan dago.

Mehatxatutako flora-espezieak berreskuratzeko planak:

- *Diphasiastrum alpinum*: espezie horrek 'Berreskuratze-plana'-ren proposamen bat du. Parke naturalaren zonifikazioaren barruan, planaren aplikazio-eremu handiena 'Kontserbazio Aktiboko I Guneei' dagokie eta zati txiki bat 'Abeltzaintza Basogintzaren Sustapenerako Guneei'. Berdin gertatzen da espezie hori aurkitu den kontserbazio-eremuekin, ondorioz 'Kontserbazio Aktiboko I Guneei' dagokie eta zati txiki bat 'Abeltzaintza Basogintzaren Sustapenerako Gunetarako' zehaztutako erregulazioez gaindiko babes-neurri zehatzak behar dira berreskuratze-planeko neurriak aplikatu ahal izateko.

- *Ranunculus amplexicaulis*: espezie hori ere 'Berreskuratze plana'-ren proposamenean sartu da. Parke naturalaren zonifikazioari dagokionez, kontserbazio-eremuak (guztira 24.562 m^2-ko azalerako 11 lursail) eta proposatutako 'Berreskuratzeko eremuak' (guztira 119.933 m^2-ko azalerako 2 lursail) 'Abeltzaintza Basogintzaren Sustapenerako Gune', 'Kontserbazio Aktiboko I Guneak' eta 'Kontserbazio Eremua'-ren artean banatzen dira, eta denak Gorbeiaganeko iparraldeko mazelan daude. Aurreko kasuan bezala, aipatutako eremuentzat zehaztutako babes-neurriez gain neurri zehatzak behar dira.

Lotutako fauna:

- Habitat Zuzentarauan IV. eranskineko mikro eta megakiroptero espezie guztiak daude, ondorioz guztiak dira Batasunaren intereseko espezieak eta babes zorrotza behar dute. Horretaz gain, *Rhinolophus hipposideros* eta *Rhinolophus ferrumequinum* ere aipatutako Zuzentarauaren II. eranskinean daude.

- Schreiber muskerra (*Lacerta schereiberi*) Habitat Zuzentarauaren II. eta IV. eranskinean dago, eta Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan 'interes berezikoa' gisa sailkaturik dago.

Administrazio-baldintzatzaileak:

- Lursailen jabegoa: kasu batzuetan, lurzoruaren jabetzaren araubideak baldintzatzen du habitat horiek lehengoratu eta hobetzeko jarduketak egin ahal izatea.

  'Sastrakak eta larreak' elementu gakoan sartutako Batasunaren intereseko habitaten azaleraren ia % 85 titulartasun publikoko lursailetan dago, nahiz eta 4090 habitataren kasuan azalera publikoa zertxobait txikiagoa den (% 63).

  Gehienezko titulartasun publiko hori mendi publikoaren erabilera-emakiden bidez kudeatzen da orokorrean, eta horrek kontserbazio- edo berreskuratze-neurriak aplikatzea errazten du. Hala ere, horren ondorioz kontratu- edo boluntario-izaera duten formulak bilatu behar dira, proposatutako edo eragindako lursailen jabe diren administrazioekin akordio eta konpromisoak bultzatzen dituztenak, gehienbat udaletxeekin edo administrazio batzarrekin Arabako L.H.ren kasuan.

3. Leizeak, harkaitzak eta lotutako habitatak

. Turismoak ustiatu gabeko leizeak: 8310 EB KOD.

. Kareharrizko hartxingadi eta harkaitzak: 8130, 8210 EB KOD

. Larre harritar kaltzikolak: 6170 EB KOD.

. Mendiko megaforbioak: 6430 EB KOD.

. Intereseko lotutako beste flora-espezieak:

Nigritella gabasiana, Leontodon pyrenaicus, Pedicularis tuberosa, Tozzia alpina.

. Intereseko lotutako fauna:

- Kiropteroak: *Miniopterus schreibersii*.
- Abifauna harkaiztarrak: sai zuria (*Neophron percnopterus*), sai arrea (*Gyps fulvus*) eta belatz handia (*Falco peregrinus*).

Kontserbazio-egoera

Harkaitzak eta leizeak:

8210* EB KOD	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Azalera	x			
Egitura eta funtzioak	x			
Etorkizuneko igurikapenak	x			
Kontserbazio-egoera	Aldekoa			

8130, 8310 EB KOD	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Azalera	x			
Egitura eta funtzioak		x		
Etorkizuneko igurikapenak	x			
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Megaforbioen komunitateak:

6430* EB KOD	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Azalera		x		
Egitura eta funtzioak		x		
Etorkizuneko igurikapenak		x		
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Larre harritarrak:

6170* EB KOD	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Azalera	x			
Egitura eta funtzioak	x			
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera	Aldekoa			

Mehatxatutako beste flora-espezieak:

Nigritella gabasiana	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa			x	
Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera			Txarra	

Leontodon pyrenaicus	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa			x	
Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera			Txarra	

Intereseko lotutako fauna:

Kiropteroen komunitatea	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena				x
Populazioa				x
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera				Ezezaguna

Sai zuria	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena		x		
Populazioa			x	
Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko igurikapenak			x	
Kontserbazio-egoera			Txarra	

Belatz handia	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna

Hedapena		x		
Populazioa		x		
Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Sai arrea	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena		x		
Populazioa		x		
Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Presioak eta mehatxuak

Gorbeian, identifikatutako harkaitzetan eta zenbait leizetan kirol- edo laket-jarduerak egiten dira, baita izaera zientifikoagoa dutenak ere; hala nola eskalada (G01.04.01), espeleologia (G01.04.02) edo leizeen bisitak (G01.04.03).

Azpimarratzekoak dira Gorbeia parke naturaleko Erabilera Publikoko Planaren Berrikuspenaren diagnosian identifikatutako zenbait afekzio, egun izapidetzen ari direnak:

- Folklore-ospakizunak, herri-deialdiak eta leizeetara bisitak (antolatu eta jakinarazi gabekoak), batez ere leize batzuetan (Mairulegorreta) inpaktu handikoak dira. Batzuetan endokarsta degradatzen duten bandalismo arazoak gertatu dira, hala nola grafitiak (G05.04), zabor edo karburo hondakinak uztea, etab. EPPk espeleologia-jardueren kontrola behar dela azpimarratzen du Legorras, Gingia Mairulegorreta eta Artzegiko leizeetan.

- Eskalada (G01.04.01) Axkorriganeko horman (Itxina). Jarduera horrek desagertzeko arrisku larrian dauden hegazti harkaiztarrei eragin diezaioke, haien artean sai zuria (*Neophron percnopterus*). Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaian eskalada arautzeko eta murrizteko programa bat du.

Megaforbioen komunitateei eragiten dieten inpaktu nagusiak ganaduaren kontrol gabeko larratzetik datoz, bereziki ahuntzen larratzetik (A04.02.04).

Kiropteroen komunitatearen kontserbazioan eragin negatiboa izan dezaketen presio eta mehatxuak:

- Negua pasatzeko eta hazkuntzarako babeslekuak eragoztea eta horien itxitura motak (G01.02, G05.08).
- Bandalismoa eta indibiduoak hiltzea (G05.04).
- Habitat naturala galtzea eta ehizako habitata degradatzea, elikagaiak eskuratzeari dagokionez (J03.01).

Hegazti harkaiztarren kasuan, badira oraindik mehatxu batzuk, hala nola noizbehinka pozoia erabiltzea (F03.02.03), pistak eraikitzea (D01.01), basogintza-lanak (B02.02, B02.05), eta linea elektrikoei lotutako

hildakoak (D02.01.01). Erabilera Publikoko Planaren berrikuspenak mehatxutzat jotzen du eskalada (G01.04.01) Axkorriganeko horman (Itxina). Desagertzeko arrisku larrian dauden hegazti harkaiztarrei eragin diezaioke, haien artean sai zuria (*Neophron percnopterus*). Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaian eskalada arautzeko eta murrizteko programa bat du, aurrerago azalduko dena.

Beste faktore eta baldintzatzaile batzuk

Parke naturalaren zonifikazioa (NBAP):

- Gorbeian identifikatutako barrunbeen soilik % 13,5 dago erreserba-eremuetan (46 barrunbe) edo babes-eremuetan (50 barrunbe); leize gehienak (% 55) Kontserbazio Aktiboko I. Gunekoak dira, hala nola Itxulegor eta Legorraseko leizeak, kiropteroentzat lehentasunezko babesleku direnak eta babes berezia beharko luketenak. Aurretik aipaturiko Mairulegorretako leizea Kontserbazio Aktiboko II. Eremuan dago.

- Gutxi gorabehera, KBEko harkaitz eta hartxingadien azaleraren erdia erreserba-eremuetan (Axkorrigan, Aldamin, Bojadi) edo babes-eremuetan (Itxinako inguruko mendiak, Gorostieta, Gatzarrieta, Egillorlarra) dago. Kopuru hori ez da nahikoa, bereziki mehatxatutako flora-espezieak dituzten eremuetan edota espezie horiek potentzialki egon daitezkeen ezaugarri ekologikoak dituzten eremuetan. Soilik % 6,4 abeltzaintza-basogintzaren sustapenerako eremuetan dago, eta orokorrean lehen aipaturiko bi eremuen aldamenean dauden lursail txikiak dira.

- Larre harritarren kasuan, abeltzaintza-basogintzaren sustapenerako eremuetan dagoen azalera % 2,7koa da, eta erreserba- edo babes-eremuetan dagoena, aldiz, % 50ekoa. Aurreko kasuan bezalaxe, aztertu beharra dago mehatxatutako flora-espezieen kontserbazio- edo berreskurapen-eremu izendatu daitezkeen eremuetan erreserba-eremuak zabaltzea komeni den edo ez.

- Azpimarratzekoa da megaforbioen komunitateen identifikatutako azaleraren % 94 (2.100 m^2) Aldamingo erreserba-eremuaren zati dela. Ondorioz, azken horren azaleraren mugaketa eremu horretan egindako flora-espezie mehatxatuen berreskuratze-planetara egokitu beharko litzateke.

Itxinako biotopo babestua

- *Uztailaren 11ko 368/1995 Dekretuak* 1995ean Itxinako mendimultzoa Biotopo babestu izendatu zuen. Biotopoak parke naturalerako araudira gehitzen den araudi zehatz bat du.

- Bizkaian eskalada arautzen duen programak (Bizkaiko Foru Aldundia) Itxinako eremua eskaladarako erabilera mugatuko eremu izendatu du; zehazki, aldi baterako debekua ezartzen du (urtarrilaren 1 eta abuztuaren 31 bitartean).

Parke naturalaren Erabilera Publikoko II. Plana (izapidetzen ari dena):

- Planaren *2.5.2.3 Inpaktua kontrolatzeko zuzenketa-neurriak* atalean Mairulegorreta leizearen

inguruko neurriak ezartzen dira, baita endokarsteko leku degradatuenen garbiketa- eta kontrol-neurriak ere.

Gorbeiako parke naturaleko Arabako Aldeko Barrunbeen Kudeaketa Plana:

- Gomendioak, jarraibideak eta jarduketa orokorrak ezartzen ditu, baita barrunbe zehatzen inguruko jarraibideak eta jarduketak ere (Legorras, Gingia, Mairulegorreta eta Artzegi).

Mehatxatutako espezieen Kudeaketa edo Berreskuratze Planak:

- *Nigritella gabasiana*: espezie honen 'Berreskuratze-plana'-ren proposamenak dio 1.414,8 m^2-ko lursail bat espezie horren kontserbazio-eremua dela, Aldamin mendiaren kareharrizko ezproiaren ipar-iparekialdeko aldeko gune altuenean dagoena eta azken urteetan espezie hori ikusi izan den leku guztiak bateratzen dituena. Berreskuratze-eremu izateko 13.432,7 m^2-ko lursail bakarra proposatu da, eta bertan Aldamin mendiaren ipar-iparekialdeko aldeko kareharrizko guneko 1.300 metrotik gorako belar-erlaitza guztiak egongo lirateke. Espezie honen 'Berreskuratze-planean' proposatutako kontserbazio- eta berreskuratze-eremu guztiak Aldamingo 'Erreserba-eremuan' daude.

- Gaur egun, 'EAEko hegazti nekrofagoen Kudeaketa Plan Bateratua' izapidetzen ari da. EAEko Administrazio Orokorrak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-aldundiek sinatutako plana da, non ondorengo eremu motak definitzen diren:

  - 'Sai zuriaren eremu kritikoak', non habia egiten duten eta etzaleku komunalen eremuak sartzen diren.
  - Hegazti nekrofagoentzako 'interes bereziko eremuak', kasu honetan KBE guztian.
  - Espezie nekrofagoak 'elikatzeko babes-eremuak', kasu honetan ere KBE guztiari dagokio.

Administrazio-baldintzatzaileak:

- Elementu gako hori osatzen duten habitaten azaleraren % 80 titulartasun publikoko lursailetan dago; megaforbioen komunitateen kasuan azalera % 94koa da, harkaitzen kasuan % 87koa, hartxingadien kasuan % 74koa eta larre harritarren kasuan % 64koa.

4. Hezeguneak

. Habitat lenitikoak: 3140, 3150 EB KOD

. Habitat higro-zohikatzak: 7140, 7230 EB KOD

. Lotutako intereseko fauna:

Spiranthes aestivalis, Ranunculus aconitifolius, Apium inundatum, Thelypteris palustris, Utricularia australis, Sphagnum Squarrosum.

. Intereseko lotutako fauna:

- Narrastiak: dortoka istilzalea (*Emys orbicularis*).
- Anfibioak: baso-igel jauzkaria (*Rana dalmatina*), uhandre alpetarra (*Ichtyosaura alpestris*), uhandre marmolairea (*Triturus marmoratus*).
- Ornogabeak: sorgin-orratzak (*Coenagrion mercuriale*).

Kontserbazio-egoera

Habitat lenitikoak:

3140* EB KOD	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Azalera	x			
Egitura eta funtzioak		x		
Etorkizuneko igurikapenak		x		
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

3150* EB KOD	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Azalera	x			
Egitura eta funtzioak		x		
Etorkizuneko igurikapenak		x		
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Habitat higro-zohikatzak:

7140, 7230 EB KOD	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena		x		
Azalera		x		
Egitura eta funtzioak	x			
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Intereseko lotutako flora:

Ranunculus aconitifolius	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa			x	
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera			Txarra	

Utricularia australis	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa			x	
Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera			Txarra	

Sphagnum squarrosum	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			

Populazioa			x	
Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera			Txarra	

Apium inundatum	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa			x	
Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera			Txarra	

Spiranthes aestivalis	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa			x	
Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera			Txarra	

Intereseko lotutako fauna:

Dortoka istilzalea	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa				x
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera				Ezezaguna

Baso-igel jauzkaria	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa				x
Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko igurikapenak	x			
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Uhandre alpetarra	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa				x

Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Uhandre marmolairea	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa				x
Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Coenagrion mercuriale	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa	x			
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko igurikapenak	x			
Kontserbazio-egoera	Aldekoa			

Presioak eta mehatxuak

Zingirak eta hezeguneak:

- Horien landaredia espezie aloktonoen baso-landaketen bidez ordezkatzea, partzialki ala guztiz (B01.02).

- Habitaten konektibitatea murriztea (J03.02).

- Baldintza hidraulikoetan eragindako aldaketak (J02): putzuak betetzea (J02.01.03) eta urak ureztatzeko ponpatzea edo erabiltzea (J02.06.01).

- Kubetetan edo inguruetan pilatutako zaborrak edo hondakin solido inerteak (H05.01), eta ganaduen presioak sortutako zerrenda perimetrala murriztea (A04).

- Golf zelaietako putzuetan (G2.01), baldintza hidraulikoetan eragindako aldaketez (J02) gain, biozidak eta produktu kimikoek (A07) edo ongarriek (A08) sortutako ondorioak, baita uren kutsadura lausoa (H01.05).

Habitat higro-zohikatzak:

- Ganaduen gehiegizko presioa (A04), sortzen dituen hiru ondorioengatik (landaredia larretzea, ezaugarri edafologikoak —G05.01— aldatzea eta eutrofizatzeko arriskua).

- Baldintza hidraulikoetan eragindako aldaketak (J02): eremuak lehortzea (J02.01), hiri-horniketarako (ur-depositua) edo ganaduarentzako (askak) kanalizazioak eta ur-desbideratzeak (J02.03).

- Zingiren aldameneko espezie aloktonoen baso-landaketak (B01.02) eta basogintza-lanak, hala nola arraseko mozketak (B02.02), makinarien inbasioa edo hondakinen isurketak (H01.05).

- Habitaten konektibitatea murriztea (J03.02).

- Basoko pistak hobetzeko lanak (D01.01), zingirako eremuan sortzen duten kutsadurarengatik.

Lotutako flora:

- *Ranunculus aconitifolius.* Ez da mehatxu zuzenik identifikatu.
- *Utricularia australis.* Altubeko putzuetan babesa behar du.
- *Sphagnum squarrosum.* Gunea inguratzen duten konifero exotikoen birlandaketak (B02.01.02). Zapaltzeko aukera asko ditu eta ahula da, ondorioz inguru horretan ganadua egotea mehatxutzat hartzen da (A04.02).
- *Spiranthes aestivalis*. Bere habitatak aldatzea edo desagertzea. Ganadu estentsiboak mesede egin dio hein batean. Udan hezegune txikiak erabiltzen dituen ganaduak (A04.02) zapaldu eta kalte egiten dio.

Lotutako fauna:

- Dortoka istilzalea. Urak aldatzea edo suntsitzea honako arrazoiengatik: nekazaritza-abeltzaintza eremuak zabaltzea (A01), pista edo errepideak sortu edo aldatzea (D01.02), kanalizazioak eta ur-desbideratzeak (J02.03) eta orokorrean hidrografia aldaketak (J02.05). Animaliak harrapatzea (F03.02.01) eta espezie exotiko edo inbaditzaileak kontrolik gabe askatzea (I01, I03.01).
- Anfibioen mehatxu handiena haien habitatak aldatzea, murriztea edo suntsitzea da, bereziki ugalketarako habitatak. Honakoek eragin ditzakete egoera horiek: kanalizazioak eta ur-desbideratzeak (J02.03), zingirak eta putzuak betetzea (J02.01.03), habitatak aldatzea eta horiek inguratzen dituzten zuhaixkak moztea (J03.01), putzuetan zaborrak eta hondakinak pilatzea (E03.01, E03.03). Iondegortako urtegia (J02.06.02) mehatxu aipagarria da, ugalketa-aldian indibiduoen kontzentrazio handien hobia-zuloa baita.

  Ugalketa-guneetan espezie aloktonoak sartzeak (I01) espezie horiek arrarotu ditzake, bereziki Lamiogingo zingirako zamo txikia eta karramarro seinaleduna (*Pacifastacus leniusculus*).

  Badira beste alderdi negatibo batzuk: nekazaritza ustiapenetan edo golf zelaietan ongarri eta produktu fitosanitarioak erabiltzea (A07, A08), uren kutsadura (H01.05, H01.09); ez dakigu zein den A-624 errepideak sor lezakeen inpaktua edo kolpatze kopuru handiko tartea den (D01.02); basogintzatik (B07) ondorioztatutako jarduerek ere eragina izan dezakete, makinek hezeguneak suntsitu baititzakete (D01.01) edota sedimentuen kutsadurarengatik (K01.02).

Beste faktore eta baldintzatzaile batzuk

Parke naturalaren zonifikazioa (NBAP):

- Ekainaren 21eko 227/1994 Dekretuak —Gorbeiako parke naturaleko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana (NBAP) onesten duena— lurraldearen zonifikazioa edo eremu-banaketa agintzen du, eremu bakoitzaren erabilera arautzeaz gain. Zehazki, Altubeko hezeguneak 'erreserba-eremu' gisa sartzen ditu.
- NBAPk soilik 3140 EB KOD eta 3150 EB KOD habitatak identifikatu diren putzu eta beste ur-inguruneko habitaten azaleraren % 41 sartzen du 'Erreserba' kategorian (Monrealgo zingira). Gainerako ia guztiak 'Kontserbazio Aktiboa I' kategorian sartzen ditu (Lamiogin).

  Monrealgo zingirako habitaten mugak aldatu ondoren, bertako azalerako zati bat 'Kontserbazio Aktiboa II' kategorian eta bestea 'Hiriko eremua eta azpiegiturak' kategorian sartu ziren, non zingiraren aldamenean dagoen Zuiako golf zelaia ere sartzen den.

- NBAPk hainbat elementuentzako jarraibideak eta arauak ezartzen ditu, haien artean 'baliabide hidrologikoen babesa' (20. art.) eta 'flora eta faunaren babesa-'rekin (21. art.) lotuta daudenak, non hezeguneak bezalako habitat bakanak sartzen diren.
- Zingira azidofilo eta basofiloak kategoria desberdinetan banatzen dira, baina gehienbat (azaleraren % 43) abeltzaintza-basogintzaren sustapenerako eremuetan daude eta, ondorioz, ez da bermatzen

habitat mota horien babes eraginkorra.

- KBEaren barruan dagoen baina parke naturaleko gaur egungo mugaketatik kanpo dagoen elementu gako horren azalera Kulukupadrako zingirari dagokio (0,25 ha). BGLa zabaltzea proposatu da eremu hori KBEko interes naturaleko eremura batzeko.

Izapidetzen ari diren Kudeaketa Planak:

- EAEn baso-igel jauzkaria (*Rana dalmatina*) kudeatzeko proposamen guztiek diote Altubeko zingirak (Zuia), Troncongo putzua (Urkabustaiz) eta Oketamendiko putzua (Zeanuri) espezie horrentzako 'interes bereziko gune' izendatu behar direla.

- Uhandre alpetarrarentzat (*Mesotriton alpestris*) ere garrantzitsuak dira Altubeko hezeguneak (Zuia) eta Troncongo putzua (Urkabustaiz), baita KBEko beste eremuak ere, hala nola Arrabako zelaiak, Saldropoko hezegunea (Zeanuri) eta Uzkianoko baltsa-putzua (Urkabustaiz).

Administrazio-baldintzatzaileak:

- Lursailen jabegoa: kasu batzuetan, lurzoruaren jabetzaren araubideak baldintzatzen du habitat horiek lehengoratu eta hobetzeko jarduketak egin ahal izatea.

  Gorbeia KBEko Hezeguneen Inbentarioko 133 guneetatik 20 titulartasun pribatuko lursailetan daude, ondorioz kontratu- edo boluntario-izaera duten formulak bilatu behar dira, proposatutako edo eragindako lursailen jabeekin akordio eta konpromisoak bultzatzen dituztenak, edota, hala badagokio, interes naturaleko eremu horiek erosteko neurriak ezarri behar dira.

  Horixe gertatzen da identifikatutako habitat lenitikoen eta higro-zohikatzen kasuetan: habitat lenitiko horien azaleraren % 9,4 lursail pribatuetan dago, zehazki Kulukupadra eta Marakaldako putzuetan, eta habitat higro-zohikatzen azaleraren % 6,6 Zeanuriko udalerriko baso-guneetan dago gehienbat, eta Orozkoko udalerrian kasu batzuetan.

5. Ibai-sistema: errekak, ubideak eta lotutako habitat naturalak

. Batasunaren intereseko habitatak: 3240, 91E0* EB KOD.

. Eskualde-intereseko habitatak: F9.12, F9.2(X) Eunis KOD.

. Intereseko lotutako intereseko flora:

Prunus lusitanica, Thelypteris palustris, Trichomanes speciosum.

. Intereseko lotutako fauna:

- Ibaietako abifauna: martin arrantzalea (*Alcedo atthis*).
- Anfibioak: baso-igel iberiarra (*Rana iberica*).
- Arrainak: loina (*Parachondrostoma miegii*), ibai amuarraina (*Salmo trutta*).
- Ornogabeak: ibai-karramarro autoktonoa (*Austropotamobius itallicus*).

Kontserbazio-egoera

Batasunaren intereseko habitatak:

91E0* EB KOD	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Azalera		x		
Egitura eta funtzioak		x		
Etorkizuneko igurikapenak	x			
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

3240* EB KOD	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena				X
Azalera	X			
Egitura eta funtzioak	X			
Etorkizuneko igurikapenak	X			
Kontserbazio-egoera	Aldekoa			

Uraren kalitatea:

Gorbeia KBEko ibai eta ubideetako uraren kalitatea		
Estazioa	Kalitate fisiko-kimikoa	Kalitate biologikoa
NAL-062	Oso ona	Ona
BAI-084	Oso ona	Ona
ZUN-070	Oso ona	Moderatua

Intereseko lotutako flora:

Prunus lusitanica	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa			x	
Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera			Txarra	

Thelypteris palustris	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa			x	
Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera			Txarra	

Trichomanes speciosum	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna

Hedapena	x			
Populazioa				x
Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Intereseko lotutako fauna:

Martin arrantzalea	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena				x
Populazioa				x
Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Baso-igel iberiarra	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa	x			
Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko igurikapenak				x
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Loina	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena		X		
Populazioa		X		
Espeziearentzat habitata		X		
Etorkizuneko igurikapenak		X		
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Ibai-amuarraina	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	X			
Populazioa		X		
Espeziearentzat habitata		X		
Etorkizuneko igurikapenak		X		
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Austropotamobius itallicus	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna

Hedapena			x	
Populazioa				x
Espeziearentzat habitata			x	
Etorkizuneko igurikapenak			x	
Kontserbazio-egoera			Txarra	

Presioak eta mehatxuak

Ibai-jabarietako baso-landaketek (B01.02, J03.02) Gorbeia KBEko ibai eta erreken lur- edo ibai-korridorearen jarraikortasuna baldintzatzen dute, ibarbasoetako landaredia partzialki edo guztiz ordezkatzen baitute. Horretaz gain, ganaduaren presioak (A04) eragindako oihanpearen (B02.03) eta zeharkako zerrendaren (J03.01) murrizketek ere tarte batzuetan ibarbasoa baldintzen dute. Aldaketa morfologikoek ere eragina dute ibarbasoan, hala nola JPH okupatzeak sortutako bideratzeak eta hainbat egiturek (D01.02), batez ere A-624 eta Altube ibaia lotzen diren tarteetan.

Altube ibaiaren kasuan, azpiegiturek ez diete soilik ibai-korridoreari eragiten, baizik eta lur-korridore osoari. KBEaren eremuko eta inguruko errepideetan kolpatze asko gertatzen diren tarte ugari identifikatu dira, hala nola AP-68, A-624, N-240, A-3608 eta A-2521.

Undabeko errekako kalitate biologikoa zertxobait baxuagoa da emari baxua dagoenean kutsadura organikoko arazo batengatik (H.01), eta horren jatorria Ubideako EDARean (ur zikinen araztegia) dago.

KBEko emariak ponpatzeak eta hartzeak (J02.06.02) ibai-sistemaren funtzionamendu ekologiko egokia mehatxatzen du, baita ur-inguruneetara lotutako habitatak ere.

Goi Baiako hornikuntza-proiektua definizio fasean dago eta haren helburua Zuia eta Urkabustaizeko udalak urez hornitzea da. Hasierako proposamenetan, proiektuak Goi Baian bi ur-hartze aipatzen ditu, Arralde eta Larreakortako erreketan. Grabitateari esker, emari nahikoa eskainiko lukete Zaroko presa erregulatzailea arte, KBEaren barruko hegoaldeko mugan dagoena.

Lotutako espezieei dagokienez, aipatutako espezieentzat ondorengo presio zehatzak aurkitu dira:

Prunus lusitanica. Bere kokapenaren inguruan basogintza (B02) mehatxu izan daiteke.

Thelypteris palustris. Bizi den (Altubeko putzuak) urertzei edo emariei eragiten dien edozein jarduketak espeziea desagerrarazi lezake. Kasu honetan, errepidea aldatzeak edo handitzeak populazioarengan eragina izango luke (D01.02).

Trichomanes speciosum. Orokorrean, basogintza (B02) maiz intentsiboko lekuak dira, eta ondorioz emariak aldatzen dira pistak gurutzatzeagatik (D01.01), edo ibarbasoko zuhaitzak moztu edo puskatzeagatik (B02.02). Batzuetan emari txikiak mozketen hondarrekin buxatzen dira, hortaz populazio batzuentzat arriskua handiagoa da.

Alcedo atthis. Honakoek sortzen dituzte presio nagusienak: nekazaritza edo basogintza jarduerek eragindako lurrazaleko uren kutsadura (H01.05), baso-lanengatik habitatak aldatzea (B02.02, B02.04, B02.06), baldintza hidraulikoetan eragindako aldaketak (J02), hala nola kanalizazioak eta ur-desbideratzeak (J02.03), edota gune zehatz batzuetan bainuak bezalako laket-jarduerek sortutako eragozpenak (G01.01.02).

Parachondrostoma miegii eta *Salmo trutta*. Ibai-sarean dauden zeharkako oztopoak ur-faunaren migrazioari eragiten diete (J03.02.01) eta ibai-sarearen iragazkortasun ekologiko zuzena baldintzatzen duten faktore nagusiak dira. Guztira 28 oztopo aurkitu dira Baia, Altube eta Zubialde ibaietan, horietatik 23 'Iragazkortasun txarrekoak' gisa sailkatuak. Deigarria da KBEan Baia ibaian hainbeste oztopo egotea, gehienbat hormigoizko hodien bidez urak goialdetik KBEko mugetatik kanpoko uretara eramateak sortuak. Hobiek gutxienez 12 aldiz gurutzatzen dute emaria. Era berean, fauna exotiko inbaditzaileak (I01) larriki mehatxatzen ditu populazio horiek. Adibide gisa lutxo arrunta (*Esox lucius),* eguzki arraina *(Lepomis gibbosus)* eta perka amerikarra *(Micropterus salmoides)* ditugu; Urrunagako urtegian daude eta loina, amuarraina, ezkailua etab. bezalako arrain autoktonoen harrapari zuzenak dira.

Austropotamobius itallicus espeziearentzako presio eta mehatxuak, orokorrean, elementu gakorako aipatutakoen berak dira, eta, bereziki, espezie exotiko inbaditzaileak egotea (I01), hala nola karramarro seinaleduna (*Pacifastacus leniusculus*).

Azkenik, aipatu beharra dago ibaietako arrainen eta karramarroen kasuan, zenbait laket-jarduera mehatxu izan daitezkeela, bereziki animaliak biltzea eta harrapatzea (F03.02.01) edota ezkutuko jarduerak (F03.02.03).

Beste faktore eta baldintzatzaile batzuk

Parke naturalaren Zonifikazioa (NBAP):

- NBAPk ez du eremu zehatza definitzen ibai-sistemarako.
- Haltzadi-lizardiak (91E0* EB KOD) lehentasunezko elementuaren azaleraren % 33,5 babes txikiagoa duten eremuetan daude (abeltzaintza-basogintzaren sustapena, landazabala eta hirilurra).
- Sahasti harritsuaren (3240 EB KOD) % 90 inguru 'erreserba-eremuan' sartuta dago, Oiardo errekari dagokion eremuan. Elementu gako horren zati bat kategoria horretatik at geratzen da, agiri hau egin bitartean azalera aldatu baitute.
- Parke naturalekoa ez den elementu gakoaren azalera bateratua 5 ha-koa da, eta zatirik handiena 91E0* EB KOD kodeari dagokio, Zestafe (Zigoitia) kontzejuko Onura publikoko mendian dagoen haltzadia; BGLaren jatorrizko mugaketan txertatu zen.

Kantauri ekialdeko eta Ebroko Mugaketa Hidrografikoko plan hidrologikoak:

- Naturagune Babestuen Erregistroetan KBEan dauden elementu hauek sartu dira: hornidurarako ur-hartuneko eremuak (gainazalekoak eta lurpekoak), ibai-erreserba naturalak (Baia, Undabe eta Altube ibaietako tarteak), natura- eta ingurumen-intereseko tarteak (Aldabideko ur-jauzia, Baia, Oiardo eta Altube ibaietako tarteak).

Kudeaketa- edo berreskuratze-planak:

- Arabako Foru Aldundiak espezie mehatxatuak kudeatzeko planak onetsi ditu, eta aplikazio-eremuan Gorbeiako sare hidrografikoko tarte nagusiak daude. Araban, Gorbeiako sare hidrografikoa mazkar arantzadunaren (*Cobitis calderoni*)[4], iparraldeko katxoaren (*Squalius pyrenaicus*)[5] eta ibai-kabuxaren (*Salaria fluviatilis*)[6] 'Lehentasunezko distribuzio-eremuen' barruan dago.
- Baso-igel iberiarraren (*Rana iberica*) kasuan, honako hauek bildu ziren espezie honetarako 'interes bereziko eremu' gisa garai bateko kudeaketa-planen proposamenetan: Altubeko arroak (Oiardo, Katxanbiano, Corraladas, Zuia eta Urkabustaiz), Arratiako arroko ubideak, Larreakorta eta Padrobasoko (Baia) arroetako ubideak, eta Zubialdeko arroko ubideak.
- *Prunus lusitanica*k ere badu Berreskuratze Plana, Eusko Jaurlaritzak 2011n eginikoa. Bertan, honako mugaketa hau jaso da, espeziea KBEan kontserbatu eta berreskuratzeko:
  - Kontserbazio-gunea: kontserbazio-gunea 15 metroko erradioko buffer batek ale bakoitzaren inguruan mugatutako gunea da.
  - Berreskuratze-guneak: berreskuratze-gunea 17 metroko erradioko buffer batek mugatutako gunea da, espeziea dagoen ubidetik aurrera (Katxanbiano erreka). Bufferraren zabalera honela banatzen da: 2 metro buffer bi aldeetan, ubidearen ibilgu-mugarriztatzea zehazten dutena; eta 15 metro buffer bi aldeetan, mugarriztatzetik aurrera, ibilgua babesteko gunea ezartzeko.

  Nola kontserbazio-gunea hala berreskuratze-gunea 'Kontserbazio Aktiboko II Eremuan' daude, parke naturalaren NBAPn ezarritako zonifikazioari jarraikiz, eta ez da babes bereziko gunerik mugatu.

Administrazio-baldintzatzaileak:

Ur-erabilerarako eta -aprobetxamendurako indarrean dauden administrazio-emakidak: zenbait kasutan, ahitze-mailakoak ez diren ur-erabileretarako indarrean dauden emakidek nahikoak suertatzen ez diren ustiapen-baldintzak dituzte ibai-sistemarekin lotuta dauden espezieen eta habitaten kontserbazioaren egoera ona ziurtatzeko, eta horietako batzuk KBEko elementu gakotzat jotzen dira.

- Lursailen jabetza: kasu batzuetan, lurzoruaren jabetzaren araubideak baldintzatzen du habitat horiek lehengoratu eta hobetzeko jarduketak egin ahal izatea. Elementu gako honi esleitutako habitaten azaleraren herena baino zertxobait gehiago, zehazki, % 36, titulartasun pribatuko lursailetan dago; dena den, aintzat hartu behar da azalera horren zati bat Jabari Hidrauliko Publikokoa dela. 3240 habitataren kasuan, azaleraren % 98 titulartasun publikoko lursailetan dago. Ehuneko hori, ordea, nabarmen txikiagoa da 91E0* habitataren kasuan, azaleraren % 55 inguru baitago lursail publikoetan.

5.2.– PRESIOEN ETA MEHATXUEN SINTESIA

Atal honetan, Gorbeia KBEaren eremuak jasaten dituen presio eta mehatxu nagusien sintesia jaso da. Presioen eta mehatxuen azterketa eta balorazio hau egiteko, honako hau guztia hartu da oinarritzat: diagnostiko honetan orain arte emandako informazioa, agiri hau idatzi duten teknikoek landa-lanean eginiko behaketak, bi foru-aldundiek eta parke naturaleko zaindariek emandako informazioa, eta 2014ko ekainean eginiko parte-hartze publikoko lantegietan parte hartu zuten beste eragile batzuek emandako informazioa.

Atxiki den taula presioen balorazio osorako matrizea da; horretarako, eremuak egun jasan ditzakeen mehatxuak identifikatu dira, baita presio horietako bakoitzak eragiten dion inguruko aldagaia ere.

Kontuan hartu diren inguruko aldagaiek pairatzen dituzten presioak identifikatzeaz gain, presioaren balorazio osoa ere egin da.

Presio handia (nabarmena)	Inguruak inpaktua jasateko probabilitate handia dago
Presio ertaina (nabarmena)	Inguruak inpaktua jasan ahal izateko halako probabilitatea dago
Presio txikia (ez da nabarmena)	Inguruak inpaktua ez jasateko probabilitate handia dago

Tabla 4.1: Gorbeia KBE ko funtsezko elementuen presio eta mehatxuak						
Presio eta mehatxuak		Aldagaiak				
Jarduera mota	PRESIOA/MEHATXUA	Habitaten estaldura	Habitaten kalitatea	Konektagarritasuna/ Iragazkortasuna	Espezieak	Orokorra
Nekazal eta abeltzaintza jarduera	Laborantza	Presiorik ez	Presiorik ez	Presiorik ez	Baxua	Presiorik ez
	Sega belardiak	Baxua	Presiorik ez	Baxua	Baxua	Baxua
	Ukuiluratutako azienda	Presiorik ez	Baxua	Presiorik ez	Presiorik ez	Presiorik ez
	Artzaintza	Ertaina	Baxua	Baxua	Handia	Ertaina
	Ongarrien erabilera (N, P)	Baxua	Baxua		Baxua	Baxua
	Belar-pozoien erabilera	Baxua	Baxua		Baxua	Baxua
	Flora inbaditzailea		Ertaina		Baxua	Baxua
	Zanpaketa / higadura	Baxua	Ertaina		Baxua	Ertaina
	Abelzaintza gainkarga	Ertaina	Ertaina		Moderada	Ertaina
	Sastraka garbiketak edo desbrozeak	Ertaina	Baxua		Baxua	Baxua
	Abelzaintza gainkargaren murrizketa	Ertaina	Ertaina		Baxua	Ertaina
	Artzaintza basoetan		Baxua		Baxua	Baxua
Basogintza jarduera	Baso landaketak	Handia	Ertaina	Handia	Ertaina	Handia
	Baso soilketa	Baxua	Ertaina	Ertaina	Baxua	Ertaina
	Egurra ateratzea	Ertaina	Ertaina	Handia	Ertaina	Ertaina
	Ohianpearen ezabapena		Ertaina	Ertaina	Ertaina	Ertaina
	Flora exotiko inbaditzailea		Baxua		Baxua	Baxua

Tabla 4.1: Gorbeia KBE ko funtsezko elementuen presio eta mehatxuak

Presio eta mehatxuak		Aldagaiak				
Jarduera mota	PRESIOA/MEHATXUA	Habitaten estaldura	Habitaten kalitatea	Konektagarritasuna/ Iragazkortasuna	Espezieak	Orokorra
	Belar-pozoiak / egurraren tratamendu kimikoa	Baxua	Ertaina	Baxua	Ertaina	Ertaina
Hornikuntza	Ubidera itzulerarik ez duen ur emaria desbideratu	Ertaina	Ertaina	Ertaina		Ertaina
	Ubidera itzulera duen ur emaria desbideratu		Baxua	Ertaina		Ertaina
	Ur emaria desbideratzeko kanalak	Baxua		Handia	Ertaina	Handia
	Presa txikiak			Handia	Ertaina	Handia
Azpiegiturak	Errepideak / Autobideak	Handia		Handia	Ertaina	Handia
	Basoko pistak	Ertaina		Ertaina	Ertaina	Ertaina
	Babesak eta ur kanalizazioak	Ertaina	Ertaina	Ertaina	Baja	Ertaina
	Zubiak (zaharberritza lanak)	Baxua		Baxua	Ertaina	Baxua
	Ur jabari publikoaren bestelako erabilerak	Baxua		Baxua		Baxua
	Argindarraren hariteria	Baxua		Ertaina	Ertaina	Ertaina
	Eraikuntzak (aterpeak, txabolak)	Presiorik ez	Baxua		Baxua	Baxua
	Aisialdi guneak	Baxua	Baxua	Baxua	Baxua	Baxua
Turismoa, aisia eta ingurumen jarduerak	Ongarriak/Belar-pozoiak (Golf)	Ertaina	Ertaina		Ertaina	Ertaina
	Eragozpenak hegaztien ugalketa guneetan		Baxua		Ertaina	Ertaina
	Eragozpenak saguzarren hitzuloetan		Ertaina		Ertaina	Ertaina

Tabla 4.1: Gorbeia KBE ko funtsezko elementuen presio eta mehatxuak						
Presio eta mehatxuak		Aldagaiak				
Jarduera mota	PRESIOA/MEHATXUA	Habitaten estaldura	Habitaten kalitatea	Konektagarritasuna/ Iragazkortasuna	Espezieak	Orokorra
	Flora zapaldu edo andeatu	Baxua			Handia	Ertaina
	Produktu naturalak jaso	Ertaina	Ertaina		Ertaina	Ertaina
	Isilpeko jarduerak (espezieak harrapatu / askatu)				Ertaina	Ertaina
	Ibilgailuen zirkulazioa		Ertaina	Ertaina	Ertaina	Ertaina
Jarduera zinegetikoak	Ehiza kontrolatua	Baxua	Baxua		Baxua	Baxua
	Arrantza	Presiorik ez	Presiorik ez		Presiorik ez	Presiorik ez

6.– KONTSERBATZEKO XEDEAK ETA ARAUAK

Aipatutako xedeak kontuan harturik, Gorbeia ES2110009 Kontserbazio Bereziko Eremua izendatzean giltzarritzat jotzen diren Batasunaren intereseko habitat eta espezieak kontserbatzeko neurriak, arauzkoak direnak, azalduko dira jarraian.

Hortaz, atal honek, babestutako eremuan aplikatuko diren berariazko arauak garatzeko xedea duten erregulazioak jaso ditu, naturagune babestuetako eta Natura 2000 Sareko babes-neurri orokorrak baino haratago doazenak. Oro har, administrazio publikoei eta lekuaren erabiltzaileei zuzendutako erregulazioak dira.

Dokumentu honen ondorioetarako, «erregulazio»tzat hartzen da kontserbazio xedeak lortzeko beharrezkoa den betebehar-, debeku-, baldintzatzaile- eta xede-multzoa.

ERREGULAZIO OROKORRAK

Erregulazioak	**E.1.-** *Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearen* 45.2 artikuluan eta *Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen 1/2014 Legegintzako Dekretuaren* 13. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Natura 2000 Sareko tokiak Naturagune babestuak dira. Lurralde-antolamenduko tresnek eta hirigintza-plangintzak egoera hori islatuko dute, eta ziurtatuko dute toki horietan natura-habitaten motak eta eremu horietako espezieak kontserbatuko direla; horretarako, agiri honetan finkatzen diren kontserbazioko xedeak eta neurriak txertatuko dira. **E.2.-** *Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bategina onartzen duen 1/2014 Legegintzako Dekretuaren* 19.2 artikuluan ezartzen denaren ondoreetarako, Gorbeia Naturagune babestua (NB) Babeserako Eremu Periferikoa zehaztu da; 100 metroko zabalera duen babes-banda bat da, guneko kanpoko mugatik neurtu dena, NBaren Mugarriztatze Mapan jaso den moduan. Eremu horretatik kendu behar dira udal hirigintza-planetan landa-nukleotzat eta hiri-lurzorutzat jotzen direnak. Zehaztu den Babeserako Eremu Periferikoan, Habitaten Zuzentarauaren 6.2 eta 6.3 artikuluetako prebentzio-araubideak jardungo du, baita eremu horri dagozkion eta agiri honetan ezarri diren babes-arauak ere. **E.3.-** *Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearen* 45. artikuluan xedatutakoa aplikatzeko, izan banaka izan beste plan edo proiektu batzuekin batera, nahiz eta Gorbeia NBaren kudeaketarekin harremana ez izan edo horretarako beharrezkoa ez izan, behar bezala ebaluatuko dira modu aipagarrian eragin diezaiokeen edozein plan, programa edo proiektuk bertan izan ditzakeen ondorioak, bertako kontserbazio-xedeak aintzat hartuta. Ebaluazio horren ondorioak ikusita eta aipatu 45. artikuluko 5. atalean xedatutakoaren mende egonda, planak, programak edo proiektuak onetsi edo baimentzeko organo eskudunek horiekin bat datozela adierazi ahal izango dute kasuan kasuko tokiaren osotasunari kalte egingo ez diola ziurtatu ondoren soilik, eta hala badagokio, jendaurrean ikusgai jarri ostean. **E.4.-** Debekatuta dago ehiza- edo arrain-faunako espezieak edo barietateak askatzea edo horiekin birpopulatzea, ekimena pribatua zein publikoa izanik, baldin eta mehatxua izan badaiteke NBan dauden Batasuneko edo eskualdeko intereseko espezieetarako.

Fauna NBan nahi gabe edo legez kanpo sartuz gero, ez da ehiza- edo arrain-aprobetxamendua baimenduko, eta espezieak kontrolatzeko neurri egokiak hartuko dira, horiek desagerrarazteko asmoz. Dena dela, kasu bietan, nahitaezkoa izango da organo kudeatzailearen txostena.

E.5.- Kirol-ekitaldi orok organo kudeatzailearen baimena izan beharko du, esaterako, mendi-lasterketek, orientazio-lasterketek, mendi-ibilaldiek eta beste batzuek, baita zati bat edo osorik NBaren eremuan egiten den erabilera publikoko merkataritza-jarduera orok ere.

Baimenak jardueren ibilbidea baldintza dezake, NBko kontserbazio-elementuen eta zonifikazioko eskakizunen arabera; babes bereziko eremuak ekidin beharko dira (Erreserba Integrala, Erreserba, Babesekoak edo espezieak babesteko beste eremu zehatz batzuk). Era berean, baimenak guneei eta kontserbazio-elementuei eragin diezaieketen afekzioak identifikatuko du, behar diren neurri prebentiboak eta zuzentzaileak ezarriko ditu, eta jarduerak elementu gakoetan duen inpaktuaren jarraipen-protokoloa diseinatuko du.

E.6.- Organo kudeatzaileak kontserbazio-lurraren jabeak eta erabiltzaileak tartean sartzen dituzten kudeaketa-formulak bultzatzuko ditu, NBko balioak eta natura-baliabideak egoki erabiltzeko engaia daitezen. Ildo horretatik, formulak bultzatuko ditu sektore pribatuak eta udalek NBa kontserbatzeko finantza- edo kudeaketa-jarduketetan parte hartzea errazteko, baita herritarrek laguntzea ere, jarduketak gauzatzean boluntario gisa parte hartuta. Azken finean, lursail-zaintzako borondatezko akordioak sustatuko dira, jabeen, zaintza-erakundeen eta beste eragile publiko eta pribatu batzuen arteko etengabeko lankidetzaren alde egiten dutenak.

E.7.- Organo kudeatzaileak Europako Batzordeak definitutako Batasuneko kofinantzatze-bideak aplikatuko ditu, besteak beste, Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) eta Hegaztiak Babesteko Eremu Bereziak (HBBE) izendatzeko xedeak erdiesteko behar diren kontserbazio-neurriak eraginkortasunez gauzatzeko asmoz.

E.8.- Organo kudeatzaileak Gorbeia NBari eragiten dioten eragile eta sektoreen (nekazaritza, abeltzaintza, basoa, ehiza, turismoa, etab.) prestakuntza, sentsibilizazioa eta aholkularitza indartuko ditu, Naturagune babestu horretarako planteatu diren kontserbazio-xedeak lortzeko, baita KBE izendatzean hartzen diren kontserbazio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko helburua erdiesteko ere.

E.9.- Informazio- eta sustapen-jarduketak biltzen dituen Komunikazio Plan bat definituko da, eta Batasuneko laguntzen eta beste laguntza publiko batzuen onuradun izan daitezkeenei zuzenduko zaie, KBErako ezarri diren kontserbazio-xedeak erdiesten lagun dezaketen neurriak aplikatze aldera.

E.10.- Era berean, eta aurreko epigrafeetan adierazitakoari eragin gabe, organo kudeatzaileak neurriak bultzatuko ditu Administrazioak balio ekologiko handiko lursailak eskuratzeko, errentan hartzeko, horien gaineko gozamen-eskubideak izateko, zortasuna lortzeko edo antzeko beste figura batzuk sortzeko, batik bat oso mehatxatuta dauden NBko elementu gakoetarako puntu kritikoak dauden edo puntu kritikoak diren lursailak badira, edota aukera-irizpideak direla-eta gomendagarria bada.

E.11.- *Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearen* 46. artikuluarekin bat etorriz, dagozkion ahaleginak egin behar dira Natura 2000 Sarearen kanpoko eta barneko koherentzia ekologikoa kontserbazioaren bidez hobetzeko, eta hala badagokio, migraziorako, distribuzio geografikorako eta basa-fauna zein -florako espezieen populazioen arteko truke genetikorako funtsezkoak edo garrantzi handi-handikoak diren paisaiako elementuak eta lurralde-eremuak garatuz; hortaz, helburu hori lortzera bideratuta dauden neurriei erreparatu behar zaie.

Hartara, hala Gorbeia NBaren eremuan nola NB horren eta Natura 2000 Sareko gainerako guneen arteko lotura ekologikoko eremuetan, neurri zehatzak hartuko dira konektibitate ekologikoaren alde egiten duten lurraldeko elementuak babesteko edo berreskuratzeko (ibaiertzetako landaredia, baso-espezie autoktonoetako zuhaiztiak, hesi naturalak lursailetako mugetan eta landa-bideetako ertzetan, etab.). Gorbeia NBrekin lotzeko korridore ekologikoak diren eremuetan, Habitaten Zuzentarauaren 6.2 eta 6.3 artikuluetako prebentzio-araubideak jardungo du. Xede horretarako egoki suertatzen diren finantzatze-bideak ezarriko dira.

E.12.- Organo kudeatzaileak NBn egingo diren ikerketa-jarduerak bultzatuko ditu, babestutako gunean kontserbazio-jarraibideak ezartzeko eta biodibertsitatearen kontserbazio-egoera zehazteko eta jarraipena egiteko erabiliko diren proiektuak lehenetsiz. Ziurtatuko da ikerketa-, plangintza- eta kudeaketa-azterlanen prozesuak, faseak eta emaitzak dibulgatuko direla.

E.13.- Administrazio publikoek garatzen dituzten ingurumen-heziketako programek Natura 2000 Sareari eta Batasunaren edo eskualdearen intereseko habitaten eta espezieen balioari buruzko ezagutza hobetzeko edukiak jasoko dituzte, eta gizarteak biodibertsitatea kontserbatzeko eta babesteko beharraren inguruan kontzientzia hartzea izango dute xede.

Programa horien hartzaileak herritarrak izango dira, oro har, eta NBaren eremuan garatzen diren erabilerekin eta jarduerekin zerikusia duten sektoreetako langile teknikoak ere bai.

Orobat, NBaren kudeaketarekin lotuta dauden administrazioetako langile teknikoei ere helaraziko zaizkie Natura 2000 Sareari buruzko komunikazio- eta sentsibilizazio-jarduketak, baita Orientatzeko irizpideak, Erregulazioak eta Kudeaketa Neurriak erdiesteari buruzko informazioa ere.

E.14.- Organo kudeatzaileak zaintza-plana egingo du KBEko eremuan, baimenduta ez dauden erabilerak eta praktikak saihesteko, baldin eta tokia izendatzeko arrazoi diren habitaten eta espezieen kontserbazio-xedeak arriskuan jar baditzakete.

E.15.- Organo kudeatzaileak turismo jasangarriko politika berriak martxan jartzea sustatuko du, natura-turismoa sustatzea eta garatzea bateragarria izan dadin naturaguneko babes-helburuekin.

E.16.- Organo kudeatzaileak turismo Jasangarriko Europako Ziurtagiria (TIEZ) eskuratzeko aukerari buruzko azterketa diagnostikoa egingo da; aipatutako ziurtagiria turismo jasangarriaren printzipioak borondatez aplikatzeko konpromisoan oinarritzen da, eta naturagune babestuen kudeatzaileei eta enpresei zuzenduta dago, estrategiak partaidetzan defini ditzaten.

E.17.- Espezie inbaditzaile aloktonoek dakarten biodibertsitate-galera ekiditeko xedez, espezie horiek desagerrarazi edo kontrolatzeko jarduketak egingo dira, bereziki bertako kontserbazio-xedeak hein handiagoan arriskuan jar ditzaketen espezieen kasuan (*Cortaderia selloana*, *Pacifastacus leniusculus*, *Trachemys scripta*, *Carassiuss auratus*, etab.).

E.18.- NBan, sua modu estentsiboan erabiltzea debekatzen da, Gorbeiako parke naturalaren NBAParen 11. artikuluak ezarritako modu eta baldintzei jarraikiz.

E.19.- fauna eta floraren populazioa kontserbatzeko helburuekin bateragarria izan beharko du, baita NBan kontserbatu nahi diren habitatenekin ere. Ildo horretatik, ehizaren aprobetxamendua urtero arautzen duten dekretu eta foru-aginduek unean-unean beharrezkotzat jotzen diren aldaketak jasoko dituzte, adierazitako kontserbazio-helburura egokitzeko.

Ehiza-jarduerak espezie mehatxatuen gaineko eragin zuzena, arriskuak edo trabak ekartzea saihesteko eta eremua kontserbatzeko helburuekiko bateragarritasuna bermatzeko neurriak hartuko dira.

XEDE ETA ERREGULAZIO PARTIKULARRAK KBEko ELEMENTU GAKOAK DIRELA ETA

1. Baso naturalak eta erdi-naturalak	
Xedeak eta erregulazioak	
1. azken xedea	NBko baso naturalen kontserbazio-egoera hobetzea: - Baso naturalek hartutako azalera handitzea. - Baso-masa autoktonoen egitura eta konposizioa hobetzea. - Onenen kontserbatutako guneen egungo egoerari eustea. - Mehatxatuta dauden flora- eta fauna-espezieen kontserbazioa, populazio-bilakaera eta bideragarritasuna ziurtatzea.
Oro har, Gorbeia parke naturalaren NBAPn jasota dauden erregulazioak aplikatuko zaizkie NBko baso naturalei, hala *Basogintza*ri oro har dagozkionak (NBAPko 12. artikulua) nola NBAPko II. kapituluan (Erabilerak eta jarduerak aldeka antolatzeko arauak, 25-33 artikuluak) ezarritakoak. Elementu gako hau osatzen duten eta Itxinako mendimultzoan dauden habitaten kasu zehatzerako, Babestutako biotopoari buruzko arauak aplikagarri dira, *Itxinako mendimultzoa babestutako biotopo deklaratzen duen uztailaren 11ko 368/1995 Dekretuaren* 3. artikuluan ezartzen denaren arabera. Arestian adierazitakoari eragin gabe, honako erregulazio partikular hauek aplikatuko dira.	
1.1 xede operatiboa	Baso naturalek hartutako azalera osoa handitzearen alde egitea
Erregulazioak	Ibai-sistema elementu gakoaren baso-aprobetxamenduetan habitat erriparioak babesteari buruzko erregulazioa aplikatu behar da. **1.E.1.-** Baso-erregulazio hauek aplikatu behar dira NBAPko II. kapituluan ezarritako eremuetan.

Zonifikazioa	**Baso-erregulazioak**
Erreserba integraleko eremuak	Zuhaitz-masari eustea; horretarako, baso-jarduerak mugatuko dira, eta zaintza, suteen aurkako babesa edo salbuespenezko beste neurri batzuk besterik ez da onartuko.
Erreserba-eremuak	Zuhaitz-masari eustea; horretarako, baso-jarduerak mugatuko dira, eta zaintza, suteen aurkako babesa edo salbuespenezko beste neurri batzuk besterik ez da onartuko. Baso-masaren iraunkortasuna arriskuan badago, salbuespena egingo da eta mozketa kontrolatuak egin ahal izango dira, osasun-mailakoak edo birsorkuntza naturalerako mesedegarri direnak.
Babes-eremuak	Zuhaiztia dagoen eremuetan, zuhaitz-masari eustea; horretarako, baso-landaketetan erabiltzen denaren % 25, gutxienez, zuhaitz hostozabal autoktonoak izango dira. 60 urteko gutxieneko txandako zuhaitz-espezieak erabiltzea landaketetan.

	Zuhaiztia ez dagoen eremuetan, baso-landaketetan erabiltzen denaren % 50, gutxienez, zuhaitz hostozabal autoktonoak izatea. 60 urteko gutxieneko txandako zuhaitz-espezieak erabiltzea landaketetan.
Kontserbazio aktiboko I eremuak	Zuhaitz-masari eustea; horretarako, beharrezko suertatzen diren baso-landaketak egingo dira zuhaitz-estalkiaren pean, eta eremuan dauden zuhaitz-espezie autoktonoak soilik erabiliko dira.
Kontserbazio aktiboko II eremuak	Zuhaiztia dagoen eremuetan, zuhaitz-masari eustea; horretarako, mozketaren ondoren, baso-landaketetan erabiltzen denaren % 15, gutxienez, espezie autoktonoak izango dira.
	Zuhaiztia ez dagoen eremuetan, baso-landaketetan erabiltzen denaren % 30, gutxienez, espezie autoktonoak izatea.
Aurrerapen ekologikoko eremuak	Arraseko mozketak debekatzea, eta berez birsortutako zuhaiztia errespetatzen duten mozketa selektiboekin ordeztea. Zuhaitz-masari eustea; horretarako, baso-landaketetan erabiltzen denaren % 30, gutxienez, espezie autoktonoak izango dira. 60 urteko gutxieneko txandako zuhaitz-espezieak erabiltzea landaketetan. Bazka-guneetan, kimuen aprobetxamendurako egokiak diren hostozabalen zuhaitz-landareak instalatzea.
Landazabaleko eremuak	Debekatuta dago landaredia desagerraraztea hesi naturaletan eta ezpondetan, behar bezala justifikatuta eta berariaz baimenduta dagoen kasuetan izan ezik. Debekatuta dago zuhaitz hostozabalen zuhaiztiak desagerraraztea. Zuhaiztia ez dagoen eremuetan, baso-landaketetan erabiltzen denaren % 30, gutxienez, espezie autoktonoak izatea.

1.E.2.- Gutxienez, baso autoktonoaren egungo masei eutsiko zaie, eta baso horiek KBEaren barruan hartzen duten azalera handitzera joko da, bereziki zona hauetan: Onura Publikoko Mendietan (OPM), eta Erreserba Integraleko, Erreserbako, Babeseko, Kontserbazio Aktiboko I eta Aurrerapen Ekologikoko eremuetan.

1.E.3.- Baso naturalen egungo azalera handitzera eta egitura zein funtzioak hobetzera bideraturiko jarduketak egingo dira; hala, naturaguneko masa basotsu autoktonoen kontserbazioaren zein bilakaera naturalaren alde egingo da.

1.E.4.- Debekatuta dago arraseko mozketak egitea eta erabilera aldatzea Batasunaren intereseko habitat basotsuetan; NBan dauden baso autoktono guztietara hedatzen da debekua. Halaber, debekatuta dago NBko baso autoktonoetako edozein zuhaitza moztea organo kudeatzailearen berariazko baimenik gabe; debekua ibaiertzetako zuhaixka, heskai eta elordi menditar guztietara hedatzen da.

1.E.5.- Ez da baimenduko landaketa berriak egitea baso-espezie aloktonoekin, KBE izendatzean beste erabilera bat zuten Onura Publikoko Mendietako lursailetan; bereziki, ezingo da egin bertakotzeko eta ugaltzeko gaitasuna duten espezie inbaditzaileekin. Hala, OPM horietako birpopulatzeek espezie autoktonoak eta eskualde biogeografiko bakoitzeko komunitateetako landaredi-serieetan oinarritutako landaketa-moduluak erabiliko dituzte.

	1.E.6.- Birlandatutako konifera-masak zuhaitz hostozabal naturalekin ordezkatuko dira pixkanaka. Horretarako, borondatezko akordioak egingo dira baso-lursailen jabeekin, zeinetan zuhaitz hostozabalak landatzea eta hariztien zein baso mistoaren zuhaiztiak eta zuhaixka-formako heskaiak kontserbatzea sustatuko den.
1.2 xede operatiboa	Baso-masa autoktonoen naturaltasuna, heldutasuna eta egiturazko konplexutasuna hobetzea. Onenen kontserbatutako guneen egungo egoerari eustea.
Erregulazioak	**1.E.7.-** Baso-baliabideen antolamendu-planak eta mendien antolamendurako proiektuak edo plan dasokratikoak onetsiko dira NBaren osotasunari kalterik eragingo ez diotela egiaztatzen bada soilik; horretarako, eta hala badagokio, ingurumen-inpaktuko ebaluazioaren prozedura aplikatuko da. **1.E.8.-** Oro har, gaztainadietan, erkameztietan eta artadietan ez da baimenduko habitataren azalera txikiagotzea dakarten edo egiturazko konplexutasuna arriskuan jartzen duten baso-aprobetxamenduak egitea egur-sorten eskaerekin lotutakoak edo zuhaitz-masak leheneratzeko diren bestelako basoko neurriak (erresalbeoa, etab.), salbu eta baldin eta zuhaitz-masaren heldutasuna eta egiturazko konplexutasuna behar bezala garatuko direla ziurtatzen bada. Edozein kasutan ere, organo kudeatzaileak aurrez baimendu beharko ditu jarduketa horiek. **1.E.9.-** Baso-baliabideen antolamendu-planek eta mendien antolamendurako proiektuek edo plan dasokratikoek jarraian adieraziko diren irizpideak bete beharko dituzte: **a)** Baso-kudeaketa indartzea ingurune naturala kontserbazio- eta jasangarritasun-irizpideei jarraikiz, eremuan dauden masa basotsu autoktonoen kontserbazioaren zein bilakaera naturalaren alde jardutea. **b)** Eremuan dauden baso-masak baso naturalak bilakatzea sustatuko da, bertako landaredi-seriea izan daitekeenari dagozkion espezie autoktonoekin. **c)** Mendiaren ezaugarriek ahalbidetuz gero, 9160 EB KOD harizti subatlantiar mesotrofoen habitatak leheneratzeko azaleren mugaketa sartuko da, abandonatutako larreak edo, batez ere, konifera-landaketak abiapuntu hartuta. **d)** Batasunaren intereseko habitatak osatzen dituzten masa naturalen egiturazko konplexutasuna eta dibertsitatea handitzeko neurriak izan, bereziki, pagadi, harizti, amezti eta gaztainadienak; horretarako, adinak masan zehar banatuko dira askotariko eran, zutik zein lurrean dagoen zur hilaren kantitatea handituko da, espezie laguntzaileei eutsiko zaie eta espezie laguntzaileak landatuko dira, masen dibertsitate espezifikoari eusteko xedez. **e)** Erabilera Publikoko Mendietan dauden baso naturaletan, baso-azalera jakin bat - % 5 eta 10 artean - baso-jarduerarik gabe utziko da, basoaren bilakaera naturalari bide emateko. Funtsezko elementutzat jotzen diren habitatak dituzten azalerei emango zaie lehentasuna; batez ere, kontserbazio-egoera desegokia dutenei. Pizido-espezieak kontserbatzeko, gomendagarria da basoaren bilakaera naturala gutxienez 1 ha-ko unadetan mantentzea. **f)** Ale urtetsuak, adartsuak, barrunbeak dituztenak eta erortze-egoera aurreratuan daudenak kontserbatzeko neurriak ezarri, azken mozketaren ondoren, egokiak baitira baso-hegaztietarako, eta bereziki kiropteroetarako; ale horiek kontserbatuko dira pertsona edo ondasunetarako arriskua ekar dezaketen aleak izan ezik, edota ibilguen edukiera hidraulikoa arriskuan jar dezaketenak izan ezik, buxatu eta uraldien eragina areago dezaketen zubiak edo beste elementu batzuk egoteagatik.

	g) Zuhaitz motzak mantentzeko kontserbazio-neurri bereziak txertatuko dira. **h)** Bai zutik bai lurreko zur hilaren kopurua handitzera lagunduko da, baso-masak heldutasun progresiboa lortzea eta zur hilaren aprobetxamenduari lotutako espezieak mantentzea bermatze aldera. Horretarako, abandonatu egingo da baso-lanak egin ostean, eta pilatzea saihestuko da. Aurretik zeuden zur hilaren abarrak errespetatuko dira. Balio kuantitatibo orokor gisa, gomendatzekoa da mendian, gutxienez, 8-10 zuhaitz/ha zutik uztea, eta 10-40 m^3/ha azken mozketa egin ondoren. Organo kudeatzaileak hildako zuraren helburu-balioak ezarriko ditu, habitat mota ezberdinekin, masen garapen-egoerekin, populazio txikieneko espezieen erabilera edo errekerimenduekin bat. Azterlan sakonagoak izan arte, erreferentzia gisa, honako helburu-balio hauek hartuko dira kontuan: - <u>pagadietan (9120 EB KOD)</u>: 30 m^3/ha zur hil baino gehiago gomendatzen da; gutxienez, 12 m^3/ha 30 cm-tik gorako diametroko zatietan, eta gutxienez, 4 m^3/ha zur hil zutik. - <u>ameztietan (9230 EB KOD)</u>: batez beste, 15 m^3/ha zur hil masa helduetan, eta 5 m^3/ha masa gazteetan; bolumen osoaren % 50 baino gehiago zur lodia izango da (>= 30 cm). **i)** Basoak Antolatzeko Plan Teknikoek laguntzaile diren espezie autoktonoak, zuhaixka-formako espezieak eta zuhaitz-espezieak kontserbatzeko neurriak sartu beharko dituzte, basoko masak ustiatzeko lanak egin bitartean. **j)** Batasunaren edo eskualdearen intereseko espezie mehatxatuen populazioak dituzten enklabeak identifikatzea eta babestea. Horretarako, ahalik eta informaziorik eguneratuena erabiliko da. **k)** Baso-lanen egutegia egokitzea afekzioak ekiditeko babestutako hegazti espezieen aldi kritikoetan (sai zuriarena, martxoaren 1etik irailaren 1era artean; sai arrearena, urtarrilaren 1etik abuztuaren 15era bitartean; babestutako baso-hegaztiena, martxoa-ekaina) eta kiroptero zuhaiztarren aldi kritikoetan (ekaina-abuztua). Organo kudeatzaileak epe horiek aldatu ahal izango ditu, lehen aipatutako espezieei egiten zaien jarraipen-emaitzen arabera. **l)** Solido esekien, fitosanitarioen eta pestiziden ekarpena minimizatzea ibai-sarean, eta beharrezko suertatzen diren neurriak hartzea solido esekiak daramatzaten jariatze-urak lurrazaleko uretara iristea ekiditeko. **m)** Zura ateratzeko metodo alternatiboak sustatuko dira, baso-pistak eraikitzea minimizatzen dutenak, Batasunaren intereseko habitatak edo espezieak dauden eremuetara sartzea eta zatikatzea mugatze aldera.
1.3 xede operatiboa	NBan dauden baso-kiroptero mehatxatuenen distribuzioa eta populazio-bilakaera ezagutzea, eta zuhaitz-masen ezaugarri jakinak babestea baso-espezieen eta espezie zuhaiztarren eskakizunei erantzuteko, arreta berezia jarrita honako hauetan: *Myotis bechsteinii, Barbastella barbastellus, Plecotus auritus, Nyctalus leisleri* eta *Myotis daubentonii*.
Erregulazioak	**1.E.10.-** Urtero, organo kudeatzaileak nekazaritza eta basozaintzako intsektiziden zerrenda egingo du eta, hala behar izanez gero, aplikatzeko eremu mugatuak. Gainera, bestelako intsektizidak erabiltzea debekatuta egongo da eta, era beretsuan, debekatuta dago eraikinetako zur-egiturak intsektizida organokloratuekin tratatzea.

	Nekazaritza eta basozaintzako intsektizidak erabiltzekotan, NBaren organo kudeatzailearen berariazko onespena behar da; horrela, erabili baino lehen, ebaluatuko du kiropteroen komunitateetan izan dezakeen afekzioa, eta dosia edota aplikatzeko eremuak muga ditzake. **1.E.11.**- Baso-kiropteroak detektatzen diren lekuetan baso-lanak murriztuko dira ekaina eta abuztua bitartean, organo kudeatzaileak berariaz baimentzen duenean izan ezik. **1.E.12.-** Bereziki aplikatzekoak dira **1.E.9. j** eta **k** erregulazioan jasotako neurriak, baso-aprobetxamenduak egin bitartean kiroptero zuhaiztarren enklabeak eta ugalketa-datak errespetatzeari dagokionez. **1.E.13.-** NBko kiropteroak kontserbatzearen garrantzia dibulgatu eta horren inguruan sentsibilizatzeko jarduketak sustatuko dira. Hartzailea gizartea izango da oro har, eta bereziki, Gorbeiako erabiltzaileak eta bisitariak, ikastetxeak, eta are, euren jarduerek espezie horien eta habitaten kontserbazio-egoerari hein handiagoan eragin diezaioketen pertsonak eta kolektiboak. **1.E.14.-** Kiropteroak detektatzen diren lekuetan baso-lanak murriztuko dira maiatza eta abuztua bitartean, organo kudeatzaileak berariaz baimentzen duenean izan ezik, hala sentikortasun handieneko aldietan talde horretako espezieei eta Naturagune Babestuko beste basa-espezie sentiberei ez eragozteko.
1.4 xede operatiboa	NBko ugaztun mehatxatuenen distribuzioa eta populazio-bilakaera ezagutzea, eta kontserbazio-neurriak sustatzea.
Erregulazioak	**1.E.15.-** Arbaizaren ondoan, Eletxi gaineko iparreko mazeleko baso-enklabearen interes mastofaunistiko nabarmenari erreparatuta, enklabe horri Gorbeia eremuko NBAPko *26. art.- Erreserba Eremua* artikuluan ezarritako araudia aplikatuko zaizkio. **1.E.16.-** Ugaztun mehatxatuen populazioen erroldak eta inbentarioak egingo dira aldian behin, eta arreta berezia jarriko da mehatxu-maila handiena duten Batasunaren edo eskualdearen intereseko espezieetan. Nagusiki, alderdi hauei erreparatuko zaie: distribuzioa, populazioen kontserbazio-egoera, eta presioak zein mehatxuak.
1.5 xede operatiboa	Basoetako abifaunako espezieak kontserbatzea eta berreskuratzea. Heriotza-arrazoi ez naturalak ezabatzea.
Erregulazioak	**1.E.17.-** Ez da baimenduko basa-harraparien kumatzean eragina dezaken baso-jarduerarik egitea antzeman diren habiagintzako puntuetatik 100 m-ko perimetroan, ugalketa-aldiaren hasieratik harik eta piroek eremutik alde egiten duten arte. Organo kudeatzaileak urtero ezarriko du epe hori. **1.E.18.-** Ez da baimenduko okil beltzaren hazkuntzari eragin diezaiokeen jarduerarik egitea habietatik, edo, hala badagokio, lokalizatutako unada okupatutik 400 m-ko erradioan, otsailaren 1etik abuztuaren 15era bitartean. Organo kudeatzaileak urtero ezarriko du babeserako eremu horren mugaketa. **1.E.19.-** Aurreko erregulazioan habiak babesteko definitutako eremuan eta aldian, debekatuta daude orkatzen bakar-ehiza eta basurdeen uxaldiak; gainontzeko aldietan ere ehiza mota hauek debekatuta egongo dira, salbu eta organo kudeatzaileak berariaz baimentzen badu. **1.E.20.-** Neurriak hartuko dira babestutako espezieak pozoitzea ekiditeko. Halaber, pozoia babestutako gunearen barruan erabiltzearen ondorioei buruzko prestakuntza- eta informazio-jarduerak sustatuko dira, abeltzainei eta ehiztariei zuzendutakoak.

	1.E.21.- Interes handieneko faunaren biologiari eta mehatxuei buruzko ezagutzak hobetzea xede duten azterlanak egitea sustatuko da, batik bat kontserbazio-neurriak lurraldean hobeto definitzea eta aplikatzea dakarten alderdien gainekoak. **1.E.22.-** Bereziki aplikatzekoak dira **1.E.9. j** eta **k** erregulazioan jasotako neurriak, baso-aprobetxamenduak egin bitartean basoetako abifaunaren enklabeak eta ugalketa-datak errespetatzeari dagokionez. **1.E.23.-** Ale hilak edo zauritutakoak bilduko dira interes handieneko faunaren biologiari eta mehatxuei buruzko ezagutzak hobetzeko, bereziki dokumentu honen kontserbazio-neurrien definizio eta aplikazio hobea izateko lagungarriak gerta daitezkeen alderdietan.
1.6 xede operatiboa	Honako espezie hauek NBko eremuan duten distribuzioa ezagutzea: *Cerambyx cerdo*, *Rosalia alpina*, *Lucanus cervus* eta *Osmoderma eremita*, *Euphydryas aurinia* eta *Euplagia quadripunctaria* eta *Elona quimperiana*. Halaber, populazioen jarraipena egiteko sistema bat ezartzea.
Erregulazioak	**1.E.24.-** Oro har, debekatuta dago *Cerambyx cerdo*, *Rosalia alpina*, *Lucanus cervus* eta *Osmoderma eremita* espezieen eta NBko mehatxatutako gainerako ornogabeen aleak harrapatzea; ildo beretik, debekatuta dago aipatutako aleak hiltzeko, jazartzeko edo enbarazu egiteko baimendu gabeko edozein jarduketa egitea, larbei, kumeei eta arrautzei zuzendutakoak barne, eta debekatuta dago euren habitatak suntsitzea, bereziki, habiak, gordelekuak, eta ugalketa-, negu-, atseden- edo elikatze-eremuak. Debekatuta dago 'galzorian' edo 'kaltebera' zerrendatuta dauden espezieak, , naturalizatu, garraiatu, saldu, erakutsi, inportatu edo esportatzea, bizirik edo hilda izanda ere. **1.E.25.-** NBaren organo kudeatzaileak jarduketak sustatuko ditu Batasunaren intereseko ornogabe-espezieen habitat, distribuzio, ugaritasun eta kontserbazio-egoeraren ezagutza hobetzeko. *O. cerdo* eta beste espezie saproxiliko batzuk kontserbatzeko, bereziki aplikatzekoak dira **1.E.9. (d, e, f, g** eta **h)** erregulazioan finkatutako neurriak, ale urtetsuen zein motzen kontserbazioari eta baso naturaletan zur hila lurrean edo zutik egoteari dagokionez. **1.E.26.-** Saihestuko da enborrak iraupen txikirako pilatzea edo gutxienez denboraldi bat bazterrean egon den zur lehorra kentzea, *Rosalia alpina*k egin ditzakeen errunaldiak babesteko. **1.E.27.-** NBko organo kudeatzailearen baimenaz izan ezik, debekatuta dago osorik edo zati batean lurperatuta dagoen zura eta inguruko lurra mugitzea, *Lucanus cervus*en larbak babesteko.

2. Sasiak eta larreak	
Xedeak eta erregulazioak	
2. azken xedea	Ziurtatzea txilardi hezeen eta mendiko larreen egungo azaleraren kontserbazioa, baita mosaikoan antolatzen dela ere; eta habitaten nahiz lotutako espezie mehatxatuen aldeko kontserbazio-egoerarekin bateragarriak diren abeltzaintzako kudeaketa-jarraibideak ezartzea.
Oro har, NBko txilardiei eta belardi naturalei nahiz erdi naturalei 'Nekazaritza eta abeltzantza'-ri buruzko erregulazioak aplikatuko zaizkie, *Gorbeia aldeko NBAP onesten duen ekainaren 21eko 227/1994 Dekretuaren* 11. artikuluan (*Nekazaritza eta abeltzantza*) ageri direnak. Ildo beretik, Gorbeia parke naturalaren NBAPko 21. artikuluan flora eta fauna babesteari buruz bildu diren erregulazioak aplikatuko dira. *Diphasiastrum alpinum* eta *Ranunculus amplexicaulis* espezieek Bizkaiko Foru Aldundiaren foru-dekretuen bitartez onetsitako kudeaketa-planak dituzte; horrenbestez, dekretu horietan jasotako xedapenak aplikatuko dira. Arestian adierazitakoari eragin gabe, honako erregulazio hauek aplikatuko dira.	
2.1 xede operatiboa	Batasunaren intereseko larreei eta sasiei aldeko kontserbazio-egoeran eustea ziurtatzen duen abeltzaintza-kudeaketa bultzatzea; hala, mosaiko-gisako antolaketari eta, gutxienez, lehentasunezkotzat jotzen direnen egungo azalerari eutsi beharko lieke: txilardi hezeak (EB 4020* KOD) eta mendiko larreak (EB 6230* KOD).
Erregulazioak	**2.E.1.-** NBko larreen eta sastrakaren kudeaketak bermatuko du baliabide horien aprobetxamenduak ez dituela arriskuan jarriko ingurumen-balioak. Horren harira, eutsi egingo zaio larreen, txilardien, txilardi hezeen eta inguru horretan dauden beste hezegune batzuen mosaiko-gisako egitura irregularrari, eta ingurumen-ikuspuntutik sentiberaenak diren enklabeak babestuko dira (hezeguneak, mehatxatutako flora- eta fauna-espezieentzat interesekoak diren enklabeak, etab.). **2.E.2.-** Organo kudeatzaileak abeltzaintza-antolamendurako plan integrala egingo du NB osorako, larreak antolatzeko planak eginez. Plan hauek NBko larreen eta txilardien kontserbazio-egoera onarekin bateragarriak diren ganadu-kargak zehaztuko dituzte, gunean identifikatutako larre-eremu bakoitzerako. Egungo ganadu-aziendari eusteko beharrezkoak diren larreak eta abeltzaintza-azpiegiturak hobetzeko behar diren inbertsioak jasoko dituzte, eta kontserbazio-helburuekiko errespetua bermatzeko inbertsioak zein baldintzatan egin behar diren ezarriko dute. Hala badagokie, ganadua kanpoan uzteko itxiturak ezartzeko egokitasuna jorratuko da aipatutako planetan, hala kontserbatu beharreko floraren edota hezeguneen enklabe zehatzak babesteko nola gutxiegi erabilitako eremu jakin batzuen erabilera bideratzeko, gainlarratzea dagoen beste eremu batzuen onerako. Nolanahi den ere, planetako zehaztapenek bateragarriak izan beharko dute NBko beste elementu gako batzuetarako ezarritako kontserbazio-xedeekin, bereziki, ibaien eta erreken, hezeguneen, basoen, eta mehatxatutako flora eta faunaren xedeekin. **2.E.3.-** Ahuntz-ganaduaren larratzeari dagokion foru-arauak ezarritakoa aplikatuko zaio. Debekatuta dago ahuntzak egotea edo larratzea NBAPko erreserba integralako, erreserbako, babeseko eta aurreratze ekologikoko zonetan. **2.E.4.-** Larreak hobetzeko xedez egiten diren sasi-kentzeetan, paisaian duten eragina kontuan hartuko da, eta saihestuko da maila-kurbekiko zuzen perpendikularrak egitea. Ildo horretatik, eraginkortasuna areagotuko da sasia kentzeko garaiak doituz (adibidez, iratzeak kentzea urteko zikloa hausteko), eta interes naturaleko habitaten kontserbazio-irizpideei jarraituko zaie.

2.E.5.- Larre berriak ezingo dira landu ondorengo eremuetan: % 30etik gorako malda duten lurren gainean; txilardi hezeek hartutako guneetan; eremu higrozohikatzetan eta mehatxatutako flora eta fauna dauden eremuetan zein babes-perimetroetan ere. Besteak beste, Batasunaren edo eskualdearen interes bereziko espezieen ugalketa-guneak dira intereseko enklabeetako batzuk, esaterako, mirotz zuriarenak eta ota-txinboarenak.

Oro har, sasi-kentze mekanikoak % 20tik beherako malda duten lurretan baino egingo dira, eta malda handiagoko eremuetan eskuz egin beharko da.

2.E.6.- Txilar lehorrek landaredi moten barne- aldagarritasun zabala dute, biodibertsitate hori matentzen dela ziurtatuko da; hala ere, mota horien arteko azaleko proportzioak aldatu ahal izango dira. Habitat horretan, debekatuta daude ongarritzeko eta kareztatzeko lanak. Formazio horiek dauden eremuetan, estentsio zabaleko larreak sortzeko zuhaitz-berritzeak edo sasiak kentzea saihestuko da.

2.E.7.- Debekatuta dago iratzeetarako herbizidak erabiltzea mendiko larreetan (salbuespen gisa, organo kudeatzaileak horrelako produktuak erabiltzea baimen dezake, justifikatua badago eta aurrez eskatzen bada). Habitat horren azalera handitzeko, iratzedien edo otadien eremuetan sasi-kentzeak egingo dira, garai egokietan.

2.E.8.- Heskai zuhaiztunen maneirurako ezin dira herbizida eta intsektizidak erabili. Salbuespen gisa baino ez dira erabiliko, baina Naturagune Babestuaren Organo Kudeatzaileak aurretiaz baimendu beharko du**.**

2.E.9.- Lurzoru argaleko edo malda handiko guneetan higadura-arazoak identifikatzen badira, zuhaitz-estaldura berreskuratuko da, eta ordezkapen urrats-serialetarantz bilakaera eta zuhaiztiak osatzea sustatuko dira.

2.E.10.- Debekatuta dago ongarriak bereizi gabe erabiltzea eta medeatzea. Eskaera zehatzetan baino ez da utziko ongarriak eta kareztadurak erabiltzen, eta hertsiki debekatuta dago horiek aplikatzea eremu hezeetan, zingiretan eta mehatxatutako flora-populazioetan. Praktika horiek unean-unean baimendu daitezke, aurretik lurraren azterketa eta inguru honetako ohiko espezieetan, lurraren dinamikan eta baliabide hidrologikoetan afekziorik ez dutela bermatzen duen analisia egiten bada.

Ustiapen bakoitzak, nahitaez, ongarrien aplikazioen erregistro bat eraman beharko du (ongarrien kopuruak, datak, jatorria eta mota). Larreen karga-gaitasuna gainditzen duen ekarpenik beti ekidingo dira (muga hori gehienezko ongarri-kontzentrazioa izango litzateke, handik aurrera jariatzeak galera zuzenak edo landareetan kalteak eragingo lituzke). NBko nekazaritza-ustiategiaren jabe edo erabiltzaileek ustiapen-koadernoa behar bezala beteta izan beharko dute, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak 2014ko azaroaren 18an emandako Aginduarekin edo hori eguneratzen duen edozein araudirekin bat.

2.E.11.- Debekatuta dago berrereitea inguru honetako habitat gakoen ohiko kontsideratzen ez diren belardiko espezieekin.

2.E.12.- NBaren barruan dauden segatze-belardietan, debekatuta dago habitat horretan berez ez dauden ekoizpen handiko espezieak ereitea (llollobelar ingelesa edo italiarra, hirusta zuria, alpapa, etab.). Gainera, herbizida eta ongarri inorganikoak erabiltzea ekidingo da. Ongarri organikoak aplikatzen badira, ez dira gainditukо honako hauek ezarritako mugak: nekazaritzatik eratorritako nitratoekin ura kutsatzeko Arriskutan dauden Inguruak izendatzeko arauak finkatu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza-lanetan Egoki Jarduteko Kodea onartzeko den abenduaren 22ko 390/1998 Dekretua; eta, nekazaritzako nitrato-kutsadura jasateko arriskupeko gunetzat jo ez diren Euskal Autonomia Erkidegoko guneetarako nekazaritza-lanetan Egoki Jarduteko Kodea onartzen duen ekainaren 7ko 112/2011 Dekretua.

	2.E.13.- Organo kudeatzaileak erlezaintza garatzearekin zerikusia duten neurriak hartuko ditu, flora-espezieen polinizazioa ziurtatzeko eta Batasunaren intereseko habitatek NBan bizirauten dutela bermatzeko; arreta berezia jarriko da basoetan, txilardietan, otadietan eta larreetan.
2.2 xede operatiboa	Txilardi hezeekin eta belardi naturalekin nahiz erdi naturalekin lotutako flora mehatxatuaren populazioen jarraipena egitea, berreskuratze-planetan ezarritako neurriak gauzatzea, eta eraginkortasuna ebaluatzea.
Erregulazioak	**2.E.14.-** *Diphasiastrum alpinum* eta *Ranunculus amplexicaulis* espezieak babestu eta berreskuratzeko jarduketak *«EAEko flora baskularraren zerrenda gorrian 'galzori kritikoan' gisa sailkatuta dagoen floraren berreskuratze-planak idazteko oinarri teknikoak»* (IHOBE. 2011ko otsaila) erreferentziako agirian jasota dauden berreskuratze-plan zehatzei jarraituz gauzatuko dira. **2.E.15.-** Berreskuratze-planak prestatuko dira mehatxu-maila handiena duten NBko gainerako flora-espezie mehatxatuentzat, 'galzoriko' edo 'kaltebera'-tzat hartzen direnentzat, gutxienez. **2.E.16.-** NBko flora-espezie mehatxatuak berreskuratzeko planak idazten ez diren bitartean, babes-perimetro jakin bat ezarriko da mehatxatutako flora-populazio bakoitzeko, eta gutxienez, 10 m-koa izango da, populazioen kokaleku ezagunen inguruan. Mugatutako gune hori espeziea kontserbatzeko eremutzat joko da. Zehaztutako kontserbazio-eremuan egin nahi den erabilera edo jarduera oro baimenduko da populazio horiek berreskuratzeari negatiboki eragiten ez badio soilik.
2.3 xede operatiboa	Goi-mendiko eta landazabaleko abifaunaren egungo populazioen eta elikatze-eremuen jarraipena egitea eta kontserbatzea, eta espezie enblematikoen ugalketa-guneak berreskuratzea, esaterako, belatxinga mokogorri eta antzandobi arruntarenak.
Erregulazioak	**2.E.17.-** Naturagune Babestuko mendien goikaldeko eta landazabaleko abifaunen populazioen ezagutza hobetzeko jarduerak gauzatuko dira, espezie mehatxatuen inbentarioa aldian-aldian eguneratuta. Ildo horretatik, batez ere, honelako alderdiei erreparatuko zaie: populazioen banaketa, kontserbazio-egoera eta presioak, eta jasaten dituzten mehatxuak.
2.4 xede operatiboa	Narrastien komunitatearen habitatak kontserbatzea eta NBko espezieen gaineko eraginak zuzentzea. *Lacerta schreiberi*ren populazioen ugaritasuna, distribuzioa eta kontserbazio-egoera ezagutzea.
Erregulazioak	**2.E.18.-** Naturagune Babestuko narrastien populazioak hobeto ezagutzeko jarduerak gauzatuko dira, espezie mehatxatuen inbentarioa aldian-aldian eguneratuta. Ildo horretatik, batez ere, honelako alderdiei erreparatuko zaie: populazioen banaketa, kontserbazio-egoera eta presioak, eta jasaten dituzten mehatxuak.

3. Leizeak, harkaitzak eta lotutako habitatak	
Xedeak eta erregulazioak	
3. azken xedea	Leizeekin, barrunbe karstikoekin eta harkaitzekin lotutako Batasunaren intereseko habitaten eta espezieen aldeko kontserbazio-egoera babestea edo lortzea. Kiropteroen eta hegazti harkaiztarren populazioak kontserbatu, berreskuratu eta bideragarriak izango direla ziurtatzea, NBko harrera-ahalmena hobetuz.
Oro har, NBko leizeei eta harkaitzei aplikatuko zaizkie *Gorbeia aldeko NBAP onesten duen ekainaren 21eko 227/1994 Dekretuaren* 24. artikuluan (*Baliabide espeleologikoen babesa*) ageri diren erregulazioak. Ildo beretik, Gorbeia parke naturalaren NBAPko 21. artikuluan flora eta fauna babesteari buruz bildu diren erregulazioak aplikatuko dira NBan. Elementu gako hau osatzen duten eta Itxinako mendimultzoan dauden habitaten kasu zehatzerako, Babestutako biotopoari buruzko arauak aplikagarri dira, *Itxinako mendimultzoa babestutako biotopo deklaratzen duen uztailaren 11ko 368/1995 Dekretuaren* 3. artikuluan ezartzen denaren arabera. Arestian adierazitakoari eragin gabe, honako erregulazio hauek aplikatuko dira.	
3.1 xede operatiboa	NBko harkaitz-habitatak eta leizeak kontserbatzea, mehatxu-faktoreak txikiagotzea eta kontrolatzea, eta habitat horien inguruko ezagutza areagotzea.
Erregulazioak	**3.E.1.-** Berariaz Aplikatzekoak dira *Gorbeia aldeko NBAP onesten duen ekainaren 21eko 227/1994 Dekretuaren* 24. artikuluan (*Baliabide espeleologikoen babesa*) ageri diren erregulazioak. Hala badagokio, **3.E.12.** erregulazioan aipatuko den NBko ondare espeleologikoa kudeatzeko planetik sortutako erregulazioekin osatuko dira. **3.E.2.-** Debekatuta dago material exogenoak barrunbeetan sartzea edo uztea, naturalak edo artifizialak izanda ere; halaber, debekatuta dago karburoa nork bere bidea argiztatzeko bitarteko gisa erabiltzea. **3.E.3.-** *Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen 1/2014 Legegintzako Dekretuaren* 19.4 artikulua aplikatuta, NBko mugetan eta horren afektazio-eremuetan *ezin izango dira egin zaindu nahi diren ingurumen-balioekin bateraezinak diren erauzte-jarduerak*. Gorbeia NBaren kasuan, alderdi hauexek dakarte bateraezintasuna: • Harkaitz, hartxingadi, leize eta barrunbe karstikoen inguruekin zein zingirekin lotutako habitat-moten kontserbazio-interes handia, *a priori* bertan baitaude ustia daitezkeen baliabideak. • Elementu gako hau osatzen duten habitat guztiak flora- eta fauna-populazio mehatxatuak dauden Batasunaren intereseko habitatak dira, eta horrelako ingurunetan daude soilik. • Harkaitzak eta hartxingadiak lehen mailako paisaia-baliabidea dira EAEko testuinguruan. Baliabide geologiko eta biologikoak erauzteko jarduerak debeku horretatik baztertu dira, baldin eta behar bezala justifikatutako xede zientifikoak badituzte eta organo kudeatzaileak berariaz baimendu baditu. **3.E.4.-** Oinarrizko hartxingadien egonkortasuna eta lotutako landaredia babesteko helburuz, higakinak erauztea debekatuta dago.

	3.E.5.- Habitat horien distribuzioa eta kontserbazio-egoera ezagutzera zuzendutako jarduketak bultzatuko dira, habitat horien zein lotutako flora- eta fauna-populazioen kontserbazio eta berreskurapena sustatuz.
3.2 xede operatiboa	KBEan dauden leize-kiroptero mehatxatuenen distribuzioa eta populazio-bilakaera ezagutzea, kiropteroen babesleku nagusien ezaugarri fisikoak, biologikoak eta girokoak babestea (turismoak ustiatu gabeko leizeak, EB 8310 KOD), eta heziketa-jarduerak sustatzea gizakiek espezie horiekiko duten jarrera hobetzeko.
Erregulazioak	**3.E.6.-** Oro har, debekatuta dago Itxulegor eta Legorras leizeetara sartzea, kiropteroen lehentasunezko babeslekuak baitira. Barrunbe horietan, zientzia- edo ikerketa-jarduerak besterik ez da baimenduko, eta NBaren organo kudeatzaileak zehazten dituen baldintzekin bat etorriz gauzatu beharko dira. **3.E.7.-** Kiropteroen babesleku diren NBko gainerako leizeen olgeta- edo turismo-erabilerak sustatzeko jarduerak baimenduko dira, soil-soilik, egiaztatzen bada ez dutela kalterik eragingo; halaber, hala badagokio, ebaluazio egokiaren prozedura ere gauzatuko da. Aipatutako azterlanek, gutxienez, aurretiko ikerketak jaso beharko dituzte tokiaren ezaugarri mikroklimatiko, faunistiko, paleo/arkeologiko eta geomorfometrikoei buruz. Indusketa arkeo/paleontologikoak, baita hartzaile ez espezializatuen jarduera espeleologikoak ere, baimendu ahal izango dira betiere kiroptero-koloniak ez dauden barrunbeetan edo kiropteroak ez dauden garaietan egiten badira. **3.E.8.-** Nolanahi ere, edozein talde antolatua barrunbeetara turismo-, kirol- edo zientzia-xedeekin sartzeko NBaren organo kudeatzaileari jakinarazi beharko dio; hartara, organo kudeatzaileak sartzeko baimena uka dezake justifikatua badago, edo baldintzak jar ditzake: pertsona-kopurua, egoteko denbora-tartea… **3.E.9.-** Jarduera espeleologikoa egin bitartean agerian geratzen diren Parkeko baliabideen gaineko ezagutzan aurrera egiten bada (galeria berriak, fauna-informazioa, etab.), organo kudeatzaileari jakinarazi beharko zaio. **3.E.10.-** Ekosistema hipogeoetako fauna ornogabearen kontserbazioa ziurtatze aldera, ikerketa zientifikoko jardueretan honako baldintzak hartuko dira kontuan: a) Ez dago baimenduta ornogabeak harrapatzeko tranpak jartzea ikerketa-talde batek baino gehiagok km^2-ko. b) Tranpa horiek bertan egoteko denbora-tartea ez da hiru hilabetetik gorakoa izango barrunbe txikietan (500 m-tik beherakoak, garapen planimetrikoari dagokionez), ezta sei hilabetetik gorakoa ere barrunbe handietan. c) Ez da baimenduko ale berriak biltzea aurreko kanpaina amaitu eta urtebete igaro arte, gutxienez. d) Harrapatzeko kanpaina amaitutakoan, barrunbeetan jarritako tranpa eta gailu guztiak kendu beharko dira. **3.E.11.-** Barrunbe bat ixtea edo itxitura desegoki bat ordeztea erabakitzen bada, saguzarrak zein aire-korronteen erregimena igarotzen direla ziurtatzeko moduan egingo da. **3.E.12.-** Erabilera espeleologikoa arautuko da, eta saguzarrek kolonizatutako leizeen kasuan jarraitu beharreko irizpideak jasotzen dituen kudeaketa-plan zehatza ezarriko da; horretarako, lan hauetan bildutako xedeak, jarraibideak eta jarduketak hartuko dira oinarri gisa, baita gerora eginiko berrikuspenak ere: «*Gorbeia parke naturaleko kiropteroen egoeraren berrikuspena. Babeslekuak kudeatzeko plana, 2007*» eta «*Gorbeia parke naturalaren Arabako zatiko barrunbeen kudeaketa*».

	3.E.13.- NBko kiropteroak kontserbatzearen garrantzia dibulgatu eta horren inguruan sentsibilizatzeko jarduketak sustatuko dira. Hartzailea gizartea izango da oro har, eta bereziki, Gorbeiako erabiltzaileak eta bisitariak, ikastetxeak, eta are, euren jarduerek espezie horien eta habitaten kontserbazio-egoerari hein handiagoan eragin diezaioketen pertsonak eta kolektiboak: foru-zaintzaileak, espeleologoak, etab.
3.3 xede operatiboa	Mehatxatutako flora-populazioen jarraipena egitea eta jarduketek KBEan duten eraginkortasuna ebaluatzea. Mehatxatutako flora-espezieak berreskuratzeko planetan ezarritako neurriak gauzatzea, eta kudeaketa-plan zehatza ez duten flora-espezie mehatxatuak berreskuratzeko planak egin daitezela bultzatzea.
Erregulazioak	**3.E.14.-** Debekatuta dago ahuntz-ganadua harkaitzetan, hartxingadietan, lapiazetan eta megaforbioen eremuetan egotea, baita Itxina biotopoan eta Aldamingo erreserban. **3.E.15.-** Ganadua harkaitz-habitatetara sartzea mugatuko da, horiei lotutako flora-espezie mehatxatuen suntsipena eragozteko. **3.E.16.-** *Nigritella gabasiana* espeziea babestu eta berreskuratzeko jarduketak *EAEko flora baskularraren zerrenda gorrian 'galzori kritikoan' gisa sailkatuta dagoen floraren berreskuratze-planak idazteko oinarri teknikoak* (IHOBE. 2011ko otsaila) erreferentziako agirian jasota dauden berreskuratze-plan zehatzei jarraituz gauzatuko dira. **3.E.17.-** Berreskuratze-planak prestatuko dira mehatxu-maila handiena duten NBko gainerako flora-espezie mehatxatuentzat, 'galzoriko' edo 'kaltebera'-tzat hartzen direnentzat, gutxienez. Plan horiek prestatzean, aurreko erregulazioan aipatutako erreferentziako agiriko irizpideak aintzat hartuko dira. **3.E.18.-** NBko flora-espezie mehatxatuak berreskuratzeko planak idazten ez diren bitartean, babes-perimetro jakin bat ezarriko da mehatxatutako flora-populazio bakoitzeko, eta gutxienez, 10 m-koa izango da, populazioen kokaleku ezagunen inguruan. Mugatutako gune hori espeziea kontserbatzeko eremutzat joko da. Zehaztutako kontserbazio-eremuan egin nahi den erabilera edo jarduera oro baimenduko da populazio horiek berreskuratzeari negatiboki eragiten ez badio soilik. **3.E.19.-** NBko flora-populazio mehatxatuaren ezagutza hobetzera bideratutako jarduerak bultzatuko dira mehatxatutako espezieen inbentarioa aldian behin eguneratuz; horretarako, nagusiki, distribuzioari, populazioen kontserbazio-egoerari, eta jasaten dituzten presioei zein mehatxuei erreparatuko zaie.
3.4 xede operatiboa	Espezie harkaiztarrak kontserbatzea habiagintzako puntuak zorrotz babestuz, beharrezkoa den elikatze- eta ehiza-eremuen gutxieneko azalera kontserbatzea, eta heriotza-arrazoi ez naturalak ezabatzea.
Erregulazioak	**3.E.20.-** Kautelaz, eta sai zurirako eremu kritikoa Gorbeia NBan zehazten ez den artean, espezierako eremu kritikotzat joko dira habiagintzako tokiak eta habiaren inguruko 1.000 m-ko erradioko eremua. **3.E.21.-** Habiaren inguruko 1.000 m-ko erradioan, izaera edozein dela ere, ezingo da sai zuriaren hazkuntzari eragin diezaiokeen obra, lan edo jarduerarik egin martxoaren 1etik irailaren 1era bitartean, honako hauek barne: eskalada, bide berriak zabaltzea, abentura-kirola, eta hegan egitea delta hegalarekin, parapentearekin eta ultra-arinekin, baita edozein motatako baso- edo ehiza-jarduera oro ere. Salbuespena egingo da behar bezala justifikatutako ezinbesteekin, NBaren organo kudeatzaileak berariaz baimentzen badu.

3.E.22.- Debekatuta dago behaketak eta grabazio grafiko edo soinu-grabazioak egitea postu finkoak jarriz sai zuriaren aleengandik 250 m baino gutxiagora, eta ohiko pausalekuetatik, hezurrak apurtzeko tokietatik, janlekuetatik eta habia egin dezaketen tokietatik 500 m baino gutxiagora badaude. Debeku honek ez die NBaren organo kudeatzaileak berariaz baimendutako pertsonei eta jarduerei eragingo.

3.E.23.- Behar-beharrezkoa denean soilik gauzatu ahal izango dira eremu kritikoen ingurutik igarotzen diren edo sai zuria egon ohi den puntuetara sartzea errazten duten ibilgailuetarako bide berriak eraikitzeko eta badaudenak egokitzeko proiektuak, eta behar bezala justifikatu beharko da. Hala, NBaren organo kudeatzaileak arauzko txosten loteslea egingo du bideen ibilbideari, ezaugarriei eta erabilerari buruz, habitata kontserbatzea eta espeziea lasai egotea ziurtatzeko beharrezkoak diren ingurumen-neurriak ezartzeko xedez.

3.E.24.- NBaren organo kudeatzaileak egokitzat jotzen dituen erabilera-baldintzak ezarriko ditu sai zuriaren eremu kritikoetatik 1.000 m baino gutxiagora igarotzen diren ibilgailuetarako pistetan eta bideetan, eremue horietan lasaitasuna ziurtatze aldera.

3.E.25.- Debekatuta dago lehergailuak erabiltzea eta makineria astuna igarotzea sai zuriaren eremu kritikoen inguruko 1.000 metroko erradioan, gutxienez, baita elikadura osagarriko programak egiten diren eremuetan ere.

3.E.26.- Debekatuta dago abionetek, ultra-arinek, helikopteroek, dronek eta antzekoek bertan hegan egitea, baita aireko garraioa ibiltzea ere, 1.000 m baino gutxiagoko garaieran, sai zuriaren eremu kritikoetatik 250 m-ko erradioan, larrialdietan edo erreskateetan izan ezik.

3.E.27.- Orobat, kontuan hartu ez den beste edozein eragozpen muga daiteke, baldin eta kokapen-ezaugarriak, iraupena edo maila akustikoa direla-eta espeziearen hazkuntzari, elikatzeari edo atsedenari kalte egin badiezaieke sai zuriaren eremu kritikoetan, ezarritako garai kritikoetan.

3.E.28.- Dagokionean, NBko barrutien Ehiza antolatzeko plan Teknikoak (Arabako Lurralde Historikoa) eta espezieen arabera mugatutako eremuak (Bizkaiko Lurralde Historikoa) berrikusiko dira, espezie mehatxatuen gaineko eragin zuzena, arriskuak edo eragozpenak ekiditeko eta guneko kontserbazio-xedeekiko bateragarritasuna ziurtatzeko neurriak, arauak edo jarraibideak barne.

Bereziki, sai zuriaren eremu kritikoetan, ehiza antolatzeko plana berrikusteak honako jarraibide hauek ezarriko ditu:

a) Sai zurirako Eremu Kritikoek eta elikadura osagarriko programak egiten diren eremuek erreserbetan edo ehiza-babeslekuetan sartuta egon beharko dute.

b) Sai zurien pausaleku, ohiko janleku edo habia-puntu izan daitezkeen batzuk identifikatu ondoren, ehiza larriko uxaldien egutegia egokituko da; hala, 1.000 m baino gutxiagoko erradioan egiten diren uxaldiak beti gauzatuko dira **3.E.21.-** erregulazioak definitutako espeziearen aldi kritikotik kanpo.

c) Ekidingo da usoak eta birigarroak ehizatzeko postu finkoak instalatzea, baita askatutako animaliak ehizatzeko eremuak sortzea ere, sai zurirako Eremu Kritikoen inguruko eta elikadura osagarriko programak egiten diren eremuetako 1.000 m-ko erradioan, gutxienez.

d) Sai zurien bikote ugaltzailea ezartzen bada, ehiza-jarduera mugatu egingo da aldi kritikoan, gutxienez, habia-puntutik 2.000 m-ko erradioan.

3.E.29.- Eskalada-jarduera kontrolatuko da NBaren eremuan, eta horren mesedetan jardungo da, baldin eta harkaitzen biodibertsitatea kaltetzen ez badu edo lotutako flora eta fauna mehatxatuari enbarazu egiten ez badio.

	3.E.30.- Babestutako espezieak pozoitzea ekiditeko neurriak hartuko dira. **3.E.31.-** Prestakuntza-, sentsibilizazio- eta informazio-jarduerak sustatuko dira. Jardueren helburua izango da kontserbazioaren xede diren abifaunako espezieen biologiari, arazoei, egungo egoerari, pozoia babestutako gunearen barruan erabiltzearen ondorioei, eta espezie horietarako planteatutako kontserbazio-xedeei buruzko ezagutzak hobetzea, proposatutako kontserbazio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko helburua erdiesteko. **3.E.32.-** NBaren eremuan, eta bereziki, sai zurirako Eremu Kritikoetan, instalazio elektrikoetarako nazio- eta autonomia-mailako araudi elektroteknikoak edo araudi-proiektuek ezartzen dituzten arau teknikoak betetzen direla bermatuko da, abifauna babesteko xedez. NBa «babeseko zona» eremutzat joko da, abifauna goi-tentsioko linea elektrikoen kontra jo eta elektrokutatzearen kontrako neurriak ezartzeko den abuztuaren 19ko 1432/2008 Errege Dekretuak ezarritakoarekin bat. **3.E.33.-** Ekidingo da kable biluzien linea elektriko berriak instalatzea sai zurien ohiko pausalekuetatik eta ezartze- edo habia-enklabe izan daitezkeenetatik 1.000 m baino gutxiagora; hala, ibilbide alternatiboak erabiliko dira edo kable isolatuko edota lurperatuko lineak instalatuko dira. Bestela, talka-arriskua arintzeko asmoz, gainkargako hariak edo eroaleak seinaleztatuko dira. Eragindako argindar-enpresekin bat etorrita, eta hala badagokio, lankidetza-hitzarmenak eginez, sai zuriek talka egiteko edo elektrokutatzeko arriskua dagoen linea elektriko guztiak zuzenduko dira gutxika. **3.E.34.-** NBan parke eolikoak instalatzea saihestuko da, bereziki, sai zurien eremu kritikoen inguruko 5 km-ko erradioan.

4. Hezeguneak	
Xedeak eta erregulazioak	
4. azken xedea	NBko hezeguneekin lotutako Batasunaren intereseko habitaten zein bertako flora- eta fauna-populazio mehatxatuen aldeko kontserbazio-egoera babestea edo lortzea.
Oro har, NBko eremu hezeei aplikatuko zaizkie *Ingurune hidrikoarekin lotutako KBEak eta HBEBak kontserbatzeko neurriak* agirian *Uraren erabilera*ri buruz jasotako jarraibideak eta erregulazioak. Era berean, honako xedapen orokor hauek aplikatuko dira: • Gorbeia aldeko NBAP onesten duen ekainaren 21eko 227/1994 Dekretuaren 20. artikuluan (*Baliabide hidrologikoen babesa*) Baliabide hidrologikoen babesari buruz jasotako jarraibideak eta arauak. • Gorbeia parke naturalaren NBAPko 21. artikuluan flora eta fauna babesteari buruz bildu diren jarraibideak eta erregulazioak. Arestian adierazitakoari eragin gabe, honako erregulazio eta orientatzeko irizpide partikular hauek aplikatuko dira.	
4.1 xede operatiboa	NBko hezegune nagusien distribuzioa, kontserbazio-egoera eta bilakaera ezagutzea.
Erregulazioak	**4.E.1.-** Debekatuta dago NBaren organo kudeatzaileak berariaz baimendu ez duen edozein jarduketa egitea hezeguneetan. Gorbeia NBan inbentariatutako eremu hezeak aldatzea edo desagertzea ekar dezakeen edozein plan, programa, proiektu edo jarduerak afekzio nabarmena eragin dezake.

	4.E.2.- Gainazaleko eta lurpeko ur-hartune eta -aprobetxamendu berrien edo aurretik zeudenen aldaketen harira, kontserbazioaren xede diren NBko elementuetan izan ditzaketen ondorioak ebaluatuko dira aurrez, bakarrik edo beste aprobetxamendu batzuekin konbinatuta emari ekologikoen erregimena alda badezakete edo eremu hezeei eta horien babes-eremuei eragin badiezaiekete. Ebaluazio horretan, besteren artean, teknikoki bideragarriak diren alternatibak aztertuko dira, eta emakida egin behar dela eta erabakitako irtenbidea ingurumen-mailan egokia dela justifikatuko da behar den moduan; orobat, ziurtatuko da ez dela afekzio nabarmenik eragingo kontserbazioaren xede diren elementuetan. Edozein kasutan ere, ziurtatuko da emarien erregimena bateragarria dela kontserbazioaren xede diren NBko habitaten edo espezieen aldeko kontserbazio-egoerari eustearekin edo berau berrezartzearekin. **4.E.3.-** Enklabe horien inguruko lurzorua hidromorfikoa denez, bereziki sentiberak dira zapaltzean eta lehortzean; beraz, makineria astuna erabili, pistak egin edo ibilgailuak igaro ahal izango dira behar-beharrezkoa denean soilik. **4.E.4.-** Eremu heze bakoitzerako babes-perimetroa ezartzen ez den artean, perimetro hori 30 m-koa izango da elementu gako hori dagoen Batasunaren intereseko habitaten mugen inguruan, agiri honi atxikitako habitaten kartografiari jarraikiz. **4.E.5.-** Debekatuta dago ongarriak edo herbizidak erabiltzea eta su egitea habitat horien inguruan, 10 m-ko zerrenda batean erabiltzea ibai-ibilguen ertzen bi aldeetan, eta 30 m-ko zerrendan eremu hezeen inguruan, salbu eta salbuespenezko eta justifikatutako arrazoiak badaude. Horretarako, organo kudeatzaileak aurretiaz berariazko baimena eman beharko du, babestu nahi den elementuaren osotasunari eraginik ez zaiola sortzen ziurtatu behar baitu. **4.E.6.-** NBko hezeguneen distribuzioa, kontserbazio-egoera eta bilakaera ezagutzera zuzendutako jarduketak bultzatuko dira, eta habitat horiek zein lotutako flora- eta fauna-populazioak kontserbatu eta berreskuratzeko jarduketak sustatuko dira.
4.2 xede operatiboa	NBko hezegune nagusiak babestea, aldeko kontserbazio-egoera lor dezaten edo horri eutsi diezaioten.
Erregulazioak	**4.E.7.-** NBko hezeguneetan dauden Batasunaren edo eskualdearen intereseko habitatak eta espezieak behar bezala babesten direla ziurtatze aldera, eta kontserbazio-egoerari nahiz bilakaerari buruzko datu xehatuak eskuragarri ez dauden bitartean, Gorbeiako NBAPko *25. art.- Erreserba integraleko aldea* artikuluan ezartzen den araudia aplikatuko zaie jarraian zerrendatuko diren eremu hezeei (eta babes-perimetroari), gutxienez. Hona hemen hezeguneak: Zuiako zingirak (B1A4), Zigoitiako zingirak (B1A5), Altubeko putzuak (B4A1), Gorbeiako urtegia I (EA8), Gorbeiako urtegia II (EA9), Iondegortako presa (EB8), Lamiogingo putzua (GA11), Saldropoko zohikaztegia (B1B1), Orozkoko zingirak (B1B2), Zeanuriko zingirak (B1B9), Saldropoko zingirak (B1B10), Areatzako zingirak (B1B8), Kulukupadrako eta La Yeserako putzuak (B4A1). **4.E.8.-** Debekatuta dago Saldropoko zohikaztegiko hesien barnera sartzea, NBaren organo kudeatzaileak berariaz baimentzen duenean izan ezik. **4.E.9.-** Ganadu-kargak doituko dira, habitat horien inguruan gainlarratzea saihesteko. Putzuak dauden eremuetara ganadua sartzea ekidingo da; horretarako, askak edo itxiturak eraiki eta mantentze-lanak egingo dira. Edonola ere, ur-hartuneek emari aske nahikoa utziko dute eremu horiei eusteko. Mendietako larreen habitaten barruan dauden eremu hezeetara sarbidea mugatuko zaio ganaduari, habitataren jarraipenak hondamena egiaztatzen badu.

	4.E.10.- Hezeguneetan eta zohikaiztegietan debekatuta dago makineria bertatik igarotzea eta landaketetarako lurra zulatzea.
4.3 xede operatiboa	NBko hezeguneekin lotutako Batasunaren edo eskualdearen intereseko flora-espezieak kontserbatzea eta berreskuratzea.
Erregulazioak	**4.E.11.-** Berreskuratze-planak prestatuko dira mehatxu-maila handiena duten NBko flora-espezie mehatxatuentzat, 'galzoriko' edo 'kaltebera'-tzat hartzen direnentzat, gutxienez. Plan horiek prestatzean, erreferentziako agiri honetan jasotako irizpideak hartuko dira aintzat: *EAEko flora baskularraren zerrenda gorrian 'galzori kritikoan' gisa sailkatuta dagoen floraren berreskuratze-planak idazteko oinarri teknikoak* (IHOBE. 2011ko otsaila). **4.E.12.-** NBko flora-espezie mehatxatuak berreskuratzeko planak idazten ez diren bitartean, babes-perimetro jakin bat ezarriko da mehatxatutako flora-populazio bakoitzeko, eta gutxienez, 10 m-koa izango da, populazioen kokaleku ezagunen inguruan. Mugatutako gune hori espeziea kontserbatzeko eremutzat joko da.
4.4 xede operatiboa	NBko hezeguneekin lotutako Batasunaren edo eskualdearen intereseko fauna-espezieak kontserbatzea eta berreskuratzea.
Erregulazioak	**4.E.13.-** Oro har, debekatuta dago dortoka istilzalearen eta mehatxatutako gainerako narrastien aleak nahiz baso-igel jauzkariaren eta mehatxatutako gainerako anfibioen aleak harrapatzea; ildo beretik, debekatuta dago aipatutako aleak hiltzeko, jazartzeko edo enbarazu egiteko baimendu gabeko edozein jarduketa egitea, larbei, kumeei eta arrautzei zuzendutakoak barne, eta debekatuta dago euren habitatak suntsitzea, bereziki, habiak, gordelekuak, eta ugalketa-, negu-, atseden- edo elikatze-eremuak. Debekatuta dago 'galzorian' edo 'kaltebera' zerrendatuta dauden espezieak naturalizatu, garraiatu, saldu, erakutsi, inportatu edo esportatzea, bizirik edo hilda eduki. **4.E.14.-** Indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz, harrapatu, atxiki edo edozein prozeduraren bidez naturatik ateratzen den Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoko animalia-espezieen aleak ezingo dira ingurune naturalera itzuli, ikerketa-arrazoiengatik egiten denean izan ezik. Partikular batek harrapatu edo atxikitzen baditu, alea edo aleak agintari eskudunei eman beharko dizkie; bestela, desagerrarazi beharko du edo ingurune naturaletik atera indarreko araudiari jarraikiz. **4.E.15.-** NBaren organo kudeatzaileak NBko anfibioen komunitatearen habitata hobetzeko jarduketak sustatuko ditu. Ildo horretatik, putzuak eta enklabe hezeak lehengoratu eta sortzeko ekintzak sustatuko dira, eta kokapen mesedegarrienak hautatuko dira zenbait alderdiri erreparatuz: espezieen distribuzioa, ezagutzen diren ugalketa-eremuak, mugitzeko ibilbideak, lursailen jabetza, aukera-irizpideak, etab.; jarduketak horiek mehatxu-maila handiena duten espezieei zuzenduko dira bereziki: *Ichtyosaura alpestris*, *Rana dalmantina* eta *Triturus marmoratus*. **4.E.16.-** Jarduketak sustatuko dira azpiegiturak anfibioen ezaugarrietara beharrezko diren egokitzapenak egiteko: A-68 autobidea, A-624, Iondegortako urtegia, etab. **4.E.17.-** Fauna mehatxatuaren jarraipen-lanetan, batik bat ibai-ibilguekin edo eremu hezeekin lotuta dagoen faunaren kasuan, laginketak desinfekzio-baldintza nahikoetan egingo dira, agente patogenoak eremu batzuetatik beste batzuetara transmititzea saihesteko. **4.E.18.-** NBri eragiten dioten eragile eta sektoreen prestakuntza, sentsibilizazioa eta aholkularitza indartuko dira, dortoka exotikoen presentzia, hedadura eta gerta daitekeen lehia galarazteko xedez (kasu honetan, *Trachemys scripta* eta beste taxon batzuk). *Trachemys scripta* desagerrarazteko eta kontrolatzeko helburua duten jarduketak sustatuko dira. Beste alde batetik, baso-igel jauzkariaren kasuan, Lamiogingo putzuan dagoen zamo txikia (*Carassiuss auratus*) desagerrarazi eta kontrolatuko da.

5. Ibai-sistema: errekak, ubideak eta lotutako habitat naturalak	
Xedeak eta erregulazioak	
5. azken xedea	NBko ibai-sistemaren erabateko funtzionaltasunari eustea, kontserbatzea eta berreskuratzea, intereseko espezie ugari dauden habitatak garatzen diren esparru gisa eta dibertsitateari zein prozesu ekologikoei eusten laguntzen duen korridore ekologiko gisa. Honako hau dakar: - NBko ibai eta erreketako uren egoera ekologiko ona ziurtatzea. - Urarekin lotuta dauden habitatak eta fauna- eta flora-populazioak aktiboki kontserbatzea, eta ordezkaritza onena dutenak babestea. Heldutasunaren, egiturazko konplexutasunaren eta biodibertsitatearen alde egitea. - Ibai-korridore jarraitua lortzea, ibai-sistemaren dibertsitate ekologikoa eta funtzio bioklimatikoa ziurtatzen dituena.
NBko ibai-sistemari aplikatuko zaizkio *Ingurune hidrikoarekin lotutako KBEak eta HBEBak kontserbatzeko neurriak* agiriko jarraibideak eta erregulazioak, ingurumen-kontserbazioari eta -hobekuntzari (zehazki, kode hauek dituztenak: 1. D. 1etik 1. D. 6ra artean, eta 1. D. 9, eta 1. E. 1 eta 1. E. 2) zein KBEko uraren erabilerari buruzkoak (5. D. 1etik 5. D. 6ra, eta 5. E. 1etik 5. E. 9ra)., Era berean, honako xedapen hauek aplikatuko dira: Gorbeia aldeko NBAP onesten duen ekainaren 21eko 227/1994 Dekretuaren 20. artikuluan (Baliabide hidrologikoen babesa) Baliabide hidrologikoen babesari buruz jasotako arauak. • Gorbeia parke naturalaren NBAPko 21. artikuluan flora eta fauna babesteari buruz bildu diren erregulazioak. Elementu gako honi eragin diezaiokeen erabilera edo jarduera jakin baten aurrean kontraesanak aurkitzen badira aipatu agirietako xedapenen artean, babes handieneko irizpidea edo irizpide murriztaileena gailenduko da.	
5.1 xede operatiboa	NBko ibai eta erreketako uren egoera ekologiko ona ziurtatzea, ezinbestekoa baita sistemaren barruan dauden intereseko habitat eta espezieen populazioen kontserbazio-egoera ona izateko.
Erregulazioak	**5.E.1.-** Debekatuta dago ibilgua morfologikoki aldatzea dakarren jarduketa oro, interes publikoko arrazoiak direla-eta salbuespenez baimendu behar direnak izan ezik. **5.E.2.-** Kokatzeko eta ibilbiderako beste aukerarik ez baitago NBan egin behar diren planak, programak eta azpiegitura-proiektuak (saneamendua, hornidura, pistak, bideak, etab.) baimenduko dira tokiko osotasunari eragingo ez diotela egiaztatzen bada, eta hala badagokio ingurumen-inpaktuaren ebaluazioko prozedura ere gauzatuko da. Horrela jardungo da kanalizazioak, defentsak, eraikuntza-dragatuak, sedimentuen mantentze-lanak eta birkokatzeak, eta edozein motatako betelanak egin behar direnean. **5.E.3.-** Ongarri organikoak aplikatzen badira, ez dira gainditukо honako hauek ezarritako mugak: nekazaritzatik eratorritako nitratoekin ura kutsatzeko Arriskutan dauden Inguruak izendatzeko arauak finkatu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza-lanetan Egoki Jarduteko Kodea onartzeko den abenduaren 22ko 390/1998 Dekretua; eta, nekazaritzako nitrato-kutsadura jasateko arriskupeko gunetzat jo ez diren Euskal Autonomia Erkidegoko guneetarako nekazaritza-lanetan Egoki Jarduteko Kodea onartzen duen ekainaren 7ko 112/2011 Dekretua. Gainera, debekatuta dago ongarria erabiltzea 10 m-ko zerrendan ibai-ibilguen bi aldeetako ertzean eta 30 m-ko zerrendan eremu hezeetako bi aldeetako ertzean.

	5.E.4.- Ur-ibilbideen eta eremu hezeen inguruan, ongarri kimikoen eta produktu fitosanitarioen erabilera minimizatzen duten nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilerak sustatuko dira, esaterako, nekazaritza ekologikoarekin eta nekazaritza integratuarekin zerikusia dutenak. KBEaren organo kudeatzaileak zaintza-lanak egingo ditu basa-fauna eta -florarako toxikotasun txikia duten edo toxikoak ez diren pestizidak erabil daitezen, gomendatutako gutxieneko dosiak aplika daitezen, eta modu prebentiboan erabil ez daitezen, ezta ureztatzean ere. **5.E.5.-** Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 19.4 artikulua aplikatzeko, debekatuta egongo dira legar- edo hondar-erauzketak. **5.E.6.-** Kontserbazio- edo kutsadura-arazoak antzematen badira agorraldian bainulari ugari baitoaz Baia ibaira, NBaren organo kudeatzaileak neurri murriztaileak hartu ahal izango ditu. **5.E.7.-** Ibilguak ezingo dira zerbitzu-galeriatzat jo bideratutako azpiegituren luzetarako ibilbiderako. Eremu horietan, ibilgua bera eta ingurua errespetatu beharreko gunetzat hartu behar dira, funtsezkoa baita ibai-korridorea garatzeko, ibai-ekosistemaren higadura, kutsadura eta degradazioa kontrolatzeko xedez.
5.2 xede operatiboa	Emari naturalen erregimena ziurtatzea KBEaren eremuko ibai-ibilbideetan.
Erregulazioak	**5.E.8.-** Urei buruzko Legearen Testu Bategineko 59.7 artikuluarekin, Kantauri Ekialdeko Mugaketaren Plan Hidrologikoaren araudiko 12. eta 13. artikuluekin, eta Ebroko Mugaketa Hidrografikoko Plan Hidrologikoaren 24. artikuluarekin bat etorriz, emari ekologikoek ez dute erabilera-izaera.
5.3 xede operatiboa	Ibaiertzeko habitaten kalitatea eta kontserbazio-egoera hobetzea, ertzen konektibitatea ziurtatzen duen korridore ekologiko jarraitua berreskuratze aldera, fauna lekuz aldatzeko eta ibai- nahiz lur-sistemak ekologikoki egoki funtzionatzeko xedez.
Erregulazioak	**5.E.9.-** NB eremuan debekatuta dago interes ekologikoko aleak edo landaredi erriparioko masak osorik edo zati batean desagerraraztea dakarten baso-jarduketak gauzatzea. Inguru horretatik gertu egiten diren baso-aprobetxamenduetan, ziurtatu beharko da lotuta dauden Batasunaren intereseko habitatek eta espezieek aurrera egiten dutela eta kontserbatzen direla; gainera, ekidin beharko da uren kalitateari eragitea. **5.E.10.-** NB eremuan gauzatzen diren baso-aprobetxamenduetan, lanetatik babestuko da, gutxienez, jabari hidrauliko publikoari eta horren babes-zortasunari dagokion lur-zerrenda. Eremu horretan, ez da zuhaitz-espezie aloktonorik landatuko, eta belardi naturalak kontserbatu eta hobetzeko jarduketak sustatuko dira. Eremu horietako landaketei dagokienez, lurzorua harrotzeko lanak saihestuko dira. **5.E.11.-** Bazterrak babestu eta ezpondak egonkortzeko egiturak behar badira, ahal den teknikarik onena erabiliko da eta irtenbide 'gogorrak' ekidingo dira, esaterako, hormak edo hormigoizko harri-lubetak, baldin eta teknikoki aholka badaiteke. Egitura horiek inguruan txertatuko dira, eta ahal dela, bioingeniaritzako edo ingeniaritza naturalistikoko teknikak erabiliko dira.

	5.E.12.- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana aplikatzearen ondoreetarako, NBko eremu osoa Natura Intereseko Lehentasunezko Eremutzat hartuko da. NBaren barne landa-eremuari dagozkion ertzetan, gutxieneko distantzia errespetatuko da mugarriztatze-lerrotik, edo Administrazio Hidraulikoak zehaztutako ohiko uraldi handienen lerrotik, edo ibilguaren ezpondaren tontorretik, dagokionaren arabera: 50 m zabal Baia ibaiko ibilguan, 25 m zabal Zubialde, Ugalde, Oiardo eta Altube ibaien ibilguetako bi aldeetan, eta 200 m-ko tontorra Zubialdeko urtegietan. Ertz horiek aipatutako planeko D.2 atalean ibilgua babesteko zehaztu den gunea izango dira, non aplikagarri izango da LAPk eremu horietarako ezarritako erabileren erregulazioa, agiri honetan erabilerei buruz jaso diren jarraibideak eta erregulazioak gorabehera. Aipatutako distantziak lursail naturala aldatuko duen edozein esku-hartzerako aplikatuko dira (eraikinak, instalazioak edo edozein motatako eraikuntzak, hala finkoak nola desmuntagarriak, lur-berdinketak eta -mugitzeak, etab.), onura publikoko eta gizarte-intereseko azpiegituren obra publikoei eta instalazioei dagozkienak izan ezik, edota kultur-ondarea babesteko ekintzak izan ezik, behar bezala justifikatzen bada.
5.4 xede operatiboa	Ibai-sistemarekin lotutako flora-populazio mehatxatuen jarraipena egitea, berreskuratze-planetan ezarritako neurriak gauzatzea, eta NBko jarduketen eraginkortasuna ebaluatzea.
Erregulazioak	**5.E.13.-** NBko flora-populazio mehatxatuaren ezagutza hobetzera bideratutako jarduerak bultzatuko dira mehatxatutako espezieen inbentarioa aldian behin eguneratuz; horretarako, nagusiki, distribuzioari, populazioen kontserbazio-egoerari, eta jasaten dituzten presioei zein mehatxuei erreparatuko zaie. **5.E.14.-** Berreskuratze-planak prestatuko dira mehatxu-maila handiena duten NBko gainerako flora-espezie mehatxatuentzat, 'galzoriko' edo 'kaltebera'-tzat hartzen direnentzat, gutxienez. Plan horiek prestatzean, *EAEko flora baskularraren zerrenda gorrian 'galzori kritikoan' gisa sailkatuta dagoen floraren berreskuratze-planak idazteko oinarri teknikoak* (IHOBE. 2011ko otsaila) erreferentziako agirian jasota dauden irizpideak aintzat hartuko dira. **5.E.15.-** *Prunus lusitanica* espeziea babestu eta berreskuratzeko jarduketak aurreko erregulazioan aipatutako erreferentziako agirian jasota dagoen berreskuratze-plan zehatzari jarraituz gauzatuko dira. **5.E.16.-** NBko flora-espezie mehatxatuak berreskuratzeko planak idazten ez diren bitartean, babes-perimetro jakin bat ezarriko da mehatxatutako flora-populazio bakoitzeko, eta gutxienez, 10 m-koa izango da, populazioen kokaleku ezagunen inguruan. Mugatutako gune hori espeziea kontserbatzeko eremutzat joko da.
5.5 xede operatiboa	Ibai-sistemarekin lotutako fauna-populazio mehatxatuen jarraipena egitea eta kontserbatzea (ugaritasuna, distribuzioa eta kontserbazio-egoera), eta arreta berezia jartzea espezie hauen kasuan: martin arrantzalea, baso-igel iberiarra, loina, amuarraina eta karramarro autoktonoa.
Erregulazioak	**5.E.17.-** Oro har, debekatuta dago baso-igel iberiarraren eta mehatxatutako gainerako anfibioen aleak harrapatzea; ildo beretik, debekatuta dago aipatutako aleak hiltzeko, jazartzeko edo enbarazu egiteko baimendu gabeko edozein jarduketa egitea, larbei, kumeei eta arrautzei zuzendutakoak barne, eta debekatuta dago euren habitatak suntsitzea, bereziki, habiak, gordelekuak, eta ugalketa-, negu-, atseden- edo elikatze-eremuak. Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 50. artikuluari jarraikiz, debekatuta dago 'galzorian' edo 'kaltebera' zerrendatuta dauden espezieak naturalizatu, garraiatu, saldu, erakutsi, inportatu edo esportatzea, bizirik edo hilda eduki.

	5.E.18.- Kirol-arrantza, oro har, debekatuta dago Gorbeia NBko ibaietan eta erreketan. Hortaz, arrantza askeko tarteak kendu egingo dira NB osoan. **5.E.19.-** NBaren organo kudeatzaileak arrantza-jarduerak baimendu ahal izango ditu ibaien beheko tarteetan, baldin eta horien erregulazioa bateragarria bada faunaren eta floraren populazioen kontserbazio-xedeekin, baita Batasunaren interesekoak diren NBko habitatenekin ere. Arrantza-jarduerek ibaien arrantza-ahalmena errespetatu beharko dute eta arrain-populazioei arriskurik eragiten ez dieten arrantza-modalitateen bidez egingo dira. **5.E.20.-** Debekatuta dago arrain-faunako espezieak edo barietateak askatzea edo horiekin birpopulatzea, ekimena pribatua zein publikoa izanik, baldin eta mehatxua izan badaiteke NBan dauden Batasuneko edo eskualdeko intereseko espezieetarako. Fauna NBan nahi gabe edo legez kanpo sartuz gero, oro har, ez da arrain-aprobetxamendua baimenduko, eta hala badagokio, espezieak kontrolatzeko neurri egokiak sustatuko dira, horiek desagerrarazteko asmoz. **5.E.21.-** Karramarro autoktonoa babesteko neurri zehatzak hartuko dira. Besteak beste, karramarroa arrantzatzeko debekuari eutsiko zaio, egungo populazioak inbentariatu eta ebaluatuko dira, eta aleak banatuko dira espeziea egun ez dagoen baina egon daitekeen beste toki batzuetan. **5.E.22.-** Karramarro autoktonoa NBko erreketan egotea bultzatzeko jarduketak sustatuko dira, EAEn duen egoera txarra kontuan izanda, NBko habitataren ezaugarriak, hasiera batean, mesedegarriak baitira mehatxatutako espezie horrentzat. **5.E.23.-** Karramarro seinaleduna NBan hedatzea eragozteko asmoz, espezie horren gainarrantza egingo da karramarro autoktonoarekin interferentzia gertatzen den tokietan. **5.E.24.-** Jarduketak sustatuko dira NBko arrain-komunitatea osatzen duten arrain autoktonoen espezieen habitat, distribuzio, ugaritasun eta kontserbazio-egoeraren ezagutza hobetzeko. **5.E.25.-** Elementu gako hau osatzen duten espezieen kontserbazio-xedeak, bereziki karramarro autoktonoarenak, hein handian arriskuan jar ditzaketeen espezie inbaditzaile aloktonoak kontrolatzeko jarduketak sustatuko dira; karramarroaren kasuan, karramarro seinaleduna desagerrarazi eta kontrolatzeko jarduketak sustatuko dira.

6.1 Taula: **KONTSERBATU BEHARREKO HABITATEKIN ERLAZIOA DUTEN ARAU ETA NEURRIAK**				
HZ/EUNIS Kodea	Izendapena	Adierazg.	Kontserbazio egoera	Onuragarriak zaizkion kontserbazio arauak
3140	Ur oligomesotrofo karedunak *Chara spp.*-eko landaredi bentikoduna	C	Desegokia	E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.17., 1.E.25., 4.E.1., 4.E.2., 4.E.3., 4.E.4., 4.E.5., 4.E.6., 4.E.7., 4.E.9., 4.E.10., 4.E.15., 4.E.17., 5.E.4.
3150	Laku eutrofiko naturalak *Magnopotamion* edo *Hydrocharition*-eko landarediarekin	C	Desegokia	E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.17., 1.E.25., 4.E.1., 4.E.2., 4.E.3., 4.E.4., 4.E.5., 4.E.6., 4.E.7., 4.E.9., 4.E.10., 4.E.15., 4.E.17., 5.E.4.
3240	Landaredi egurtsua eta *Salix elaeagnus* sastrakadiak duten ur bazter alpinoak	B	Aldekoa	E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., 4.E.2., 5.E.1., 5.E.2., 5.E.3., 5.E.4., 5.E.5., 5.E.6., 5.E.7., 5.E.8., 5.E.9., 5.E.10., 5.E.11., 5.E.12.
4020*	Zona epeletako *Erica ciliaris* eta *Erica tetralix*-dun txilardi heze atlantiarrak	B	Desegokia	E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.17., E.18., 1.E.5., 2.E.1., 2.E.2., 2.E.4., 2.E.6., 2.E.13., 4.E.1., 4.E.2., 4.E.3., 4.E.4., 4.E.5., 4.E.6., 4.E.7., 4.E.9., 4.E.10., 4.E.15., 4.E.17., 5.E.4.
4030	Txilardi lehor europarrak	A	Aldekoa	E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.17., E.18., 1.E.5., 2.E.1., 2.E.2., 2.E.4., 2.E.5., 2.E.6., 2.E.13.
4090	Txilardi oromediterraneo endemikoak, elorri-triskarekin	C	Aldekoa	E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.17., E.18., 1.E.5., 2.E.1., 2.E.2., 2.E.4., 2.E.5., 2.E.6., 2.E.13.
5110	Malda arrokatsuetako *Buxus sempervirens*-eko formazio egonkor xerotermofiloak (*Berberidion p.p.*)	D		E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., 1.E.5., 1.E.6., 2.E.1., E.18., 2.E.2., 2.E.3., 2.E.5., 2.E.7., 2.E.13.
6170	Larre alpetar eta subalpetar karedunak	C	Aldekoa	E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.17., E.18., 1.E.5., 2.E.2., 2.E.3., 2.E.11., 2.E.13., 3.E.5., 3.E.14., 3.E.15., 3.E.31.

6.1 Taula: **KONTSERBATU BEHARREKO HABITATEKIN ERLAZIOA DUTEN ARAU ETA NEURRIAK**				
HZ/EUNIS Kodea	Izendapena	Adierazg.	Kontserbazio egoera	Onuragarriak zaizkion kontserbazio arauak
6210	Belardi lehor erdinaturalak eta kare-substratuetako sastraka-faziesak (*Festuco-Brometalia*)	B	Desegokia	E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.17., E.18., 1.E.5., 2.E.1., 2.E.2., 2.E.4., 2.E.5., 2.E.11., 2.E.6., 2.E.13.
6230*	*Nardus*-dun formazio belarkarak, espezie ugarirekin, zona menditarreko (eta Europa kontinentaleko zona azpimenditarreko) silize-substratuetan	A	Aldekoa	E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.17., E.18., 1.E.5., 2.E.1., 2.E.2., 2.E.4., 2.E.5., 2.E.5., 2.E.7., 2.E.9., 2.E.11., 2.E.13.
6410	*Molinia caerulea*-dun larreak, kare-, zohikatz- edo buztin/limo-substratuetan (*Molinion caeruleae*)	D		E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.17., E.18., 1.E.5., 2.E.2., 2.E.11., 2.E.13.
6430	Ordoki bazterreko eta estai menditar eta alpetarreko megaforbio eutrofo higrofiloak	A	Desegokia	E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.17., E.18., 1.E.5., 2.E.2., 2.E.3., 2.E.13., 3.E.14., 3.E.15., 3.E.31.
6510	Altitude baxuetako sega-belardi txiroak (*Alopecurus pratensis, Sanguisorba officinalis*)	D		E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.17., E.18., 1.E.5., 1.E.14., 2.E.8., 2.E.11., 2.E.12., 2.E.13.
7140	Trantsizio-zohikaztegiak	A	Desegokia	E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., 1.E.5., 2.E.2., 2.E.7., 4.E.1., 4.E.2., 4.E.3., 4.E.4., 4.E.5., 4.E.6., 4.E.7., 4.E.8., 4.E.9., 4.E.10., 4.E.15., 4.E.17., 5.E.4.
7230	Zohikaztegi baxu alkalinoak	B	Desegokia	E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., 1.E.5., 2.E.2., 2.E.7., 4.E.1., 4.E.2., 4.E.3., 4.E.4., 4.E.5., 4.E.6., 4.E.7., 4.E.8., 4.E.9., 4.E.10., 4.E.15., 4.E.17., 5.E.4.
8130	Mediterraneo mendebaldeko lur-jausi termofiloak	B	Desegokia	E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., 2.E.3., 3.E.3., 3.E.4., 3.E.5., 3.E.14., 3.E.15., 3.E.31.

6.1 Taula: **KONTSERBATU BEHARREKO HABITATEKIN ERLAZIOA DUTEN ARAU ETA NEURRIAK**				
HZ/EUNIS Kodea	Izendapena	Adierazg.	Kontserbazio egoera	Onuragarriak zaizkion kontserbazio arauak
8210	Landaredia kasmofitikodun malda arrokatsu kaltzikolak	A	Aldekoa	E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., 2.E.3., 2.E.13., 3.E.3., 3.E.5., 3.E.14., 3.E.15., 3.E.23., 3.E.24., 3.E.29., 3.E.31.
8310	Turismoak ustiatu gabeko kobak	A	Desegokia	E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.18., 3.E.1., 3.E.2., 3.E.3., 3.E.5., 3.E.6., 3.E.7., 3.E.8., 3.E.9, 3.E.10., 3.E.11., 3.E.12., 3.E.13., 3.E.14., 3.E.31.
9120	Pagadi azidofilo atlantiarrak, Ilex oihanpedunak, eta batzuetan Taxus-dunak (*Quercion robori-petraeae edo Ilici-Fagenion*)	A	Desegokia	E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.18., 1.E.1., 1.E.2., 1.E.3., 1.E.4., 1.E.5., 1.E.6., 1.E.7., 1.E.9., 1.E.14., 1.E.25., 2.E.3., 2.E.13.
9150	Europa erdialdeko pagadi kaltzikolak (*Cephalanthero-Fagion*)	D		E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.18., 1.E.1., 1.E.2., 1.E.3., 1.E.4., 1.E.5., 1.E.6., 1.E.7., 1.E.9., 1.E.14., 1.E.25., 2.E.3., 2.E.13.
9160	Haritz kanduduneko edo haritz kandugabeko baso subatlantikoak eta Europa erdikoak (*Carpinion betuli*)	B	Txarra	E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.18., 1.E.1., 1.E.2., 1.E.3., 1.E.4., 1.E.5., 1.E.6., 1.E.7., 1.E.9., 1.E.14., 1.E.25., 2.E.13.
9180*	Malda, lur-jausi edo amildegietako basoak (*Tilio-Acerion*)	B	Aldekoa	E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.18., 1.E.1., 1.E.2., 1.E.3., 1.E.4., 1.E.5., 1.E.6., 1.E.7., 1.E.9., 1.E.14., 1.E.25., 2.E.3., 2.E.13.
91E0*	*Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior*-eko ibarbasoak (*Alno-Padion, Alnion incanae, Salicion albae*)	C	Desegokia	E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.18., 1.E.1., 1.E.2., 1.E.3., 1.E.4., 1.E.5., 1.E.6., 1.E.7., 1.E.14., 1.E.25., 2.E.13., 4.E.1., 4.E.2., 5.E.1., 5.E.2., 5.E.3., 5.E.5., 5.E.6., 5.E.7., 5.E.8., 5.E.9., 5.E.10., 5.E.11., 5.E.12.
9230	Harizti galaikoportugesak, *Quercus robur* eta *Quercus pyrenaica*-rekin	A	Desegokia	E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.18., 1.E.4., 1.E.5., 1.E.1., 1.E.2., 1.E.3., 1.E.6., 1.E.7., 1.E.9., 1.E.14., 1.E.25., 2.E.13.

6.1 Taula: **KONTSERBATU BEHARREKO HABITATEKIN ERLAZIOA DUTEN ARAU ETA NEURRIAK**				
HZ/EUNIS Kodea	Izendapena	Adierazg.	Kontserbazio egoera	Onuragarriak zaizkion kontserbazio arauak
9240	Harizti iberiarrak *Quercus faginea* eta *Quercus canariensis*-ekin	D		E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.18., 1.E.1., 1.E.2., 1.E.3., 1.E.4., 1.E.5., 1.E.6., 1.E.7., 1.E.8., 1.E.9., 1.E.14., 1.E.25., 2.E.13.
9260	*Castanea sativa*-ko basoak	D		E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.18., 1.E.1., 1.E.2., 1.E.3., 1.E.4., 1.E.5., 1.E.6., 1.E.7., 1.E.8., 1.E.9., 1.E.14., 1.E.25., 2.E.13.
9340	*Quercus ilex* eta *Quercus rotundifolia*-ko basoak	C	Txarra	E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.18., 1.E.1., 1.E.2., 1.E.3., 1.E.4., 1.E.5., 1.E.6., 1.E.7., 1.E.8., 1.E.9., 1.E.14., 1.E.25., 2.E.13.
C3.23	*Typha spp*. lezkadiak			E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., 1.E.25., 4.E.1., 4.E.2., 4.E.3., 4.E.4., 4.E.5., 4.E.6., 4.E.7., 4.E.9., 4.E.10., 4.E.15., 4.E.17., 5.E.4.
E3.41	Belardi-ihidi basofilo atlantiarrak			E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.17., E.18., 1.E.5., 1.E.14., 2.E.2., 2.E.8., 2.E.13., 4.E.1., 4.E.2., 4.E.3., 4.E.7., 5.E.4.
F3.11(X)	Arantzadi atlantiar kaltzikolak			E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.17., E.18., 1.E.5., 1.E.14., 2.E.2., 2.E.8., 2.E.13., 4.E.1., 4.E.2., 4.E.3., 4.E.7., 5.E.4.
F5.21(Y)	Gurbizti edo maquis altu termoatlantiarra			E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.17., E.18., 1.E.4., 1.E.5., 1.E.6., 1.E.14., 2.E.2., 2.E.3., 2.E.13.
F9.12-F9.2	Zona baxu eta muinoetako ur bazterretako *Salix*-en sastrakadiak eta Ingurune lohitsuetako *Salix*-en sastrakadiak			E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.17., E.18., 1.E.4., 1.E.5., 1.E.6., 1.E.14., 2.E.3., 2.E.13.

6.1 Taula: **KONTSERBATU BEHARREKO HABITATEKIN ERLAZIOA DUTEN ARAU ETA NEURRIAK**				
HZ/EUNIS Kodea	Izendapena	Adierazg.	Kontserbazio egoera	Onuragarriak zaizkion kontserbazio arauak
G1.64	Pagadi basofilo edo neutroa			E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.18., 1.E.1., 1.E.2., 1.E.3., 1.E.4., 1.E.5., 1.E.6., 1.E.7., 1.E.14., 1.E.25., 2.E.3., 2.E.13., 4.E.1., 4.E.2., 5.E.8., 5.E.9., 5.E.10., 5.E.11., 5.E.12.
G1.82	Harizti-pagadi azidofilo atlantiarra			E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.18., 1.E.1., 1.E.2., 1.E.3., 1.E.4., 1.E.5., 1.E.6., 1.E.7., 1.E.9., 1.E.14., 1.E.25., 2.E.3., 2.E.13.
G1.86	*Quercus robur* nagusitzen deneko baso azidofiloa			E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.18., 1.E.1., 1.E.2., 1.E.3., 1.E.4., 1.E.5., 1.E.6., 1.E.7., 1.E.9., 1.E.14., 1.E.25., 2.E.13.
G1.86(X)	*Quercus petraea*-ren harizti azidofiloa			E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.18., 1.E.1., 1.E.2., 1.E.3., 1.E.4., 1.E.5., 1.E.6., 1.E.7., 1.E.9., 1.E.14., 1.E.15., 1.E.25., 2.E.13.
G1.A1	Hostozabalen baso misto mesotrofoa, atlantiarra			E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.18., 1.E.1., 1.E.2., 1.E.3., 1.E.4., 1.E.5., 1.E.6., 1.E.7., 1.E.9., 1.E.14., 1.E.25., 2.E.13.
G1.A1(X)	Harizti mesotrofo atlantiarra			E.1., E.2., E.3., E.5., E.6., E.7., E.8., E.9., E.10., E.11., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.18., 1.E.1., 1.E.2., 1.E.3., 1.E.4., 1.E.5., 1.E.6., 1.E.7., 1.E.9., 1.E.14., 1.E.25., 2.E.13.

6.2 Taula: **KONTSERBATU BEHARREKO ESPEZIEKIN ERLAZIOA DUTEN ARAU ETA NEURRIAK**							
Kodea	Espeziea	HZ Eransk.	HeZ Eransk.	BBEBEZ /EEMK	EMEK	Kontserbazio egoera KBEan	Onuragarriak zaizkion kontserbazio arauak
KOMUNITATEAREN EDO/ETA ESKUALDEAREN INTERESEKO FLORA							
1865	*Narcissus asturiensis*	II		*	IB	Aldekoa	E.5., E.8., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.17., E.18., 1.E.1., 1.E.2., 1.E.3., 2.E.2., 2.E.3., 2.E.7., 2.E.13.
1857	*Narcissus pseudonarcissus ssp. nobilis*	II		*	B	Aldekoa	E.5., E.8., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.17., E.18., 1.E.1., 1.E.2., 1.E.3., 2.E.2., 2.E.7., 2.E.13.
1421	*Trichomanes speciosum*	II		*	K	Desegokia	E.5., E.8., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., 1.E.1., 1.E.2., 1.E.3., 2.E.13., 5.E.8., 5.E.9., 5.E.10., 5.E.11., 5.E.12., 5.E.13., 5.E.14., 5.E.16.
1900	*Spiranthes aestivalis (Poir.) Rich.*	IV		*	K	Txarra	E.5., E.8., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., 2.E.2., 2.E.13., 4.E.5., 4.E.6., 4.E.11., 4.E.12., 5.E.4.
1762	*Arnica montana*	V			K	Txarra	E.5., E.8., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.17., 2.E.2., 2.E.7., 2.E.13., 2.E.15., 2.E.16.
5183	*Diphasiastrum alpinum*	V			GA	Txarra	E.5., E.8., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.17., 2.E.2., 2.E.3., 2.E.7., 2.E.13., 2.E.14., 2.E.16.
5188	*Huperzia selago*	V			B	Txarra	E.5., E.8., E.12., E.13., E.17., E.14., E.15., E.16., 2.E.2., 2.E.3., 2.E.7., 2.E.13.
5105	*Lycopodium clavatum*	V			B	Txarra	E.5., E.8., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.17., 2.E.2., 2.E.3., 2.E.7., 2.E.13., 2.E.15., 2.E.16.
1849	*Ruscus aculeatus*	V				Ezezaguna	E.5., E.8., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., 2.E.13.
1864	*Narcissus bulbocodium*	V			IB	Aldekoa	E.5., E.8., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.17., E.18., E.19., 1.E.1., 1.E.2., 1.E.3., 2.E.2., 2.E.3., 2.E.7., 2.E.13.

6.2 Taula: **KONTSERBATU BEHARREKO ESPEZIEKIN ERLAZIOA DUTEN ARAU ETA NEURRIAK**							
Kodea	Espeziea	HZ Eransk.	HeZ Eransk.	BBEBEZ /EEMK	EMEK	Kontserbazio egoera KBEan	Onuragarriak zaizkion kontserbazio arauak
	Ranunculus amplexicaulis				GA	Txarra	E.5., E.8., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.17., 2.E.2., 2.E.3., 2.E.7., 2.E.13., 2.E.14., 2.E.16.
	Meum athamanticum				GA	Txarra	E.5., E.8., E.12., E.13., E.14., E.15., E.16., E.17., 2.E.7., 2.E.13., 2.E.15., 2.E.16.
